
Hernani 2012

Hernani 2012

Hernaniko Udala
Ayuntamiento de Hernani

Udal Artxibo Zerbitzua
Servicio de Archivo Municipal

19. urtekaria 2012
XIX Anuario 2012

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA:
antza Komunikazio Grafikoa

AZALA: Jesús Mari Gómez (Hernaniko Udal Artxiboa)

LEGE GORDAILUA: SS-403-1993

Artikuluetan azaltzen diren iritzien erantzule idazlea bera da.
Las opiniones expresadas en los artículos son responsabilidad exclusiva de sus autores.

Agurra

Iritsi da 2012 urtearen amaiera eta esku artean duzu aurtengo urtekaria. Bertan Hernani herriari buruzko hainbat lan interesgarri topatuko dituzu beste hainbat herritarrek bere borondate onarekin landu eta idatzitakoak.

Aurtengoan ere gure herrian baditugu aipagarriak diren gertaerak. Esparru ezberdinetan dugu zeresana eta zer idatzia. Kulturgintzan, eta kantagintzan zehatzago, azkenaldian berri ona jaso dugu hainbat lehiaketetan, hainbat hernaniarrek jasotako sariak direla eta; kirol munduak, urtero bezala, momentu onak eta ospakizunetarako aukera eman digu; aipagarria euskararen kale neurketaren emaitzak hernaniarrok euskaraz gehiago egiten dugula diotenak; normalizazio politikorako bidean EAEko legebiltzarrerako hauteskundeak izan ditugu eta hernaniarrok ere kolore politiko guztiak ordezkatuko dituen legebiltzarra aukeratzeko hitzordua izan dugu; hainbat herritar etxean ditugu... eta beste hainbat urteurren, ospakizun eta notizi. Ezin denak hemen jaso.

Ez dute garrantzi gutxiagorik, eta aipatu nahi ditugu ere bai, kantu txapelketetan parte hartu duten guztiak; Hernanin kirola egiten duten guztiak, konpetitu edo ez, irabazi edo galdu; euskara hitz egin ez, baina ahaleginean ari diren herritarrak; hauteskundeetan parte hartu ez dutenak; oraindik herrian ez daudenak...

Bukatzeko, eskerrak eman urtekaria argitaratzeko lanean aritu diren guztiei. Aurtengo gure herriko kronika jasotzen laguntzeagatik. Hemen jaso dituzue herriko hainbat istorio.

Gozatu irakurraldiarekin.

Hernaniko Udal Gobernu Taldea

Aurkibidea
ÍNDICE

6. **Kutxa ekogunea** ETORKIZUNEKO EKOPARKEA
Kutxa Ekogunea

9. **Ur-meheak** GAINEZKA EGITEN DUENEAN
Leire Goñi Iradi

16. **Empar Pineda,** FEMINISTA ETA HERNANIAR BIKAINA
Eñaut Agirre

22. **Banaiz Bagara Elkartea** HERNANIN
Banaiz Bagara Elkartea (Petra Elser)

28. **"Erritmoa, kazetariaren..."** LIBURUAZ
Jexux Izagirre Portillo

31. **Urumeako zilegimendietako toponimiaz zenbait ohar,** HERNANIKOAZ BEREZIKI
Luis Mari Zaldua Etxabe

39. **Komikia:** GAZTE OLINPIADAK
Alai Zubimendi

42. **Ibilaldi bat Hernaniko gotorlekuen historian zehar:**
ERDI AROKO HARRESITIK NAPOLEONEN GARAIKO GUDUETAKO BABESETARAINO
Alfredo Moraza Barea (Aranzadi Zientzi Elkartea)

50. **Algunas historias** DE PELEAS, JUERGAS Y DINAMITA
Iñaki García de Vicuña

56. **Eskulapioren sugea,** FARMAZIETATIK EPELEKO BASOETARA
Iñaki Sanz-Azkue

64. **Santa Eskea (1962-2012):** OHITURAREN HATSA MAKIL HOTSEZ
Jon Odriozola

72. **Ur-Mia Solas Elkarteak,** 50. URTEURRENA (1962-2012)
Ur-Mia Solas Elkartea

88. **Hernani C.R. Elkartea** HISTORIALA ETA GARAIPENAK
Hernani C.R. Elkartea

97. CRÓNICA **2011**KO KRONIKA
Hernaniko Udal Artxiboa

Kutxa ekogunea
etorkizuneko ekoparkea

• *KUTXA Ekogunea*

Zer da KUTXA Ekogunea?

KUTXA Ekogunea KUTXAko Gizarte Ekintzak ingurumen eta jasangarritasunaren alde egin duen apustu estrategikoa da, proiektu ireki eta parte hartzailea. Laburki esanda, KUTXA Ekoguneak gizarteak kontzientziaziotik ekintzetara pasatzeko erremintak eskaintzea du helburu, egunez egun kultura berde bat eraikiz.

Proiektu jasangarriak Gipuzkoan zehar.

KUTXA Ekogunea egitasmoak Gipuzkoan zehar martxan ditu hainbat proiektu, horietako batzuk Hernanin. Izan ere, Hernani izan da ***Ontziratu zaitez!*** izeneko kanpainaren aitzindaritako bat. *Tupper*-raren kanpaina 2011 urtean Hernaniko arrandegietan abian jarri zenetik, 3.000 erabiltzailek jarraitzen dute *tupper berdea* erabiltzen erosketak egiteko. Keinu txiki honi esker, hernaniarrek arraina biltzeko paper eta plastiko pila aurreztu dute ingurumenarekiko kaltea murriztuz.







Bestalde, **olioa birziklatzeko sistema integrala** ezartzen lehenetariko bat izan da Hernaniko herria. Olioa birziklatzeko sistema garbi, eroso eta jasangarria da honakoa: etxean sortutako olio hondakinak (frijitu ondorengoak, kontserba potetakoak,...) arraskatik bota ordez, pote honetan bilduko dira.

Betetakoan, Hernaniko hainbat puntutan kokatutako makinan sartu eta trukean beste bat jasoko duzu, hutsa eta garbia. Erabilitako oliotik biodiesela, autoentzako erregaia, sortuko da.

Guztira, 10 olio makina kokatu ziren maiatzean udalerriko auzo ezberdinetan eta urtean 20.000 litro olio inguru jasotzea aurreikusita dago.

Bestalde, Hernaniko haur-eskolak jangeletan menu ekologikoak ezartzearen aldeko apustua egin du ***Ekolapiko*** ekimenean parte hartuz. *Ekolapiko* ikastetxeetako jantokietan elikadura ekologikoa eta orekatua txertatzeko proiektua da, bertako eta garaiko produktu ekologikoen erabileran oinarritua.

Maiatzaren 21ean abian jarri zen proiektu honi esker, Hernaniko 90 haurrek osasuntsu eta kalitatearekin jateaz gain, elikadurak, landa garapenak eta ingurumenak gure egunerokotasunean duen garrantziaz ohartuko dira.

Irailaren 1ean Hernanin izan zen ***EkoBira*** azoka jasangarria. Egun osoan zehar Plaza Berrira gerturatu ziren 2.700 herritarrek beste kontsumo era bat posible dela egiaztatzeko aukera izan zuten. Izan ere, *EkoBira*k ikusgai jarri du bizimodu jasangarria egiteko aukerak badaudela bai elikadura alorrean eta baita energia-kontsumoan eta aisialdian ere.



Parkea

KUTXA *Ekogune*ko nukleo fisikoa 2 urteren buruan gauzatuko da: Europako erreferente izango den jasangarritasunaren parkea, hain zuzen ere. Donostia eta Hernani artean kokatzen den *Zabalegi*ko lursailetan eraikiko da ***Ekogune parkea*** eta hainbat gune tematikoetan banatuko da: energia berriztagarrien plataforma, euskal abereen etxaldea, hizkuntzaren eta kulturaren zentroa non hizkuntza-ekologiaren inguruko erakusketa izango da ikusgai, ura iragazteko sistema naturalak, autokontsumorako baratzak, jatetxe ekologikoa, aterpetxea, ekodenda,... eta batez ere naturaz eta inguru-menaz gozatzeko topagunea izango da.

*Ekogunea*k urtean 130.000 bisita izango dituela aurreikusten da, horietako herena ikastetxe eta hezkuntza zentroak izanik.

Parkea leku irekia izango da eta bertan familiek, ikastetxeek eta enpresa publikoak zein pribatuek *ekoparkea*k eskura jarriko dituen ekimen eta zerbitzuez baliatzeko aukera izango dute: tailerrak, azokak, ibilbide gidatuak, aholkularitza zerbitzuak,...

KUTXA *Ekogunea*k guztion artean kontsumo eta aisialdi ohitura aldaketa aktiboa lortzea du helburu, kultura eta balore jasangarriagoak sustatuz.

Informazio gehiago: **www.ekogunea.net**

Ur-meheak
gainezka egiten duenean

• *Leire Goñi Iradi*

Urumea; ur-mehea, gardena, fina eta garbia. Horrelako adjektiboak jarri dizkiote sarri hainbat autorek Urumea ibaiari. Baina, ibaiak, tarteka, bere izaera baduela gogorarazten digu, eta bere lur zatia erreklamatzen du. Azken 80 urtetan, uholde handiak izan ditugu Hernanin 8 aldiz gutxienez. Azkena, lehengo urteko azaroan.



Arg.: Hernaniko KRONIKA

Euriak ez zuen etenik izan 2011ko azaroaren 6an. Igande hartan goizean goiz jaiki zenak ere, euria, zarra-zarra, etengabe ari zuela ikusi zuen. Eguerdi parterako, Urumea ibaia leku askotan gainezka eginda zegoen. Hernanin azken 20 urtetan gertatu den uholderik handiena izan zen. Añarbeko datuen arabera, 308 litro bota zituen metro karratuan, 56 ordutan. Añarbeko urtegiak berak 10 milioi metro kubiko ur hartu zituen, momentu batzuetan, 187 metro kubiko segundoko. Kalteak handiak izan ziren. Hildako bat izan zen Irunen; 76 urteko gizon bat eraman zuen urak.

Goizean goizerako urak hartuta ageri ziren Landareko errugbi eta Zubipeko futbol zelaiak, baita Karabeletik Portu alderako lur eta baratzak ere. Bestalde, Hernanitik Goizuetarako bidea moztuta zegoen, batetik, Fagollagan ura errepideraino atera zelako, eta bestetik, Latxen eta Ubarreton bi lur jausi eragin zituelako urak. Eguerdiko 13:45etan itsasgora zen, eta herritarrak Urumea ibaiak emango zuen hurrengo pausuaren zain ziren, Karabel auzora begira. Uste bezala geratu zen, eta Karabel ere urak hartuta geratu zen. Ertzaintzak bi pertsona erreskatatu behar izan zituen bertan.

Lehengo urtekoa, Hernanin azken 20 urtetan gertatu den uholderik handiena izan zen.

Osiñagan uholdeek izan zuten eragina ere ez da erraz ahazteko modukoa. Altzueta, Iparragirre eta Elorrabi sagardotegietan sartu zen ura, eta Elorrabiko zubia urak eraman zuen. Hernanitik kanpo ere ezaguna egin zen errugbi taldeko jokalari batzuek grabatu zuten bideoa. Telebista kate batean baino gehiagotan erakutsi zuten Urumearen indarrak zubia nola puskatu eta eramaten zuen.



Errugbi taldeko jokalari batzuek grabatu zuten bideoa: *"Elorrabiko zubia"*.



Bestalde, Floridan, *Papelera del Norte* parean bidea moztuta geratu zen, urak hartuta. Eta industriguneetan ere, kalteak handiak izan ziren, Ibaiondo, Lastaola, Ibarluze, eta batez ere, Eziago poligonoan.

Gaua iristerako, Karabel, Portu eta Floridako 40 bat etxetatik hainbat familia atera behar izan zituen Udalak. Kiroldegian pasa behar izan zuten gaua. Karabeleko bizilagunetako batek Hernaniko Kronikari adierazi zionez *"1973az geroztik ura ez zen sekula horrenbesteraino sartu auzoko etxeetan"*.

Añarbeko paretak, urari eutsiz. Añarbeko urtegiak jakinarazi zuenez, 5.874.769 metro kubiko ur hartu zituen 08:00etatik 15:00ak bitartean. Egun osoan zehar, 10 bat milioi metro kubiko. Urari kontu egin zion urtegiak, eta horri esker, Urumea ibaiak %75 ur gutxiago jaso zuen. Hala ere, ura kolpean igo zela aipatu zuten herritar askok, eta urtegiak ura askatu ote zuen susmotan ibili ziren. Baina Añarbek ziurtatu zuen urari eutsi ziola, eta urtegia betetzear egon bazen ere, hurrengo egunetan ere ez zuela urik askatu, Urumeako urak jaitsi bitartean.



Karabel auzoa, 2011ko azaroaren 6an. Arg.: Hernaniko KRONIKA.

Uholdeak pasa, Añarbek txosten bat argitaratu zuen argitzeko nola jokatu zuen. Bertan, uholdeak zergatik gertatu ziren ere argitu zuen. Informe honen arabera, azaroan izaten diren prezipitazioek hilabete osoan 243 litro metro karratuko uzten dituzte. Baina lehengo urteko uholdeak gertatu zirenean, lau egunetan hilabete osoan erortzen den ur kantitatea baino gehiago erori zen; 4 egunetan jaso ziren 328 litro metro karratuko.

Añarbek argitaratutako txostenaren arabera, azaro osoan, normalean, metro karratuko 243 litro jasotzen dira. Lehengo urteko uholdeak gertatu zirenean, 4 egunetan metro karratuko 328 litro jaso ziren.

Azken mendeko uholdeak.

Urumea ibaiaren lehengo urteko *hazaña* ahaztu ezinik gabiltza oraindik. Baina, pasa den mendean gehiagotan atera ziren urak, Urumea ibaiaren ertzetan.

1933ko ekainaren 16an. Urte hasieran uholde benetan handiak izan ziren Holandan. Itsasmaila igo eta milaka hildako izan ziren. Londresen ere uholde haien eragina nabari zuten, eta urte hartan hasi ziren eraikitzen gaur egun urari eusteko dituzten dikeak. Euskal Herrian, eta bereziki Gipuzkoan, ekainean izan ziren uholdeak. Oria ibaiak hartutako maila, azken 60 urtetako bigarren altuena izan zen. Gipuzkoa osoan, 5 hildako eta desagertu bat izan ziren.

1953ko urriaren 14an. 24 ordutan metro karratuko 313 litro jaso ziren Arditurrin; Igeldon, gaueko 23:00ak eta 23:05ak artean, 11,2 litro jaso ziren metro karratuko. Berez, 1983an etorriko ziren uholde handietan baino euri-jasa indartsu eta larriagoa bota zuen, baina lurralde eremu zabalagoan eragin zuen; ez zen horren toki txikian hainbeste kalte izan, 83an bezala.

Urriaren 11n dagoeneko, euria ari zuen Euskal Herri osoan. Baina 14an, inolako abisurik gabe, sekulako euritea bota zuen, bereziki Gipuzkoan. Bidasoa, Oiartzun, Oria eta Urumea ibaietan eragin zuen euriteak. Ordu batzuetan, Urola ibaiak Oria ibaiaren bidea hartu zuen. Hernanin, kalteak eragin zituen uholdeak 350 hektarea eta 44 eraikinetan. Enpresa kaltetuenetako bat Floridako *Harinera Guipuzcoana S.A.* izan zen; handik gutxira desagertu zen.

Guzira, 27 hildako izan ziren Euskal Herri osoan, horietako 2 Urola ibaiak eraman zuen autobusean zihoazen hernaniarrak. Urriaren 14 hartan, arratsaldeko 18:00etan, *La Guipuzcoana*ko autobus bat abiatu zen Donostiatik Zestoara bidean. Zestoatik bi kilometro eskasera zeudela, Urolako urek autobusaren motorraren altura hartua zuten, eta autobusa ez atzera ez aurrera geratu zen. Orduko *Revista del Norte* eta *La Voz de España* egunkariek kontatutakoaren arabera, autobusa beste kotxe bateko bidaiariak laguntzeko geratu zen, eta azkenean, denak eraman zituen urak. 22 pertsona hil ziren ezbehar hartan.


1953ko urriko uholdeetan 27 pertsona hil ziren Euskal Herrian. Horietako 2 hernaniarrak ziren; Donostiatik Zestoara zihoan La Guipuzcoanako autobusean zeuden, Urola ibaiak eraman zuenean.

1960ko abenduaren 29 eta 30ean. Garai hartako *La Vanguardia Española* egunkarian jasotakoak dio, 24 ordutan etengabean egin zuela euria, eta goizeko 07:00etatik eguerdira bitartean 40 litro jaso zirela metro karratuko. Hernaniko Udal Artxiboan dauden argazkiek erakusten dute Karabel auzoa urak hartu zuela Hernanin. *La Vanguardiako* artikuluan aipatzen da baita ere, Donostiatik Hernanirako autobus zerbitzuak ibilbidea aldatu behar izan zuela, Loiola eta Martutene zeharkatu ezin zirelako. Itsasgora izan zen euri gehien egin zuen momentuan, eta Urumeako urek izugarri egin zuten gora. Hortik egun batzuetara, aipatutako egunkariak uholdeek eragindako hainbat herritako argazkiak argitaratu zituen.



Karabelgo irudiak, 1960ko abenduaren 30ean. Arg.: Hernaniko Udal Artxiboa.

"He aquí un aspecto del valle de Hernani completamente inundado por las aguas".


LA VANGUARDIA
ESPAÑOLA
BARCELONA
Martes 3 de enero de 1961
FUNDADORES: DON CARLOS Y DON BARTOLOMÉ GOD6
Año LXXVII - Número 29 417
PUEBLOS DEL NORTE DE ESPAÑA ANEGADOS Y TIERRAS QUE PARECEN LAGOS
He aquí un aspecto del valle de Hernani completamente inundado por las aguas.
(Fotos Cifra y Europe Press)

1981eko urtarrilaren 16an. Euriaren eta mendi-tontorretako elurra urtzearen ondorioz, Gipuzkoako hainbat herritan izan ziren uholdeak. *ABC* egunkariaren arabera, Urumea, Oria eta Deba ibaiek egin zuten gainezka, besteak beste. Hernanin bertan hainbat zelai geratu ziren urpean, eta Urumeako urek Martutenen, Astigarragan eta Ergobin ere egin zuten gainezka.

1983ko abuztuaren 26 eta 27an. Guztira, 70 hildako izan ziren. Euskal Herrian gogoratzen diren uholde gogorrenetakoa izan zen 83koa, bereziki, Bizkaian. Nerbioi eta Ibaizabal ibaiek jasan zuten eraginik handiena. Ondorioz, Bilbo, Aste Nagusia ospatzen ari zela, urak hartu zuen. 417 etxebizitza suntsitu ziren, eta 6.000k kalteak izan zituzten. Baina, Bizkaiaz gain, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoa ere, hondamen-eremu deklaratu zituen Espainiako Gobernuak.

Hernanin, Ereñotzu isolatuta geratu zen uren eraginez. Karabel eta Portu auzoak urak hartu zituen, eta Eziago poligonoan ere kalteak handiak izan ziren. Udalak argitaratzen duen urtekari honen 2003ko edizioan, Jose Mari Martinezek idatzitako *Hernani convive con las inundaciones* artikuluan aipatzen da, Egin egunkariaren instalazioek ere oso kalte handiak izan zituela, eta abuztuaren 27ko tirada okasio horretarako utzitako beste instalazio batzuetan egin behar izan zela.



1983ko abuztuan izandako uholdeak Karabel auzoan. Arg.: Hernaniko Udal Artxiboa



1988ko uztailean. Kasu honetan, euri jasa handienak Urola eta Deba ibaietan izan zuten eragin nabarmenena. Gipuzkoa osoan, 9 pertsona hil eta beste 7 desagertu ziren.

1997ko ekainak 1ean. Maiatzaren 30etik ekainaren 1erako goizalde hartan euri asko egin zuen, bereziki, goizeko 09:00etatik 10:00ak bitartean. Herri askotan izan ziren uholdeak, eta baita Hernanin ere. Kalteak handiak izan ziren.

2004ko urtarrilaren 24ean. Uholde hauen ondorioz aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak 2008an *Uholdeak Saihesteko Plana*. Euri asko egin zuen, eta Euskal Herriko hainbat probintziatan izan ziren uholdeak. Hernanin, Karabeleko hainbat portaletan ura sartu zen, eta Zubipeko zelaia igerileku bihurtu zen. Astigarragarako errepidea ere moztuta geratu zen.

2007ko abuztuaren 23an. Urumea ibaiak gainezka egin zuen beste behin, eta Landare erabat estalita geratu zen. Ahateak ere igerian ibili ziren errugbi zelaian. Iluntzeko 20:00etarako Zubipe ere urak hartzen hasia zen, eta Fagollagan erreka ateratzeko puntuan izan zen.



Arg.: Hernaniko KRONIKA

Uholdeak saihesteko planak.

Argi dago ibaiaren ondoan bizitzeak uholdeak gertatzeko arriskua areagotzen duela. Batez ere, urteetan zehar ibaiaren bide naturala behin eta berriro aldatu edo mugiarazi badugu. 2004ko uholdeek dezenteko kalteak eragin zituzten, eta ondorioz, Eusko Jaurlarizak *Uholdeak Saihesteko Plana* aurkeztu zuen 2008an.

Plan horretan, 18 fasetan egin beharreko moldaketak proposatu zituen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak. 18 fase horietako 7tan egin beharreko aldaketak Hernanirekin zuten zerikusia.

Besteak beste, ondorengoak proposatu zituen. Batetik, Hernanitik Ergobiko zubira ibaiak egiten duen bidea egokitzea. Era berean, Akarregin ibaiparke bat egingo litzateke, urak haziz gero ura jasoko duen eremu bat egon zedin. Gainera, trenbidearen pasabide zaharra bota egingo litzateke.

Bestalde, Karabeleko zubiaren inguruan pareta bat jarriko litzateke. Ibaiak Hernani zeharkatzeko egiten duen bidearen eskuin aldean dagoeneko badagoen pareta handituko litzateke batetik, eta ezkerraldean lurrezko beste pareta bat egingo litzateke, bestetik.

Egindako beste proposamenetako batek zioen Karabeleko zubia ordezkatzea komeni zela, eta Osiñagako eta Elorrabiko zubi kolganteak kentzea ere beharrezkoa zela.

Karabeletik Portu auzorako bidea ere, sarri geratzen da ur azpian. Horregatik, bide berria egitea proposatu zen, altuagoa, uholde arriskutik kanpo geratzeko.

Azkenik, Eziagoko pabilioi batzuk lekuz aldatzea proposatu zen, ibaiak bere eremu naturala berreskuratu ahal izateko.

Baina iritsi zen 2011ko azaroa, eta uholde handiak izan ziren berriro Hernanin. Elorrabiko zubia kendu gabe zegoen oraindik, eta Urumeak beregain hartu zuen lan hori. Gauzak horrela, urte honetako otsailean, Hernani, Astigarraga eta

Donostiako Udalek eskatu zioten URA Agentziari mugitzen hasteko. Izan ere, URA Agentziak ere aurkeztu zuen plan bat 2007an, Urumea ibaiaren inguruan uholde arriskua murrizteko.

Azkenean, 2012ko uztailean elkartu zen *Urumea ibaian uholdeen arriskua murrizteko Erakunde Arteko Batzordea*. Bertan izan ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako eta URA Agentziako ordezkariak; Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak; Donostia, Astigarraga eta Hernaniko Udaletako ordezkariak; Añarbeko Uretako ordezkariak; eta Gobernu zentralaren aldetik, Kosten Zuzendaritza. Hauekin batera, bizilagun elkarteen ordezkaritza ere bertan izan zen. Bilera horretan, presa handiena zuten neurriak zein ziren zehaztu eta horiekin hasteko konpromisoa hartu zen. Hernaniri dagokionez, Karabel auzoan egin beharreko obrei eman zitzaien lehentasuna.

Karabel berria, uholde arriskutik kanpo. Uholdeen arriskua murrizteko Eusko Jaurlaritzak eta URA Agentziak egindako planak kontuan hartu zituen ikuspegi hidraulikoa, ingurumenaren ikuspuntua, eta hirigintzaren ikuspuntua. Hala ere, 2008an zehaztutako proposamenak txiki geratu dira, eta aurten, proposamen zabalagoa egin da, eta data zehatzak jarri dira, obrei ekiteko.

Gauzak horrela, Karabeleko zubia bota eta berria egiteaz gain, eta Karabeleko iparraldean barrena doan bidearen luzera osoan zehar lezoia *egiteaz gain, beste bi neurri hartzea erabaki da.* Batetik, euri-uren sarea egokitzea, eta bestetik, ur horiei eusteko depositu bat egitea.

Zubia aldatu eta lezoia eraikitzeko lanak URA Agentziak finantzatuko ditu, guztira, 3.386.921,28 euro. Euri-sarea egokitzea eta depositua egitea berriz, Hernaniko Udalaren esku egongo da: 862.693,97 euro balioko ditu, eta obra hauek, Karabel auzoko urbanizazio planaren barruan sartu ditu Udalak. Urbanizazio plan honen barruan egingo dira etxebizitza berriak, errotonda, errepide berria, aparkalekuak, parkea... eta uholdeen aurkako obra hauek guztiak. Egingo diren etxebizitzek lagunduko dute obra hau finantzatzen. Urte honetan bertan lanean hastea aurreikusi zuten.

Karabeleko urbanizazio planaren barruan sartzen dira etxebizitza berriak, errepidea, errotonda, parkea... eta uholdeei aurre egiteko obrak: zubi berria, lezoia, euri-sarearen egokitzapena eta ur-despositua.

Uholde arrisku handia, Gipuzkoako 46 herritan.

Uholde arriskua murrizteko planak egiten ari dira, ez soilik Urumea ibaiari dagokionez, baizik eta, baita beste ibai batzuei dagokienez ere. Izan ere, Europako 2007ko uholde arriskuak neurtu eta kudeatzeko arautegiak (903/2012 ERREGE-DEKRETUAN jasoa), lan horiek guztiak egiteko epeak jarri ditu. Batetik, uholde arriskua duten eremuak identifikatu behar dira. Bestetik, arrisku-mapak egin behar dira. Mapa honetan, arrisku mailaren arabera banatuko dira eremuak (altua, ertaina eta baxua). Era berean, uholdeek eragin ditzaketen kalteen neurketa ere jaso beharko da bertan. Dokumentu hau, 2013ko abenduaren 22rako prest izan behar da. Ondoren, uholde arrisku horiek kudeatzeko eta murrizteko planak osatu behar dira. Azkenik, 2015eko abenduaren 22rako txosten bat aurkeztu beharko da, argituz aurrez prestatutako planek bermatzen ote duten uholde arriskuen murrizketa.

Hernanin dagoeneko, neurri batzuk hartzen hasiak dira. Izan ere, urte hasieran aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak txosten bat, eta bertan zehazten zen zein ziren Kantauri isurialdeko ekialdean zeuden uholde arrisku handiko eremuak. Euskal Autonomia Erkideagoan 56 eremu zehazten ziren txostenean; Gipuzkoan, 35. Gipuzkoako eremu horretan, 46 herri kokatzen dira (Gipuzkoan, guztira, 88 herri daude). Deba, Urola, Oria eta Urumea ibai ertzetan dauden herriak dira, arrisku eremu horietan kokatzen direnak, besteak beste, Hernani.

Gipuzkoako 46 herri daude uholde arrisku handiko eremuan; tartean, Hernani.

Empar Pineda, Feminista eta Hernaniar Bikaina

• *Eñaut Agirre*

Empar Pineda (Hernani, 1944) feminista hernaniarrak jaso du aurten *Hernaniar Bikaina* saria, Xalaparta Elkarteak eskainia. Pinedak aspaldi alde egin zuen Hernanitik (nahiz ahal duen guztietan etorri), eta gaur egun Madrilen bizi da. Emakumeen eskubideen alde egindako lanagatik hainbat eta hainbat sari jaso ditu (Zilarrezko *Gehitu Saria* ere 2012an jaso du), bizi guztia eskaini diolako Pinedak lan horri.



Arg.: Hernaniko KRONIKA

Empar Pineda *Hernaniar Bikaina* izendatu zuen Xalaparta Elkarteak. Egun horretan bertan zeuk esana da, seinale ona dela zeuri sari bat ematea elkarte gastronomiko batek. Ze esan nahi du horrek?
Alde batetik, elkarte gastronomikoak orain arte nabarmendu izan dira jarrera baztertzailea izan dutelako emakumeekiko. Sartzen utzi ez; sozio izaten utzi ez. Beraz, batzarrean erabaki badute niri sari hori ematea, seinale oso ona da. Galdu egin du garai bateko kutsu misogino hura: emakumeei eskubiderik aitortzen ez zitzaiena.

Beraz, poza eman zizun sariak?
Sekulakoa. Orduan ere esan nuen... neure herrian halako errekonozimendu bat egitea da niretzat inoiz egin ahal izan didaten oparirik onena. Poz handiena honek eman dit, jaso ditudan sari guztien artean: hemengo eta kanpoko instituzioak... Arrunt hunkitua egon nintzen... esan nien lehendakariari eta Mikeli... bizitzan egin didaten aipamen garrantzitsuena izan zela.

«Esan nien lehendakariari eta Mikeli... neure herrian halako errekonozimendu bat egitea da niretzat inoiz egin ahal izan didaten oparirik onena»

Madrilen bizi zara aspaldi. Ze tratu duzu Hernanirekin? Asko etortzen al zara Hernanira?
Ahal dudan guztietan; ahal dudan guzti-guztietan hor izaten naiz. A, eta hutsik egin gabe, eguberrietan eta udaran. Hernani da, ni jaio nintzen herria, eta 20 urtera arte bizitu nintzena: nire lurra. Zentzu berezi-berezia dauka Hernanik nire bizitzan; ez da pasaeran sartu gabe uzten dudan herri bat, edo noizbehinka gogoratzen dudana. Bihotzean daramakit.

Asko aldatu al da Hernani?
Arrunt. Beldurgarri. Etortzen naizenero obra berriren bat baduzue! Beno, eta gu txikiak ginen garaitik? Urumea kalean barrena korrika ibiltzen ginen garaitik, edo Kale Nagusia, Plaza... Horrez gain, asko handitu da herria. Auzo berriak egin dituzte, eta jendea ere aldatu egin da. Orain ez ditut asko ezagutzen.

Badakigu gustuko zenuela txapatan eta kaniketan ibiltzea...
Hori da, bai! Han, amaren harategi aurrean, Urumea kalean! Pentsa zenbateraino...! Harategiko bezeroek amari esaten zioten: «*Zuen alaba hori beti ibiltzen da ipurdia burua baino gorago duela*». Noski, beti burua makurtuta, txapatan, kanikatan...

Eta ez zen ba ohizkoena izango? Gaur egun normala da neska-mutilak elkarrekin jolasean aritzea...
Orduan ez... Nola ba! Ni mutilekin ibiltzen nintzen ia beti. Banuen neska-koadrila ere baina jokoak askoz *sosoagoak* egiten zitzaizkidan; mutilenak berriz, mugituagoak, bromarako hobeak. Eta gainera ni nola nintzen *marimandona* xamarra... beti edukitzen nituen xuxen!

Eta hori normal hartzen al zuten hernaniarrek? Arazorik izan al zenuen inoiz?
Erabateko normalidadean bizi genuen hura. Ez dut inoiz arazorik izan pixka bat *originalagoa* edo *partikularragoa* izateagatik; garai hura izanagatik ere.

Garai hartan ze politika egiten zen gizon eta emakumeen arteko oreka edo berdintasunari begira? Frankismo garaiari buruz ari gara, bete betean...
Bai. Ni 1944an jaio nintzen. Hurrengo urtean bukatu zen Bigarren Mundu Gerra. Alde horretatik, negargarria zen zein egoeratan zegoen gizon eta emakumeen berdintasuna. Emakumeei erakusten zitzaien beraien bizitzak eta dignitateak gutxiago balio zuela gizonezkoenak baino. Bazen liburu bat, *Liburu Berdea*, Frankismoak zabaltzen zuena eskoletan, ikasleek espiritu nazionala ondo ikasi zezaten. Liburu horretan ikusi egin behar da, emakumeak nola uzten dituen! Lotsa ematen du, eta amorrua! Benetan.

Orduan, emakumearen lana zen etxean egotea, eta etxeko lanak egitea. Eta gogorra zen lan hura eh! Orduan ez zegoen labadorarik, eta denek Leokako labaderoan garbitzen zuten arropa guztia. Neronek ikusten nituen etxeko leihotik, emakume haiek, eskuak urratzen.

Gaur egun zail egingo litzaiguke ikustea, eta imajinatzea, garai hartan emakume izateak zer suposatzen zuen. Adibiderik jarriko al zeniguke?
Orain ezinezkoa da hura imajinatzea. Begira, garai hartan emakume batek ezin zuen lan kontratu bat egin gizonaren baimenik gabe. Gizonak eman behar zion baimena emakumeari lan hura egiteko, eta gehiago esango dizut: gizonak kobratu zezakeen emakumearen soldata.

1975ean Nazio Batuek deklaratu zuten Nazioarteko Emakume Langilearen Eguna. Eta Espainiak fatxada aldatu behar zuen, bestela ezinezkoa zen Nazio Batuen foro batean parte hartzea. Eta egin zuen, eta beno pixka bat hobera egin genuen.

Emakumeak ezin zuen ezer erabaki bere kaxa. Senarraren baimena behar zuen pasaportea ateratzeko, kontu zenbaki berri bat irekitzeko... Ezin zuen ikasi ere egin, zenbait karrera ezin zituen egin: adibidez, juez. Ezin zuen emakume batek juez izan. Medizinan bat edo beste sartzen ziren, baina oso-oso gutxi. Galbahe asko pasa behar izaten ziren.

Esan liteke, beraz, aurrerapen handiak egin direla. Eta neurri handi batean hori mugimendu feministari eskerrak izan dela?
Frankismoa bukatu zenean, dena zegoen egiteko. Alegia, mugimendu feministan genbiltzanok sekulako lana geneukan aurrean, gauzarik begi-bistakoenak ere ez geneuzkalako. Adibidez, emakumeek ez geneukan sexualitaterik; ez zen kontuan hartzen. Umeak egitea zen gure lana; orduan esaten zen bezala, «*gizonari umeak ekartzea*» zen gure lana. Eta beno, eta abentura txikiren bat izanez gero edo... Bueno! Gizonezkoek bai, bazuten sexualitatea, bazuten grina eta gogoa. Emakumeek ez. Gure lana zen etxean egotea, eta gizonezkoa etxean gustura edukitzea. Hor bukatzen zen gure sexualitatea. Hasierako gure kontsigna batek hala zion: «*¡Madrid la nuit, también me gusta a mí!*».

Iraultza bat izango zen ba hura! Nola gogoratzen duzu?
Alde batetik sekulako poza sentitzen dut garai hartaz gogoratzean. Hainbeste gauza puskatu genituen. Ba al dakizu borrokarako ze gogo geneukan? Hori zen sentimendua: «*Ez gara geldituko! Ez gara geldituko!*». Borroka handia egin genuen. Pentsa ezazu, borroka ez zela lantoki batean nagusiaren kontra egitea... ez, borroka etxean hasten zen! Gizonezkoek ez zioten hola eta hola uko egin nahi beren pribilegioei. Horregatik zer ikusi handia izan zuen emakumeak talde feministetan biltzeak. Ez delako gauza bera ezezagun baten kontra borrokatzea edo zure jendearen kontra aritzea.

«Pentsa ezazu, orain 30 urte emakumearen borroka ez zen soilik lantoki batean nagusiaren kontra egitea... ez, borroka etxean hasten zen!»

Ba al zen alderik ezkerreko eta eskuineko gizonezkoen artean?
Bazen aldea, baina oso txikia. Ohiturak aldatzea oso zaila izaten da, eta dena oso normaltzat jotzen zen garai hartan.

Dena borrokatu behar izan zenutela...
Dena! Etxetik hasita.

Eta, ez al zaizu iruditzen feminismoak zentzu negatiboa hartu duela zenbait ingurutan edo zenbait jenderentzat?
Hori hasieratik da horrela. 'Feminismo' hitza edo 'feminista' hitza asko zigortu izan dute hasiera-hasieratik. Guk eskatzen genuena ez zen batere erosoa jende batentzat, eta batzuk horretaraxe jarri ziren, guri izen txarra jartzera. Hainbat kontzeptu itsusi lotu nahi izan ziren feminismo hitzarekin... baina gauza bera egin zieten lehendabiziko feministei, alegia, sufragistei. Sufragistak ziren emakume batzuk, emakumeen boto eskubidea eskatzen zutenak. Ba sufragista hitz hori oso modu negatiboan erabili izan zen, izen txarra eman nahian. Eta gero, guri gauza bera egin ziguten feminismo hitzarekin. Eta gaur egun ere horretan saiatzen da jende bat, baina gehiago ari zaie kostatzen. Gaur egun izen hobea dauka feminismoak eta horren adibide da

lehen esan duguna... alegia, elkarte gastronomiko batek pentsatu duela emakume feminista bati saria eman behar diola.


Feminismoak beste borroka bat ere egin du sexu orientazio librearen alde. Alegia, bakoitzak nahi duena maitatzeko eskubidea daukala.

Liberazio sexualari ordu asko dedikatu dizkiot nik feminista moduan. Pertsonak izaki sexualak gara, gizon zein emakume. Gustatu egiten zaigu sexualitatea. Horrez gain, onartu behar dugu, ez garela denok heterosexualak. Ez daukagula zer izanik, behintzat. Ni bezala, pertsona askori gustatzen zaizkigu geure sexu bereko pertsonak, eta hori erabat normala da. Zergatik gustatzen zaizkigun sexu berekoak? Hainbat arrazoi izan litezke: edukazioa edo beste hainbat faktore izan litezke, baina ez dago esaterik zergati jakin bat. Alegia, alde horretatik ere pertsona hain da aberatsa... dibertsitate sexuala ere hala bizi beharko genuke, aberastasun bezala. Eta onartu dezagun, eta borroka dezagun, aberastasun horren alde.

«Alde horretatik ere pertsona hain da aberatsa... dibertsitate sexuala ere hala bizi beharko genuke, aberastasun bezala».

Zu zeu izan zinen lehendabizikoa lesbiana zela telebistan aitortu zuena... nola hartu zuen hori jendeak?

Oso kuriosoa izan zen. Garai hartan, 1980ko hamarkada hasieran, oso jende gutxi zegoen prest telebistan ateratzeko. Horregatik, Bartzelonako lagun bat, Jordi Petit eta biak ateratzen ginen telebistan (elkarri adarra jotzen genion: «*pareja de hecho* garela ematen du»; izan ere, beti biak ateratzen ginen). Eta lehendabiziko aldian sekulako eztabaida izan genuen, alde batetik, Partidu Karlistako kide batekin; irakaslea zen Etikako Unibertsitatean, eta bueno, gutxienez errespetuzko gizona zen. Eta ez beste psikiatra hura! Zer zen hura! Kobazulotik atera berria ematen zuen. Ordu eta gehiago pasa genuen eztabaida batean, haien kontra, Jordi Petit gay-en izenean eta ni lesbianen izenean.



Arg.: ARGIA Astekaria

Eta oso bitxia izan zen ondorena. Gure amaren ahizpa txikiak, izeba Adelik, Azurmedi taberna zeukanak, hurrengo egunean entzun zuen berriketaldi bat bi emakumeren artekoa, Aristimuño okindegian:

-«Atzo ikusi al zenuen telebistako programa?»
-«Bai».
-«Ez al zenuen ezagutu hitz egin zuen neska?»
-«Ez, nola ezagutuko dut ba?»
-«Amparito neska! Iñaxi harakinaren alaba!»
-«Bai zera! Amparito? Asko hobeto ulertzen zitzaion katedratikoari baino! Amparito, bai, bai, alde egin zuen hemendik-eta, ezkonduta ote dago?»

Izeba Adelik kontatu zidan, a ze parrak! Pentsa, ordubete pasa lesbiana gisan hizketan eta horretarako.

Dibertsitate sexuala dela eta asko al dago egiteko?
Bai, oraindik bai, aitorpen aldetik batez ere. Homofonia handia da oraindik, eta horrek sekulako arriskua dauka, jende bat oso agresiboa delako. Fobia horiek baztertu egin behar dira. Hezkuntzak hor zeregin handia dauka. Asko egin da, eta asko dago egiteko. Ikastetxeetan horri buruz gehiago hitz egin beharko litzateke. Badago kontu bat, nahiko lotsagarria, estatu honetan. Bada jende bat kanpotik etorri eta hemen bizi dena, beren herrietatik ihes egin dutelako, hain zuzen arazo honegatik. Pertsona horiei babesik ez ematea lotsagarria da; berriz beren herrietara bidaltzen dituzte, eta han geratzen dira ihes egin dien haiexen esku. Herrialde batzuetan hil egiten dute arrazoi honegatik.

Feminismoaren barruan badira korronte bat baino gehiago. Zuen korronteak izena du 'Beste ahots feminista batzuk'. Zuek kritika egiten diozue feminismo korronte nagusiari.
Bai, gu hitz egitera atera ginen ez geundela ados esateko. Ez geundela ados orduan entzuten genituen ahots feministekin. Mugimendu hegemoniko edo nagusi bat ari zen zenbait mezu zabaltzen guk konpartitzen ez genituenak. Gizonezkoei botatzen zitzaien kulpa emakumeen arazo guztiena. Gainera, gizonezkoek jaso duten heziketari aipamenik ez zitzaion egiten, edo instituzioek bultzatzen duten heziketari ere ez. Alegia, ulertzen zen, gizonezkoak zirela errudunak, gaiztoak, halaxe jaio zirelako. Gizonezkoak arrisku mortala balira bezala emakumearentzako. Eta guk diogu, gizonezkoak eredu horrekin hezten direla, eta ideologia horretan, eta beraz, heziketa dela aldatu behar duguna. Eta gizonezkoek onartu behar dutela, aprobetxatu egin dutela emakumeak zapalduta egotea. Hori da erremedioa, eta ez kartzela. Denak kartzelara sartu eta kito! Ez, gu ez gaude ados horrelako mezuekin.

Prostituten egoerari buruz ere badago eztabaida feministen artean.
Bai. Prostituzioa desagerrarazi egin nahi dute feminista korronte gehienek. Eta guk diogu emakume horien eskubideak ere onartu egin behar direla. Horrekin esan nahi dugu, prostituzioa utzi nahi duenari lagundu egin behar zaiola uzten, eta segi nahi duenari onartu egin behar zaiola langile bat dela eta eskubideak dituela, beste edozein langilek bezala. Eta baldintza negargarrietan salerosian darabiltzaten emakume horiei ere lagundu beharko zaie noizbait.

«Prostituzioa utzi nahi duenari lagundu egin behar zaio uzten, eta segi nahi duenari onartu egin behar zaio langile bat dela eta eskubideak dituela, baldintza duinetan lan egiteko»

Prostituziori buruz zer dio legeak?
Arraroa da kontua. Prostituzioa alegala da, nolabait esateko. Ez da delitua prostituta izatea, baina bai hortik negozioa egitea; alegia, proxeneta izatea bada delitua.

Baina ez daukate aukerarik kontraturik egiteko.
Hori litzateke erremedioa; erremedio txukun xamar bat.

Aborto eskubidea eskatzen urte asko daramazkizu.
Nik defendatzen dut, emakume batek nahi duenean eten dezakeela haurdunaldia. Berak jakingo du zein arrazoi dituen horretarako. Alde horretatik, Justizia Ministroak Gallardón jaunak esandakoak *muturra-sartze* bat iruditzen zaizkit, emakumeen bizitzan. Hau da, emakumearen bizitza osatzen omen dela ama izandakoan. Baina zu nola ausartzen zara emakumeen bizitza bideratzera? Emakumeak bagara nor, bagara nahiko serioak eta zentzudunak erabakitzeko noiz izan nahi dugun ama eta noiz ez. Horregatik, abortuaren eskubidearen alde lanean ordu asko pasa ditugu. Orain berriz, PPk atzera bota nahi du orain bi urteko legea, PSOEk jarritakoa. Lege hura ez zen nahikoa guretzat, baina gauza batzuk egokiak eta interesgarriak bazituen. Adibidez, heziketa plan bat zekarkien, ikastetxeetan berdintasunari buruz aritzeko. Gaur egungo gazteek gai honi buruzko heziketa falta handia daukate. Atzo ia hankaz gora erori nintzen, entzun nuenean gaur egungo gazteen %36k ez duela antikon-

tzeptiborik erabiltzen sexu-harremanak dituztenetan. Pentsa hor zenbat neska gazteri tokatu zaien abortatzea, eurek hala nahi izan gabe, aurrez neurririk hartu ez dutelako.

«Emakumea bada nor, bada nahiko serioa eta zentzuduna erabakitzeko noiz izan nahi duen ama eta noiz ez. Eta noiz eten nahi duen haurdunaldia»

Madrileko Clinica Isadoran lan egin duzu urte askoan, eta besteak beste, klinika horretan abortuak egin izan dira. Eztabaida eta istilu bat baino gehiago ere izan dituzue hori dela eta. Nola bizitu duzue hori?

Orokorrean, beti dago aukeraren bat norbait pankartarekin klinika aurrean aurkitzeko, abortatzera doazen emakumeei kargu hartuz, edo kandela txikiak jarriaz fetuei... Grabeena izan zen, orain dela urte batzuk, Guardia Zibilak akusazio gogorra egin ziola klinikari: behar baino abortu gehiago egiten genituela, eta fetuak zaborretara botatzen genituela. Garai hark oraindik hotzikara jartzen dit. Ikaragarria izan zen bolada hura, baina azkenean epaitegiek gure alde egin zuten. Dena dela, emakume askok eta askok tratu hura pasa behar izan zuten. Epaitegitik pasa, edo beraien etxeetara joan eta galdezka hasi: «hemen halako eta halako bizi al da, Isadoran abortatu zuena?». Hor eragin zuten mina ez da posible ordaintzea.

Heziketa aipatu duzu lehenago. Nolakoa beharko luke heziketa horrek?

Nik uste dut ikastetxeen egin beharra dela heziketarena, baina horri lagundu behar zaio etxetik ere. Ikastetxeetan hasten dena etxean bukatu beharko litzateke, horri buruz hitz eginda, eta tabu guztiei aurre eginda. Orokorrean, gazteei erakutsi behar zaie sexualitatea ikasi egiten dela, eta hitz egin behar dela horri buruz. Alde horretatik Holanda da eredu on bat. Holandan abortua legala da, eta horrez gain heziketa on bat daukate ikastetxeetan, gai honen inguruan. Emaitza? Gero eta abortu gutxiago egin behar izaten direla.

Emakumeek oraindik %28 gutxiago kobratzen dute orokorrean. Asko dago egiteko oraindik? Feminismoaren erronkak zein lirateke etorkizunerako?

Batetik, emakumeen egoera zein den jarraitzea. Oso gertu egon behar da emakumeengandik, ikusteko ze arazo dituzten, beharrak... Informazio hori transmititu egin behar litzateke gizartera, eta gizarte osoa inplikatzen saiatu beharra dago. Emakumeek %28 gutxiago kobratzen dute, baina hori ez da soilik emakumeen arazoa. Gizonezkoena ere bada; gizarte osoarena. Sindikatuena, alderdi politikoena... Hori ezin dute utzi feministen eskutan bakarrik. Indarra eta gogoa behar da, lan gogorra daukagulako, erronkak dauzkagulako bizitzaren alor guzti-guztietan.

«Emakumeek %28 gutxiago kobratzen dute orokorrean. Hori salatzeko ardura gizarte osoarena da, ez feministena bakarrik»

Bukatzeko, erresidentzia bat irekitzeko asmotan zineten adin handiko gay, lesbiana eta transexual. Zertan da proiektu hori?

Aurrera doa. Badugu lurra, Madril ondoko herri txiki batean Rivas-en. Metroa badu, trena ere bai. Lurra adjudikatzeko konkurtsoa irabazi egin genuen, eta arkitekto talde batek presentatu digu proiektua; zoragarria portzierto. Gu txoratzen gaude, laster beste albiste bat izango duzue! Espero dut lehenbailehen izatea.

Banaiz Bagara Elkartea Hernanin

• *Banaiz Bagara Elkartea (Petra Elser)*

Banaiz Bagara elkarteak jatorri guztietako lagunentzat euskara ikasteko eta erabiltzeko talde irekiak eskaintzen ditu, batez ere ahozkotasuna eta komunikazioari zuzenduta. Hitz egiteaz gain, Euskal kantuak, dantzak eta kirolak ere praktikatzen ditugu eta herriko bizitzan parte hartzen saiatzen gara.

Hernaniko Zumitza taberna 2010eko otsailean nolabait, *Banaiz Bagara* elkartearen sehaska izan zen... mundu osoan ospea lortzeko (euskararen) abiapuntua.

Zumitzako atzeko gelan asteak eta asteak ermitañoaren egoeran egon ondoren… *Ufa, azkenean! Bi fitxaje!* Hernaniko bi kale saltzaile xelebre:



Ousseinou...



... eta Moussa (ezkerrean).

... eta poliki-poliki taldea joan da handitzen... gehitu zaizkigu Maroko, Pakistan... eta dagoeneko azpiko argazkitan ikus daitekeena, hori izan zen katalizatzailea...

Hortik aurrera, eta *Banaiz Bagara* mundura abiatu baino lehen, mundu erdia hurbildu zen Zumitzara... Peru, Kolonbia, Hernani... eta Brasil.







Marokoarrak, pakistandarrak, peruarrak, kolonbiarrak eta brasildarrak Zumitza tabernan (2010ean).

... eta *jo ta ke* landu genituen bizitzan behar-beharrezkoak diren edukiak:



"Zer hartu nahi duzu?"

Ondoren denak ikasitakoa praktikan jartzeko irrikan zeuden eta azkenean taldetxo handiena Txema tabernan bildu zen... eta beraz, *ze erremedio!* gure lehenengo orduko taldekide fidelekin mudantza egin genuen.



Talde bat Txema tabernan.

... gainera hainbat gauza gehitu ditugu gure programara:

Euskal kantu saioak





Kantu saioa Mireia Otzerinjauregi kantu irakaslearekin, eta Txema Tabernan.

Euskal dantzak





Dantza saioa Patxi Montero dantza irakaslearekin eta San Joan konpartsako kideekin.

... eta jakina, gure taldeak, perretxikoen antzera, lur ona aurkituz gero, orduan eta gehiago hazten dira. Eta horrela 2011ko udazkenean bigarren talde bat martxan jarri genuen, Biteri kultur etxean.





Biteri kultur etxeko taldeak.

Tartean, gaztetxoak ere hurbildu ziren...





2011ko udan Hernanira bizitzera etorri ziren gazteak eta umeak jolasten, amek taldean parte hartzen duten bitartean. Eta AEK Euskaltegian.

Eta noski! talde berrian ere dantza egin beharra zegoen. *Altza porru!*




2012ko udan egin zen Euskal dantza tailerra.

Gaur egun, hain gara famatuak, mundu guztiak gurekin argazkiak atera nahi dituela...



Bertso saioa, Maialen Lujanbio eta Unai Agirrerekin.

... eta disko batean ere kantu bat badugu jada, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Zazpikoloroa* diskoan ***Banaiz Bagara*** kantua.



Banaiz Bagara kantuaren grabaketa.



Zazpikoloroa, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen CDa, *Banaiz Bagara* kantuarekin



2012ko apirilean, Milagrosan Kantu Topaketa Mundiala ospatu genuen, Porrotx eta Ana Elorza kantu irakaslearekin.



Kantu horrekin (euskararen) munduko oholtzen gainean gabiltza arrakastatsu...

Lasarte-Oriako Udaberria bertso saioa: *Banaiz Bagara* kantatzen eta dantzatzen. Bakarlaria: Rosi Paiva jatorriz brasildarra den hernaniarra.

Hori bai, horretarako behar beharrezkoak ditugu entrenamendu fisikoak...



Pala tailerra (2012ko udan) Tilosetako frontoian:
adin guztietako partaideak hurbildu ziren.



2012ko Andoaingo *Kilometroak* prestatzen.




Euskarazko Topaketa Mundiala. 2012ko apirilan,
bazkaria egin genuen Txema tabernan.

... eta horrelaxe jarraituko dugu lanean, baita 2013ra begira ere!

**Gonbidatua zaude,
zatoz gure menua dastatzera
eta ikusiko duzu,
oso ondo pasatuko dugu
elkarrekin!!!**

"Erritmoa, kazetariaren..." liburuaz



Arg: Hernaniko KRONIKA

• *Jexux Izagirre Portillo*

Amodio kronikoa, lorategi botanikoan.

Kostatu egiten da sinestea ere; baina egia da, hala gertatu zen. Zin dagit. Oraindik begietan daukat zer ikusi nuen, eta, oraindik belarrietan daukat zer entzun nuen... Ni, askotan bezala, *Gure Borda* parkera joana nintzen, nire paseotxoa egitera. *Insignis* pinu ederraren azpitik pasatuta, *ginkgo biloba* zaharrarekin egin nuen topo, ohi bezala; baina, oraingoan, hostoek bazuten halako urre zaharraren kolorea. Eta, orduan, bat batean, hor ikusten dut bikote bat, ur putzuaren eskuineko aldean dagoen eserlekuan eserita, bat bestearen alboan. Esan liteke, nenufar loreak ikustearren jarri zirela txoko hartan. Bien artean izango zituzten ehun eta hirurogei urte (gutxienez), oker handirik gabe. Aitonak bazituen betaurreko handiak jantzita, botila-ipurdiaren kristalekin. Amonak ahots gora egiten zion hitz, poliki eta astiro, den-dena ulertu ziezaion. Eta, (hau ezustekoa) hona non ari zaion irakurtzen paper zuri handi bat, ozen-ozen, leun-leun: *Hernaniko KRONIKA*. "Larunbat honetan 'Temblores' rockabillya, Bodegan". Bai. Zerbait badu Kronikak.

Memoria eta erritmoa.

Memoria galtzen hasten zaigunean jaten gure buruko disko gogor hori, ez zaigu gauza handirik gelditukо (borragoma lan horren eraginez), ez bada txikitako zenbait kanta...

Orain, hori horrela delarik ere, galdera litzake ea zer garrantzi izan lezakeen erritmoak, idatzi batean.

> *Hura tantoa! Hor doa Irujo korrika txiki bat eginez sakea jotzera. Berasaluzek lau pauso aurrera, eta sotamanoz ekarri. Irujok besagainez eman. Besteak bolea luzea. Irujok bolea motz-motzean. Berasaluzek biak jo. Beste biz erantzun Irujok. Hemen dator korrika Berasaluze... altxa, eta dejada. Txapagainekoa Irujok. Gantxoa ezkerrez Berasaluzek zabalera. Irujo abiatu, eta... aulki tartetik altxa behar izan du jendeak pilotaria.*

Hemendik urte batzuetara, irakurlea ez da gogoratuko, ziur aski, ez nork egin zuen tantoa, ezta (beharbada) pilotariak zein zirenik ere. Baina, esango nuke, gauza bat bederen geldituko zaiola disko gogorrean iltzatuta: erritmoa. Alegia, erritmo bizian jokatutako tantoa zela. Bestela esanda, kazetariak trasmititu egin du erritmoaren sentsazio hori, bere idazkera dela medio.

Delibes eta Bautista Goikoetxea.

Sagardo edan erraza aise edaten da. Gauza bera gertatzen da hitz errazez osatutako testuarekin.

> *Aurten ez da izan sagarrik; lorea* ***erakutsi*** *zuen, baina eguraldiak bota egin zion.*
>
> (Bautista Goikoetxea)

Ziento bat esaldi baino gehiago badira liburuan, tankera horretakoak. Poesia usaina eta dena dute. Eta poesia beti da maila handiko hizkera: jasoa alegia. Hizkera izan daiteke, hortaz, erraza eta aldi berean jasoa. Literaturan bada idazle oparorik bi ezaugarri horiek ezkontzen saiatzen denik. Adibidez, Delibes idazle castellanoa. Hura Castillan, herriz-herri ibiliko zen hitz errazaren bila, gu perretxikotan bezala. Harentzat hitz erraza zen... ziza horia, edo ontto beltxa, edo... urre gorria.

Orain, erritmo aldetik, zalantzarik gabe, askoz ere gehiago korritzen du hitz errazak (leunagoa da-eta), eta ez hitz gogor, bihurri, eta mihia korapilatzeko besterik balio ez duten hitz horiek. Segituan igartzen da testu batean non dauden pilatuak hitz gogorrak: irakurtzen hasi, eta non katramilatzen zaren, hortxe duzu hitz gogor jendea.

Altxo eta Lizardi.

Misteriorik handienetakoa da kontalariekin gertatu ohi dena. Kontalari egokiak ez du aspertzen. Behin eta berriro entzunagatik kontakizun bera kontalari berberari, berriro entzun egingo dio hurrengo batean, adi-adi, lehengo entzule berberak. Hortaz, hizkuntza kontuetan, dena ez da mezua trasmititzea, eta informazio berria jasotzea. Kontalarien kasuan, esan dugun legez, badakigu zer kontu-zahar esango digun, eta halere kontalari hari berari entzun nahi. Entzun kontalari honi:

> *«Pagoagan egiten genituen enkarguak, eta denak zorrak genituen. 55 duro uste dut. 55 duro orduan diru asko zen! Pagatzeko dirurik ez, eta gure aitak hangoari: -Besteik ez bada, behia! Behia emango dizuegu! Eta handik hurrengo egunean behiaren bila. Eta behiaren bila* ***badatoz****, eta hain zuzen, behiak pixa odoletan egiten... Gaitza zeukana; eta hurrengo egunean behia entregatu. Eta berriz ere zorra. Ez dakit noiz pagatuko ziren. Bukaeran, seguru asko»*
>
> (Luis Marko Otxotorena, *Altxo*).

Kontalari ofizioa ondo ikasi behar da, halako kontakizuna egiteko. Gainera hor ez da esaldi luzerik. Eta horrek bizitu egiten du kontakizuna. Azken finean kontakizuna zera baita: zaldi odol-hutsa, trotean; eta ez estatua odol-hustua, hanka geldian.

Xabier Lizardi kazetariak zioen, euskarak gorroto diola esaldi luzeei. Euskarak ez dakit baina, kontalariok bai behintzat.



Italo Calvino eta Patas.


Juan Antonio Erdozia, *Patas* kuranderoak esandako pasadizoa dugu hau:

> *Behin, bat etorri zitzaidan ukendu bila, eta, handik denbora batera berriz. Eman nion ukendua ostera, eta "¿Qué me das, el de las almorranas?" esan zidan. Hemen jendeak ederki probatzen ditu gauzak!*

Halako kontalariek duten abildadeaz, ederki konturatu zen Italo Calvino bat (galdetu interneten zein den).

> *"Garai batean, kontu zaharrek erakarri baninduten, ez zen izan tradizio etnikoarekin leiala izan nahi nuelako [...], baizik eta jakin nahi nuelako zer-nolako estiloz eta egituraz kontatzen diren kontu-zaharrak; zer-nolako erritmoz, ekonomiaz eta logika errazez".*

Orain badakizue zergatik jarri dugun (liburuaren atzeko azalean) kuranderoaren pasadizoa.



Aristoteles eta Txirrita.

Esana dugu kontalariek ez dutela esaldi luzerik egiten. Bertsolariak neurtu behar izaten ditu bere hitzak, musikaren arabera. Horretan ere Txirrita maisuari entzun behar:

> *Jaungoikoaren farolak dira ilargia (e)ta e(g)uzkiaaaargitasuna bialdu zigun lehenbiziko hegaztia".*

Alegia, 36 silaba dira muga, edo neurririk luzeena, Txirritaren kasuan. Ba, kontalariak ere berdintsu jokatu ohi du. Esan nahi baita, kontalariak, muga hori baino lehen, eten bat egingo duela, edo tonua aldatu, edo dena delakoa. Entzun besterik ez dago *Altxo* eta *Patas* bezalako kontalariei. Beraz, muga hori gaindituz gero, tentuz ibili beharko du kazetariak, ez badu irakurlerik bidean galdu nahi. Kontalariok erabili ohi duten neurri kontu horretan ere ez dugu polbora asmatu. Aristoteles filosofoak zioenez, idazle batzuei gozo-gozo irakurtzen zaie; izanez ere, "neurri baten barruan antolatzen dituzte esaldiak, bertsogileek legez".

Argi dago, beraz, erritmoak ez duela zerikusirik euskalkiarekin. Izanez ere, erritmoz idaztea da, belarriari erreparatuta idaztea; edo Goizuetan dioten bezala "letxe pixkobatekin" idaztea.

Arg: Hernaniko KRONIKA


Urumeako zilegimendietako toponimiaz zenbait ohar[1], Hernanikoaz bereziki

Ihazinto Fernandorenari

• *Luis Mari Zaldua Etxabe* [2]

URUMEAKO ZILEGIMENDIAK[3] Gipuzkoako Ipar-sortaldean daude, Bizkaiko itsasotik nahiko hurbil eta Nafarroako muga-mugan. Urumea ibaia bizkarrezur duen hogeita hemezortzi kilometro koadroko esparrua, *Oindi-Aballarri-Adarramendi-Zaburu-Azketa, Leuneta-Garagartza-Euntzin, Igorin-Akola* eta *Urdaburu-Gorostegi* mendilerroek biltzen dute. Gaurko egunean, Donostia, Hernani eta Urnietako udalerrienak diren lau zatitan banatua dago eta mugakideak Andoain, Arano, Astigarraga, Berastegi, Elduain eta Errenteria dira.

Urumeako zilegimendiez mintzo bagara, bidezkoa dirudi, barruti bihurtu zen une beretik, lurralde horrek muga jakin batzuk izatea. Nahiz eta lehen erreferentzia 1379koa izan, lurraldearen norainoko zehatza nahiko berandu arte ezin daiteke jakin, 1671. urtean Donostia, Hernani eta Urnietak zilegimendiak bederatzi zatitan zatitu zituzten arte hain justu. Barrutiaren norainokoa dela eta, deigarria da inguruan ugari diren *judumahai* (dolmen) eta *jentilbaratz* (cromlech) asko esparruaren muga-mugan egotea.



Urumeako zilegimendien mugak 1671. urtean.

[1] *http://www.hernani.net/eu/zerbitzuak/147-artxiboa/856-urumeako-zilegimendietako-toponimia* URLan lan osoa eskura daiteke.

[2] Filologoa. *luismarizaldua@gmail.com.*

[3] Horrela esaten zitzaien gaztelaniaz *Montes Francos* deitutako mendiei. *Zilegia*, berriz, instituzioa zen, *Comunidad de Montes Francos* izena zuen erakundea alegia.

Neurri handi batean euskaldun dirauen eremu horrek 12. mendetik honako idatzizko informazioa baliatzeko aukera ematen du, eta hori, Gipuzkoan bederen, ez da ohiko gauza.

TOPONIMOAK izen arruntetan jatorri duten izen bereziak dira: tokiei emandako izenak beren garaian arruntak ziren osagaiez daude eginak, sortu zirenean, toki-izenak orduko hiztunentzat semantikoki gardenak zirelako.

Toponimoak osatzerakoan giza-talde bakoitzak bizi den inguruaren berezitasun geografiko eta historikoetara hobeki moldatzen diren terminoak hartu ditu lexiko arruntetik, bere corpus berezia sortuz. Alde horretatik, toponimiak gizakiaren bizimoduaren berri ematen du, hark lexikoak (bere osotasunean) eskaintzen dizkion izendapen-aukeretatik batzuk besterik ez dituelako baliatzen. Horri esker, hiztun erkidegoak egindako ingurune fisikoaren interpretazioa ezagut genezake toponimiaren bitartez.

Damurik, toki edota inguru bateko ahozko toponimia, gizatalde batek erabiltzen duen izen multzo aldakorra den heinean, ezin daiteke zehatz-mehatz eta erabat zenbatu. Gizakion mugek (oroimenak) baldintzatutako zerbait denez gero, informatzaileek euren jakinduria osoaren berri ezin digute eman, bestela esan, inongo toponimia ezin da bere osotasunean bildu, zati bat besterik ezin baita jaso. Bestetik, ahozko toponimiaren bilketa gizaki arteko zuzeneko komunikazio ekintza den neurrian, hizkuntzaz landako faktoreek ere eragina dute (berriemaile eta biltzaileen egoerak, testuinguruak eta abarrek).

*URUMEAKO ZILEGIMENDIETAKO TOPONIMIA*ren ikerketan bi aldi bereiz daitezke: ahozko tradizioaren bilketa eta toponimiaren arautzea eta argitalpena. Bakoitza noiz hasten eta noiz bukatzen den zehatz finkatzea erraza izan ez arren, badaude denbora-erreferentzia adierazgarriak.

Ahozko toponimiaren bilketa laurogeiko hamarkadan burutu zen batez ere. Lehenbiziko urratsa Aranzadi Zientzia Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat 1982. urtean hasitako toponimia inbentarioa izan zen. Elkarte berak 1989. urtean Donostia, Urnieta eta Hernaniko Udalentzat egindako lanak dira bigarren erreferentzia. Azterketon bi tasun garrantzitsuenak fonologia alorreko lanak izatea eta izenek kokapen kartografiko egokia izatea dira.

Hernaniko kasuan, toponimiaren arautzea eta argitalpena ezaugarritzat duen aldiaren hasiera 1992. urtea da. Urumeako zilegimendien zati bateko toponimia arautua dakarren bigarren mapa urte horretan plazaratu zen. Harrezkero, Urumeako zilegimendietako toponimia biltzen duten lan gehiago argitaratu dira, mapak gehienetan. Lan horien ezaugarri nagusiak arautze-irizpide bateratuak ez jarraitzea eta izenek kokapen kartografiko zuzena izatea dira.

TOPONIMIA BILDUMA (CORPUSA) osatu, egituratu eta erabilgarri bihurtzeko nahitaezkoa da artxiboetatik eta berriemaileengandik lortutako informazioa izenburu bakarraren azpian gorde eta ematea. Izenburu hori irizpide batzuk aintzat hartuz erabakitzen da eta eginkizunari *arautzea* izena ematen zaio usuenik[4].

Irizpideak, arau orokorrak edo salbuespenak izan daitezke. Esate baterako, izen generikoak ematerakoan euskaraz orokorrak diren zenbait arau aintzat hartzen diren arren (<h> grafema bai; bustidura ez), izen espezifikoei dagokienean ez dute arau horiek balio, salbuespenak egiten direlako (ebakitzen ez denean <h> grafema ez; bustidura bai). Bitariko jokabideak egotearen arrazoietariko bat toponimoak, berez, izen arrunten eta berezien artean egotean datza, salbuespenak, azken batean, zalantzak konpontzeko bidea baizik ez direlako.

Hurrengo atalari heldu aurretik, bihoaz bi hitz onomastika lanetan une oro gogoan izan beharreko mugei buruz. Ahozkotasuna, edo nahiago bada hizkuntza bizia, idatzizko iturrietan zenbateraino atxiki den zehazkiro jakiteko zailtasuna da gainditu beharreko lehenengo oz-

[4] *Arautzea* eta *normalizatzea* sinonimotzat hartu dira frankotan, nahiz eta beste arlo batzuetan egiten den bereizketa hemen ere egin daitekeen: arauak ematea (arautzea) / arautu toponimoen erabilpen gizartezko egokia (normalizatzea).

topoa, eta nagusia ere bai. Izan ere, gauza ezaguna da idatzizko toponimia gordetzailea dela, eta, ondorioz, garai jakin batean idazkietan zerbait aurkitzeak ez duela ordukoa dela bermatzen; bestela esan, toponimo bat edo haren aldaketen bat izkribuetan agertzeak ez du esan nahi garai horretan, ezinbestean, bizirik zegoela. Nolanahi ere, ukaezina da idatzizko iturriek toponimiaren bilakabidea ulertzen laguntzen dutela eta izen-multzoa kokatzen den lurraldeko hizkuntzaren ibilbidearen ezagutza errazten dutela, neurri batean behintzat.

GIPUZKOAKO TOPONIMIA dakarren idazkun bakarra ezagutzen da 11. gizaldian (1025), baina, zorionez, 12. mendean Probintziako sortaldea mintzagai duen agiri sorta polita dago. Horri esker, zenbait herri-izen eta makrotoponimoz gainera (*HERNANI*), toponimo txiki frankoren laurogei lekukotasun zerrenda daitezke, gehienak saroi-izenak. Zortzi eskuizkribu dira guztira, 1101, 1105, 1141, 1177, 1178, 1186-1189, 1186-1193 eta 1197 urteetako datak dituztenak; argitu beharra dago, zernahi gisaz, batzuk 13. gizaldian egindako kopiak direla. Zenbait toki-izen bi edo hiru aldiz azaltzen dira eta esan gabe doa formak finkatzeko oso lagungarri dela hori. Bestalde, izen gehienen mostra berriagoak eskuratu ahal izan ditugu.


Urumeako zilegimendietako (eta Hernaniko) toponimiaren lehen frogak dira idazkun multzo horretan daudenak. Gure esparruko hamazazpi toponimo zenbatu daitezke eta gainerakoak, gehienbatean, Orio-Igeldokoak edota Aralarkoak dira. Hitz bitan, Gipuzkoako sortaldean daude ia guztiak, guztiak ez esateagatik, eta gure eremukoak ez direnak ere handik arras gertu kokatzen dira maizenik. Idazki gehienek kalitate oneko toponimia biltzen dute eta, bi testutan izan ezik, irudi du erratu gutxi daudela; gainera, bi salbuespenak ez dira garrantzitsuak izen kopuruaren aldetik.

Aurreneko idazkiak 1101. urteko data du eta azkenekoak, berriz, 1197 ingurukoa. Zernahi gisaz, eta lehen esan dugun bezala, bat baino gehiago faltsifikazioak direnez gero, idazkietan bertan datu hori ematen bada ere, egiazko data sarritan dokumentuan adierazten dena baino beranduagokoa dela ez da ahantzi behar; hori bai, 11. eta 12. gizaldietako gertaerei buruz hitz egiten digute beti, mende bat geroago idatziak izan arren. Dokumentuok elizgizonek idatzi zituzten maizenik, agintari batek (erregek,...) halako eta halako jabetza Elizari eman zizkiola frogatzeko asmoz.

Testu gehienak Iruñeko katedraleko *Liburu Biribila* deritzon bildumakoak dira, 829. urtetik 1243ra doan epea harrapatzen duenekoak. Dokumentu naroena egiazki 1178 urte aldera jazotako donazio baten kopia da, 1141-1142an argitu zela uste izan den arren. Berrogeita zazpi toponimo aipatzen dira, eta horietatik berrogeita bat saroi-izenak dira; haietatik hamazazpi gure esparruan daude eta bik ez beste guztiek bizirik diraute. Hauek dira han dauden leku-izenak: *Arainiuarr, Lastaola, Legarralde, Zuloeta, Ammunola, Mentauio, Anziz, Gierala, Muez, Macurssola, Guaragarze, Urtarzando, Izarrlegui, Apparren* eta *Eualibia*. Bide batez, diogun, saroiez gainera, *Hurumea* potamonimoa ere lekukotzen dela 1178ko izkribu horretan.

URUMEAKO ZILEGIMENDIETAKO TOPONIMIA aberatsa da. Joritasun hori erliebea menditsua izatearekin eta antzinatik gizakia han egotearekin dago lotua. Adibidea jarriko dugu, diogunaren lekuko: Nafarroako mendialdean dagoen toponimo kopuru bertsua dago, hau da, kilometro koadroko hemezortzi toponimo oinarrizko edo izenburu nagusi daude, gutxienera jota, Urumeako zilegimendietan (676 guztira). Are gehiago: izenburu nagusien eratorriak, forma berak elementu ezberdinak izendatzen dituen kasuak eta iharturik dauden izenak aintzat hartuz gero, orotara, berrogeita bederatzi toponimo aurkitu ditugu batez beste kilometro koadroko aztergai izan dugun lurraldean (1.855 guztira).

Urumeako zilegimendiak, eta ondoko lurraldea oro har, asko aldatu dira aurreko bi gizaldietan, joan deneko bost hamarkadotan bereziki. Espero izatekoa zenez, alor gehienetan (biztanlerian, ekonomian, paisaian,...) larria izan den aldakuntzak eragin sakona izan du toponimian, izenen erabileran eta transmisioan batez ere. Izan ere, gauza ezaguna da toponimoek errealitate bati lotuta irauten dutela eta hura birmoldatzen edo desagertzen denean toki-izenak galdu edo ihartu egiten direla usuenik.



Urumeako zilegimendietako toponimoak 1178. urteko idazkunean.

Urumeako zilegimendiek ez dute izaera bereziturik gaur egun. Zilegi ezaugarria nahiz lurralde batasuna galdu zuten behinola eta hiru udalerrirenak diren lau zatitan daude banatuak. Esan bezala, biztanleria, ekonomia eta paisaia ez dira garai batekoak eta, erreka ondoko guneak alde batera utziz gero, iraganean bizitzaz gainezka egiten zuen ingurua hustuta dago ia erabat.

Donostialdean oro har, eta Urumeako zilegimendietan bereziki, egondako mudantzen ondorioetako bat ahozko tradizioaren gainbehera izan da. Administrazio-izaera, biztanleria, ekonomia eta paisaia alorrean duela bi gizaldi hasitako aldaketa nabarmenki areagotzen joan da *azken bost* hamarkadotan. 1959. urtea erreferentzia garrantzitsua da hori guztia ulertzeko, antzinako Urumeako zilegitik zirauen azken hondarra (Urnietakoa) orduan desegin eta saldu baitzen. Hain justu, Donostialdeko industriaren eta biztanleriaren azken garapen-aldia ere orduan hasi zen. Horrenbestez, 20. mendeko hirurogeiko hamarkadaren hasiera har daiteke ahozko tradizioaren gainbeheraren zedarritzat.

Egun, aztertu ditugun mendietan dabiltzan pertsona gehienak ez dira bertakoak, Donostialdeko hiriguneetakoak baizik. Bisitariek, eta dauden biztanle gehienek, ez dute iraganean bertakoek eta ingurukoek zilegimendiekin zuten lotura estua, kanpoan bizi edo lan egiten dutelako, eta ez dutelako zilegimendien premiarik aurrera ateratzeko. Laburki esan, bide eta gailur ezagun batzuk landara, gaurko bisitariek ez dute lurraldea garai bateko biztanleek bezain sakonki ezagutzen eta, jakina, horrek eragina du toponimiaren erabileran eta transmisioan: Urumeako zilegimendietan ibiltzen direnek, oro har, ez dute hango toponimia ezagutzen, gailur eta jatetxe gutxi batzuen izenak izan ezik. Elkarrizketaturiko 73 berriemaileei, berriz, 3.000 aipamen baino gehiago jaso dizkiegu, hau da, bakoitzak, batez beste, 42 lekukotasun ekarri ditu. Gainera, 50 toponimo baino gehiago ahotan hartzen dituzten informatzaileak ez dira gutxi, eta badira 100 edo 200 ezagutzen dituzten lekukoak.

Urumeako zilegimendietako gaurko bisitariek toki-izenak ez dituzte, garai batean bezala, hitzetik hortzera baliatzen, baliatzekotan, kasuan-kasuan, idatzizko iturrietatik eta, batez ere, mapetatik eta mendian dauden seinaleetatik hartzen dituztelako. Horrez gainera, ibiltariek (euskaldunak direnean) euskara hirikoa eta toponimia arautua darabilte. Hori dela medio, neurri batean, toponimia gehiena ihartua dagoela esan daiteke; toponimoak ez dira sortu ziren tokiko hizkeran erabiltzen eta, hala, ahozko tradiziotik kanpo, nekez biziberri daitezke.

Izen askoren erabilpena ez ezen, toponimiaren transmisioa ere nabarmen ahuldu da azken hamarkadotan, esan moduan, ahozko erabilpenik ez dagoelako ia. Izenak ez dira belarriz ikasten, begiz baizik, ahozko tradizioa etenda dagoelako (leku-izen gehienak idazkietan baizik ez daude gordeta). Bizirik dirauten ahozko tradizioaren gordailuek toponimiaren zatia bakarrik


ezagutzen dute, eta horrela aitortu ohi dute; gaurko iturrien erabiltzaileek, ordea, hala nahi izanez gero, edozein toponimo erabil dezakete, izen asko daudelako bilduak mapetan eta erraz eskura ditzaketelako.

Laburbilduz, ahozko tradizioa etenda dago eta toponimia gero eta gutxiago baliatzen da. Berriemaileak ere pixkanaka-pixkanaka joan zaizkigu. Zorionez, laurogeiko hamarkadan bizirik zirauen ahozko toponimia gehiena bildua dago, eta mapetan egoki kokatua. Horrez gainera, toponimo asko liburu eta mapetan argitaratuta daude. Hori guztia horrela delarik, Urumeako zilegimendietako (Hernaniko zati handi bateko) toponimiaren iraupena bermatuta dagoela esan daiteke. Besterik da etorkizunean egingo duen ibilbidea, hau da, ondarea berreskuratuko den ala ez, gizarteratuko den ala ez. Izan ere, ez da ahaztu behar toponimoak gizakien arteko adostasunak direla, izaki geografiko jakin batzuei laburzki men egiteko, eta, ondorioz, gizartea aldatu edo desagertzen denean toki-izenak galdu egiten direla, sortu zituen taldeari lotuta irauten dutelako. Toponimo nagusiak, mendi eta erreka garrantzitsuen izenak (OINDI, URUMEA...) giza-talde batek baino gehiagok ezagutzen eta erabiltzen dituzte eta, horregatik, etorkizun hurbilean, oro har, izen (nagusi) horien iraupen eta normalizazioan ez da aparteko zailtasunik aurreikusten. Besterik da, adibidez, "izen zientifikoen" (megalitoen izenen) auzia. Esparru horretan zailago ikusten ditugu gauzak, nahiz eta, gure iritziz, multzo horren normalizazioa hain nekeza ez izan. Azkenik, toponimia txikia dago. Sail horretako izenak talde xumeek erabilitzen dituzte eta, esan dugunez, aztergai izan ditugun mendi eta lurrak hutsik daude egun, han bizi edo lan egiten duen jende gutxi dagoelako, hitz bitan, hango gizartea desegituratua dagoelako. Hori dela eta, bildu ditugun izen txikiek irautea (eta beste batzuk sortzea) zaila izango da, eta egungo egoerari erreparatzea baino ez dago horretaz jabetzeko: dagoeneko iharturik ez daudenak ihartzeko zorian daude.

*URUMEAKO ZILEGIMENDIETAKO TOPONIMIA*n ingurune fisikoaren eta giza-jardueraren berri ematen duten leku-izenek pisu handia dute; orografia menditsua eta urtsua duen paisaia gizakitua marrazten dute. Hain zuzen, hidrografia arloko izen mordoa dago, hau da, errekek eta iturriek aparteko garrantzia dute. Landaretzarekin lotutako izenek duten hedadura ezin da gutxietsi, baina orografiarekin, hidrografiarekin edota gizakiaren ekintzekin zerikusia duten toponimoak gehiago dira.

Izen elkartuen arloan garbi ikusten da esaten ari garena: espezifiko elkartuen aurreneko nahiz bigarren osagaitako (ANGELUITURRI / ITURRIEDER) topatu ditugun hogeita bost terminoek inguru gizakitua, menditsua, urez ongi hornitua eta landaretza joria duena adierazten dute (*baso, bide, elorri, erreka, etxe, gurutze, haitz, harri, ibar, iturri, larre, lepo, lur, mendi, muino, munto, osin, sagasti, saroi, soro, zabal, zelai, zoko, zubi, zulo*).

Toponimoen osagaitako erabili diren izen eta izenondoen esanahi, jatorri eta pisua zehaztea axolazkoa bada, esanahi-esparru ezberdinen antolaketa linguistikoa ezagutzea ez da garrantzia gutxiagoko auzia. Koloreak, esaterako, antolamendu



Ojangurenen argazkia, 1958. urtea.
(www.guregipuzkoa.net)

linguistikoaren ondorioa dira, errealitatearen klasifikazio zehatzaren emaitza baino gehiago. Urumeako zilegimendietako toponimian *beltz, gorri, txuri / zuri* eta *urdin* koloreak aurkitu ditugu. Alabaina, ez dago kolore horiek guztiak hartu dituen erro edo oinarririk; alde horretatik emankorrena *har(ri)* da (ARRITXURI[ETA], ARGORRI, ARRIURDIN[ETA]) eta kolore bat baino gehiago hartu duen beste izena *erreka* (ERREKABELTZ / ERREKAGORRI).

Erreka-rekin jarraituz, derragun, erakuskari gehien dituen izena izateaz gainera, bost izenondorekin uztartuta aurkitu dugula (ERREKAGAIXTO, ERREKALEGOR, ERREKAUNDI, ERREKATXIKI eta ERREKAZAR). Hitzak hizpidea ekarrita, izenondo gehien hartu dituena beste hidronimo bat da, *iturri* hain justu (ITURGOXO, ITURRIGOXO, ITURPIÑA, ITURRIANDI, ITURRIEDER, ITURRIOTZ, ITURRIPOTXOLO, ITURRIZAR). *Pagadi* multzokaria oinarritako duena ere izen-multzo garrantzitsua da (PAGADIAUNDI, PAGADIMOTZ, PAGADITXIKI, PAGADIZAR, PAGALUZE).

AZTER DITZAGUN, astiroago, esanguratsuak diren zenbait toki-izen. HERNANI makrotoponimoak, adibidez, 12. gizaldian hasten den idatzizko ibilbide luzea du. Xehetasunetan sartuz gero, lehenbiziko lekukoa 1101. urtekoa da (*Ernani*) eta bigarrena 1105koa (*Ernania*). 12. mendeko gainerako bi mostrak, *Ernani* (1186-1189) zein *Hernani* (1186-1193) dira eta ohar bedi azken horretan *H* dagoela hasieran. Hurrengo erreferentziak 15. mendekoak dira (*Ernani*, 1427; *Hernani*, 1467) eta handik aurrera *Hernani* nagusitzen da ia erabat idatzizko tradizioan. Zati generikoak dituzten formen kasuan grafia aldatu egiten da zertxobait eta, adibidez, 18. mendean *Ernanibasoa* (1739) eta *Ernanibaso* (1797-1833) kausitu ditugu, lehen erakuskaria *Hernanibasoa* (1712) izan arren, hots, usaian hasieran *H*-rekin idatzirik egon arren. Modu berean, berriemaile guztiek *Ernani* ([érnanì], K.) darabilte. *Ern-* erroak *Ernio* toponimoaren aurreneko elementuarekin duke zerikusia eta baliteke *-ani* bukaera *Altzania* (*Altzani*) eta *Bidania* (*Bidani*) toponimoen bigarren osagaiarekin lotua egotea, baina horien kasuan ere nondik heldu den ez dago argi. Izan ere, *Hernani, Altzania* eta *Bidania* toponimoen bukaerak latinarekin zerikusia duela ez dirudi eta, ildo horretan, aintzat har ez dagoela *-ani* > *-ain* urratsaren zantzurik. Hain zuzen, Caro Barojaren irudiko, *-ani* bukarea duten izenak latinezko genitibo singularraren gainean eraiki direla, *-anus*-en gainean alegia, eta Berako ikertzailea *-anum* > *-ain* zein (*-anum* >) *-ain* > *-in* bilakaerez mintzo da. Alabaina, Mitxelenak *-ani* > *-ain* urratsa hobesten du, *-anu* > *-ain*-en ordez, eta Irigoienen aburuz, *-ain*-ek antroponimia latindarreko *-ano* (< *-anu*) formaren *-ani* bikian du jatorria. Salaberri, azkenik, *-ani* > *-ain* bilakabidearekin bat dator, bide horrek, behin baino gehiagotan, arazoak aurkezten baditu ere. Nolanahi ere den, atentzioa ematen du HERNANI makrotoponimoaren amaieran 12. gizaldiaz geroztik gaur arte aldaketarik ez egotea, hots, Erdi Arotik gaur arte gailentzen den forma *(H)ernani* izatea eta ez besteren bat.

Arreta pixka bat opa diezaiogun orain adierazkorra den kasu bati, ETXASPURU baserriaren izenari hain justu. Erratua den *Echapuru* (1797-1833) alde batera utziz gero, 18. mendean *Echaspuru* forma irakurtzen da beti idazkietan (1739; 1797-1833) eta 19. mendean ere hori da gehien aurkitu duguna (1843; 1857). 20. mendean *Echespuru* azaltzen da estreinakoz (1920; 1937) eta egun *Itxaspuru* ([itxáspurù], K.) da eskuarki erabiltzen dena (*E- + txistukaria* > *I- + txistukaria*), *Itxasburu* (1989) forma bildua badago ere. Zernahi gisaz, bada aurreko guztiaren gakoa den aipamena: *Eche aizpuru* (1864). Bakarra denez gero, ezin da erabakigarritzat jo, baina bigarren osagaia *Aizpuru* deitura izan liteke, hurrenkeraren aldetik ez dagoelako oztopo gaindiezinik[5]. Hortaz, garbi dago hainbat toponimoren etimoa argitzeko jabe eta maizterren izenak kontuan hartzea lagungarri gerta litekeela.

Pototxoerreka (*pototxo + erreka*; 'lepahoriak ibiltzen diren ur-ibilgua'?). Idatzizko tradizio naroa du (*Potochoerreca*, 1730; *Potocho-erreca*, 1797-1833; *Potochoco erreca*, 1797-1833; *Potocho-*

[5] Zubietako *Aizpurua* jauretxeaz ari gara.

erreca, 1797-1833; *Potich-erreka*, 1933) eta ahozko tradizioan hiru aldaera jaso ditugu, guztiak informatzaile berak emandakoak, nahiz eta batzuk itxuraldatu samarrak egon: *Pototxaerreka* ([pótotxaérrekà]) / *Potxoserreka* ([potxóserrekà]) / *Putxuserreka* ([putxúserrekà], Okendo.). Azkuek biltzen duenez, *Martes martes* (lepahoria) delako piztiari *pototxa* esaten zaio Goizuetan eta Leitzan, *putotsa* alegia.

Akola saroiaren erreferentzia zaharrena 15. mendekoa da, hain zuzen 1467. urtekoa (*Acola*) eta ordutik sarritan ageri da idatzizko iturrietan, *Acola* formaz arrunki; izan ere, salbuespen bakarrak 1683. urteko *Alcola* eta 1780ko *Arcola* dira. Berriemaileek ere *Akola* ([ákolà]) darabilte usaian. Oinarriaren nondik norakoari datxekionez, lehenik eta behin, *Arcola* forma ikusirik (1780), *Arku*rekin lot liteke, are gehiago Aralarren abeltzaintzan erabiltzen ziren harrizko eraikin biribilei *arkuek* esaten zitzaiela aintzat hartzen bada. Etorki kontuekin jarraituz, 1683. urteko *Alcola* aldaera dela eta, aipatzekoa da, Baztango Haraneko Artxiboan dagoen *Executorial Insertas* liburuan, *Alcola* (1584) izeneko saroia ahotan hartzen dela *Michelia* eliaz jardukitzean. Horrenbestez, *Arcola*, disimilazioz, *Alcola*-tik ateratakoa izan liteke (cf. ARKOROLA). Guztiarekin, zailtasunik handiena *Alkola* > *Akola* urratsa azaltzean datza.

Amunola (*amona* [*amuna*] + *ola*) ere saroi-izena da, baina honen aurreneko lekukotasuna aurreko toponimoarena baino zaharragoa da, zehazkiro, 1178. urtekoa baita. Hasteko, sudurkari arteko bokal itxiaz landa, *-mm-* digrama nabarmendu nahi dugu, kasu horretan besterik ez delako azaltzen (*Ammunola*). Hurrengo aipamenak 15. mendekoak dira eta bi forma irakur litezke, *Amunola* (1467) eta albokari geminatua duen *Amunolla* (1467). Ildo beretik, 16. mendean *Amunola de suso* (1516), *Amunola de baxo* (1516) zein *Amunola* (1538) aurkitu ditugu, baina 17.ean gauzak aldatzen hasten dira: bokal artean, *-n-* ordez, *-r-* duen *Amurola* (1616) agertzen da estreinakoz (*-m-* — *-n-* > *-m-* — *-r-* disimilazioa), *Amunola*-rekin batera erabiltzen dena (1607; 1625; 1683). 18. mendean dardarkaridunak dira nagusi (*Amurola de Yuso, Amurola de suso*, 1769; *Amurola*, 1773; 1797 / *Amorola, Amorola de Yuso, Amorola de suso*, 1773; *Amorola arriba*, 1773) eta hustutako iturrietan, salbuespen moduan, *Amunola* (1773) formaren bi erakusgarri eta *Amonola*-ren (1780) lekukotasun bat baizik ez ditugu aurkitu; kontuan har bi sailetan *-u-* — *-o-* > *-o-* — *-o-* disimilazioaren lekukotzak daudela. 19. mendean ere dardarkaria dutenak gailentzen dira (*Amurola*, 1831-1845; 1833-1835; 1860-1862; 1863 / *Amorola*, 1855; 1857-1860; 1860; 1862; 1868; 1870; 1879; 1889), eta bokal artean *-n-* dutenak gutxi dira (*Amon-ola*, 1831; *Amon-ola de suso*, 1838; *Amon-ola de yuso*, 1838; *Amonola*, 1870). 20. mendean ez dago bokal artean *-n-* duen estenplurik, bai, ordea, *-r-* duten mostra ugari (*Amurolacoa*, 1900; *Amurola*, 1976; *Amorola maizterra*, 1900; *Amorola nagusi*, 1900; *Amorolazar*, 1969; *Amorola e Insausti*, 1951; *Amorola*, 1969). Mende horretan bertan, aurrekoekin batera, sudurkari ezpainbikoaren ondoren *-ue-* hiatoa duen aldakia topatu dugu lehenbiziko aldiz idazkietan (*Amuela*, 1911; 1942; 1953; 1944; 1953; 1962; 1980; 1981; 1983; *Amuelacelay*, 1944; *Amuela-Zar* / *Amuelazar*, 1983), egun ahoz baliatzen den aldaera (*Amuela*, [ámuelà], K.). Erroan *amona* dago, pertsona-izen moduan erabili den ahaidego hitza, eta idazki zaharretan bokal itxiarekin azaltzen dena (*Amuna*); hortaz, abeltzain-azpiegituraren erabiltzailea adierazten duen toponimoa da AMUNOLA.

Euskal Herrian *-ola*-ren idatzizko lehenbiziko aipamenak 11. mendekoak dira (Araba, 1025. urtea) eta Mitxelenaren aburuz abeltzaintzarekin lotutako hitza da jatorriz, geroago *burdinola* zentzua izan badu ere; hain justu, gaztelaniazko *sel, bustaliza* eta *cabaña* terminoen parekoa zatekeen behinola. Urumeako zilegimendietan, *-ola* bigarren osagaitzat duten toponimoen herena saroi-izenak dira eta ez litzateke harritzeko beste adibide batzuk ere abeltzaintzarekin izatea lotura; burdinolen izenak, ordea, hagitz gutxi dira, hamarretik bat edo.

AMAITZEKO, labur bada ere, garai bateko urumearren munduaren ikuspegiari lotuko gatzaizkio, mitologia errealitatea esplikatzen duten argibideen multzotzat ulertuz, eta ez kontu edo ipuin fantastiko sortatzat. Bizimodua arautzeko balio ez duenean baizik ez da bilakatzen mitologia kontu edo ipuin fantastiko bilduma, baina, orduan ere, ematen duen informazioa aintzat hartzeko modukoa da.



Akolako saroia.

Kontakizunak ez dira *ex professo* bilduak; ahozko toponimia biltzerakoan topatu ditugu. Bestetik, ez dira erabat originalak, noski; ez dira gure esparruan bakarrik bildu, esan nahi baita beste toki askotan ere jaso direla[6]. Jatorrizkoak ala ez, gertatzen diren inguruari buruzko informazioa dakarten heinean dira interesgarri guretzat, hau da, gure esparruko toponimia ulertzeko balio duten neurrian. Bi dakartzagu. Lehenengoa Urumeako zilegimendien mugen zergatiaz mintzo da, eta, bide batez, bi oronimoren etorkia azaltzen du. Bigarrenak toki-izen baten jatorria argitzen du zuzenean.

Aurreneko kontaerak dioenez, *Elduainerreka* eta URUMEA bitartean dauden mendiak berezi samar banatuak daude[7]. Mendiak zatitu behar zirenean zera erabaki omen zuten: gauerdian amona bat Berastegitik eta beste bat Aranotik irten eta topo egiten zuten lekuan mugarria jartzea. Unea iritsi zenean Berastegikoa irten zen, bai, baina Aranokoa, erabat ahaztuta, lotan gelditu zen. Berastegiko amona ibili eta ibili, baina Aranokoarekin ez topo egiten. Berastegiko amona harrituta zegoen eta, ETZELAra iritsi zenean, amonarik *ez zela* esan zuen. Aurrera jarraitu eta UNAMUNOn, Aranoko amona ikusi zuenean, *hona amona* bota zuen. Hain zuzen, horregatik omen dituzte izen horiek bi tokiek. Aranoko amona, Berastegikoa aurkitzeko itxaropenik gabe, estu eta larri zetorren, gosaltzeko denbora hartu ezinik, eskuan gaztaina batzuk zekartzala. Bi amonek elkar topo egin zutenean, Berastegik mendi askotxo izango zituela eta, ETZELAraino itzuli ziren, Aranokoaren gaztainen truke; horregatik omen dago gaur muga toki hartan.

Bigarren kontakizunak HAURRA GALDU ZAN HARRIA *Satzname*-aren (esaldi toponimoaren) etorkia jakitera ematen du bertsotan. Esaten denez, bertsoak Txirritak jarriak dira. Hona bi berriemailek abestutako aldaerak:

Andre gazte bat auntzkontun zaallen
landrabasotik aurrera,
aurra txikiya xestuan zeukan
xarpa tartian jarriya.
Arrano gorri[8] *gaizto aundi bat*
sartu zitzayon aurrera,
aurra txikiya artu ziyon da
ua andre gaxuan larriya,
uañ orregatik deitzen diyote
aurra galdu zan arriya.

.....

Andre gazte bat mixerablia
auntzkontura etorriya
bere semia sestuan zeukan
zarpa tartian jarriya.
Urdaburutik sartu zitzayon
tranpan arrano gorriya,
arrapatuta eraman diyo
ura uaren larriya,
oraiñ argatik deitzen diyogu
aurra galdu zan arriya.

---

[6] Barandiaranen ikerlan oparoan kontakizun horien beste aldaera batzuk aurki daitezke.


[7] Hiriguneak urruti egon arren, Elduain eta Berastegiko mendiak ia Aranoraino iristen dira.

[8] Hegazti gorria *Mari* jainkosa dateke.

Alai Zubimendi





"Skeleton froga lau zatitan banaturik dago. Zorionez, lehenengo zatia matematika froga bat da. Gure Maridoloxek 30 urtez gobernatu ditu bere fruta-dendako kontuak eta krixton abantaila aterako die LOGSE-ko umemoko hoiei!"
??
25 : 5=?
"Eta abantaila hori nahikoa ez bada, azken zatian, eskalada froga bat gainditu beharko dute partaideek. Hortxe edukiko degu gure Joxe..."
Gauero zaharren egoitzetik ihes egiteko eskalatzen dudan paretaren ondoan, hau ez duk ezer!!
Beste arma sekretu bat ere badaukagu gure alde. Gure garaian ez genituen PLAIESTEITXON eta deabrukeria hoiek...
"...gutako edozeinek erraz emango die erakustalditxo bat txiba frogan!!"
Eta orain galtzak kenduko ditut txiba hanka puntatik mugitu gabe!
GAME OF THRONES
Nola arraio dabil tramankulu hau? Ez diot ez ON botoirik ezta USB konexiorik aurkitzen!!
"Ta zer diozue mozkor karreraz? Gure Juanmanuelek goiza osoa ematen du txikiteoan ¡o ta su, eta bazkalordurako etxera iristen da xuxen-xuxen, norabiderik galdu gabe!!"
Kalian goooora, kalian beheeera...
DANBA
2


"Eta zer esanik ez goitibera frogan! Gure Antton sekulako kamikazea da bere gurpildun aulkiarekin, eta Benita zeladore izan da urte askotan!"
Aibalaostiahi!! Montmelo-ko zirkuitoan konpetitzeko moduko denbora egin diten!!
Bai, guzti hori oso ondo dago. Baña zer gertatzen da kronoeskalada edo patin karrera bezelako frogekin?
Hoiek gazteek irabaz ditzaten utziko dugu, umillatuegiak sentitu ez daitezen...
...azken finean gure bilobak dira eta bixitan etortzen jarraitzea nahi degu, ezta? Ji, ji, ji!!
JI JI JI JI
Iñaki Aburuzaki 12
3

Ibilaldi bat Hernaniko gotorlekuen historian zehar: erdi aroko harresitik Napoleonen garaiko guduetako babesetaraino

• *Alfredo Moraza Barea*
(Aranzadi Zientzi Elkartea)



Lerro hauen bitartez, oroitze-ariketatxo bat egin eta Hernaniko iraganarekin zerikusia duten hainbat albiste ekarri nahi ditugu gaurko egunetara. Jende askori ezezagunak edo bitxiak gertatuko zaizkion zenbait datu eskaintzea da gure helburua. Hain zuzen, kanpoko mehatxu desberdinei aurre egiteko, biztanleek zeukaten *babesa* edo zeuzkaten *babesak* izango ditugu hizpide eta ardatz.

Gai zehatz hau jorratzeko orduan, Hernaniko historia hain aberatsa izateak eragozpen handi bat planteatzen digu, horri buruzko datuak ezin konta ahala direlako. Hernanik lurraldearen babes-bilbean bete duen zeregin nabarmenaren emaitza da hau guztia. Protagonismo hori bi alderdi zehatzen bidez adieraz daiteke: bat, Hernani Frantziako mugatik gertu dago; eta bi, Frantziatik Gaztelara zihoan Errege Bide zaharraren trazatuan (gaur egungo N-1 errepidearen aurrekoan) ondo kokaturik zegoen.

Hala ere, honako artikulu honetan, gaia osorik jorratzea zinez korapilatsua gertatzen zaigu (monografiko bat atera beharko genuke); hori dela eta, artikulua bitan zatitzea erabaki dugu: lehen artikuluan Hernaniko babesak jorratuko ditugu XIX. mende hasierara arte, eta bigarrenean XIX. mendeko Karlistaden asalduzko garaietaraino helduko ginateke (hau hurrengo edizio baterako erreserbatuko dugu).

Erdi Aroko hiribilduaren babesak.

Hernaniko babesei buruzko gaia jorratzeko orduan beharrezkoa da, zentzuzkoa denez, biztanleriak bere jatorrian, hau da, sortu zenean izan zituen babesetatik abiatzea[1]. Biztanle-gune hauen ezaugarrietako bat harresi batez inguraturik egotea zen, hau da, harresi batek haien perimetro osoa inguratzen zuen. Hernani ez da salbuespena eta jatorrizko biztanle-gunea inguratzen zuen harresi bat izan zuen bere sorreratik bertatik[2]. Herri-gunea zehazteko orduan harresi hauek funtsezko zeregina betetzen zuten, herri-gunearen (kalea) eta inguruko landa-gunearen (baserriak) arteko muga fisikoa ezartzen zutelako. Gaur egun, Hernanin, harresi haien aztarnarik ia bat ere ez da geratzen, edo agerian ez behintzat, arkeologia-indusketa batzuen bidez lortutakoak izan ezik (Kale Nagusia, 27-29 eta 3-5)[3]. Horri esker jakin ahal izan dugu harri-lanez eginiko harresi batzuk zirela eta 5 metroko altuera eta 1,20-1,30 lodiera zutela; beraz, Erdi Aroko gainerako herri-guneetakoak bezalakoak ziren. Denborak aurrera egin ahala, harresi hauek euren hasierako balioa galdu zuten, ahanzturan erori arte, haien aldamenean proiektaturik zeuden etxebizitzentzat eragozpen bilakatu zirelarik. Hasiera batean, harresiak eta etxebizitzen atzealdea bereizten zituzten inguru-bide zaharrak beretzat hartu zituzten auzokoek; baina azkenean, eraikuntzan bertan integratu ziren, zela harresi perimetral gisa (beraietan leiho edota ate berriak zabalduz) edo besterik gabe harresiak lurrera botaz.

Erdi Aroko harresi hauekin zuzen-zuzenean lotuta dauden beste elementu batzuk sarrerako portaleak edo arkuak dira, bi mundu horien artean (kalekoaren eta baserrikoaren artean) zubi modura funtzionatzen baitzuten. Portale haiek herri-guneen erakusleihoak ziren eta gauez iltzez eta giltzez ixten ziren. Jatorriz Hernaniko hiribilduan gutxienez bost (edo agian sei) portale egongo ziren. Portale nagusiak Kale Nagusiaren eta Kardaberaz kalearen beheko muturrean zeuden, gaur egungo Plaza Berria elkartzen zaien lekuan, eta aurrez aurreko beste muturrean beste portale bat zegoen, gaur egungo udaletxetik gertu, bi kaleak bertan elkartzen baitziren, eta gaur egungo plaza baino txikixeagoa zen beste bat zegoen han. Gainerako bi portaleak arruntagoak ziren eta hiribildua Ekialde-Mendebalderantz mozten zuen kalezuloaren (gaur egungo Felipe Sagarna *Zapa* kalearen, edo *kantoiaren*) bi muturretara agertzen ziren: portale haietako batek oraindik zutik dirau, Gipuzkoa osoan kontserbatzen diren mota horretako alerik zaharrenetako bat izanik. Denboraren poderioz, portale hauek desagertuz joan ziren, eta desagertzen azkenak Plaza Berriaren ondokoak izan ziren, 1855ean eta 1856an eraitsi zituztelarik.

---

[1] Hernaniko hiribildua sortu zeneko uneari dagokionez, gaia jorratu dutenen artean ez dago adostasunik; beraz, misterioak argitu gabe dirau. Aztarnen arabera, dena den, herri-gune gisa lehendik existitzen bazen ere, badirudi "sorrerako" hiri-gutuna XIII. mendean eskuratu zuela.

[2] Hernaniko jatorrizko herri-gunea gaur egungoa baino askoz txikiagoa zela gogoratu behar da, gaur egungo Gudarien plazatik Plaza Berriraino iristen baitzen. Erdi Aroaren bukaeran edo Aro Modernoaren hasieran (XV-XVI. mendeak), gune hau Zinkoeneako bazterretaraino hedatuko da, gaur egungo herri-gune historikoa sorraraziz, nahiz eta ordurako babes-harresi baten beharrik izan ez.

Erdi Aroko sorrerako gune horretan, San Joan Batailatzailearen parrokia-eliza gaur egungo Agustindarren komentuan zegoen, eta ez gaur egun ezagutzen dugun lekuan. XVI. mendearen erdialdean lekuz aldatu zuten, eta sektore honetan herri-gunearen irudia goitik behera aldarazi zuen, inguruan plaza zabalago bat sortu zelako, albo batean tenplua eta beste albo batean udaletxea zeudelarik.

[3] Hernaniko harresiaren trazatu zehatza –jatorrizko urbanismoaren beste alderdi batzuekin gertatu bezala– definitzea oso zaila da gaur egun, herri-guneari buruzko ikerketa zehatzik ez dagoelako eta horri buruz lortu diren ebidentzia arkeologikoak oso urriak direlako. Antza denez, trazatu hura bat etorriko litzateke Kale Nagusian dauden zenbaki bakoitien atzealdeko egungo fatxadekin, Gudarien plazaren eta Plaza Berriaren artean; hala eta guztiz ere, haren trazatu zehatza zein zen ez dakigu; izan ere, gaur egun hasieran baino nabarmen aurreratuago daude, Kardaberaz kaleko zenbaki bikoitietan dauden etxeen atzealdeko fatxadetan egin izan diren berregituratze-lan handiengatik.


HUA/AMH//D-1-1/5. Kale Nagusian burututako lanak... 1851 – 1894:


El Director de caminos de esta Provincia en oficio... con fecha de 24 del corriente me dice...


"He reconocido y examinado en virtud... el estado en que se encuentran en la actualidad tanto el arco ó portal de la calle mayor de esa villa, condensuado à la demolición, como el de las dos casas adyacentes sobre las que descansa dicho portal...".

... para en su vista adoptar la resolución que convenga en orden a la demolición del arco o portal de la calle mayor de esa villa.

... en la N. y L. villa de Tolosa a 26 de mayo de 1855.







Felipe Sagarna *Zapa* kalean portaleetako bat (ateetako bat) kontserbatzen da.



Jentilen dorrea edo Portalondo etxea, gotor-etxe bat Hernaniko herri-gune historikoan.

Deskribaturiko harresi horren trazatuan modu estrategikoan jarritako dorre batzuekin osatuko zen, ziur aski, biztanleriaren babesa; gaur egun, dorre horietako zenbaitzuk hiri-izaerako etxe peto-petoak bilakarazita dauzkagu (*Jentilen dorrea* edo *Portalondo* etxea, Dorre etxea,...).

Babes edo harresi hauek testigantza-izaera edo izaera sinbolikoa izango dute gehienbat, eraso baten aurrean ez baitziren oso eraginkorrak: 1332an, 1512an eta beste urte batzuetan setiatu, arpilatu eta erre zutenean agerian jarriko den bezala.

Gotorlekuak Aro Modernoan (XVII. mendea)

XVII. mendera arte itxaron beharko da, agintariek herri-gunearen kokapen estrategikoari jarraiki "benetako" babes-proiektu berri bat plantea dezaten.

Proiektua osorik burutu izan balitz, herri-guneari aldaketa handia ekarriko ziokeen, gotorturiko herri handi bat (Donostia, Hondarribia, Baiona edo Iruñekoen pareko) sortuko baitzate-

keen. Aipatutako proiektua Hogeita Hamar Urteko Gerraren ondorio zuzena izan zen (1618-1648), gerra-gatazka honek Europa kontinentalaren zati on bat astindu baitzuen hainbat eta hainbat fasetan[4]. Frantziak gatazkan sartzeak ondorioak ekarri zizkion gure lurraldeari, galiar erresumarekin mugakide izanik. 1638ko udan, frantziar armadak, Condé printzipearen aginduetara zeuden 18.000 gizonekin, Gipuzkoa inbadituko du, hainbat herri (Irun, Oiartzun, Lezo, Errenteria, Pasaia) arpilatuz eta Hondarribia ia ehun egunetan setiatuz.

Inbasio berri baten ondorioak prebenitzeko, Gerrarako Kontseiluak Gipuzkoa babesteko hainbat neurri hartuko ditu, diru-kopuru handiak inbertituz. Donostiako eta Hondarribiko babesak nabarmen hobetzea proiektatzen da, eta Pasaiako eta Getariako portuak gotortzeko obrei bultzada bat emango zaie; areago, "Errenteria Berri" bat sortzea proposatu eta trazatuko da gaur egungoa ez bezalako beste kokaleku batean (Basonoaga edo "Alto de Capuchinos"), zegozkion harresiekin eta guzti. Herri hauetako babesak hobetzeko lanei gehitu beharko zaizkie Hernanin egitekoak direnak, kostaldeko plaza horien atzealdearen defentsarako gune estrategikotzat eta Probintzian barneratzeko ataritzat jotzen baitzaio (*"una de las cosas mas importantes para la Provincia de Guipuzcoa y defensa della es la fortificación de Hernani"*).

Hernaniri dagokionez, lanak 1639ko udara arte ez dira hasiko, baina horien arduradunek bidalitako txostenak ikusita, lanak oso poliki aurreratuko dira, diru-baliabiderik eza dela eta. Erdi Aroko jatorrizko harresitik gelditzen diren hondarrei –berez aski hondatuta zeudenei– eustera eta "lurrez eta elkar lotutako egur txikiz" osaturiko parapeto soil batzuk egitera mugatuko dira. Lanak etenda eta inongo mantentze-lanik gabe luzaro egon ostean, harresiak hondatuta zeudela ikusi zuten, handik hiru urtera lanei berriro ekin nahi izan zietenean[5]. Diego Isasi ingeniari ospetsuak 1642an egindako proiektu berria aurrekoa baino anbiziotsuagoa zen, egindako muntaian ikus daitekeen bezala. Horren exekuzioaren arabera, herriaren inguruan gotorleku edo zitadela handi bat eraiki nahi zuten, harrilanez eginda eta bere perimetro osoan bastioiz eta gortinaz babestuta, perimetroaren zati handi bat inguratuko zuen babes-erreten handi batez babestuta ere. Horren barruan, gainera, zenbait kuartel eta bolborategi eta beste eraiketa batzuk egokitzekoak ziren. Horrez gain, zitadela hau obra txikiko beste bi eraiketarekin indartzekoa zen, bata Tellerigain deritzon alderdian (*"en el paraje que se llama Telleria"*) eta bestea herri-gunetik gertu (Txantxilla). Lanen kostua guztira 70.000 ezkutukoa izango zela aurreikusi zen, itxuragabeko diru-zenbatekoa garai hartarako, eta lanen exekuzio-epeak zortzi hilabetekoa izan behar zuen. Proiektu faraonikoak Kontzejuaren aldetik era guztietako oniritziak eta babesa izan arren, azkenean ez zen gauzatuko, zorionez, exekutatu gabeko proiektuen lo-zorroan geratu zelarik.

Hurrengo hamarkadetan hiribilduak ez du bere balio estrategikoa galduko eta gunea gotortzeko proposamen berriak egingo dira, inoiz gauzatu ez baziren ere (1673)[6].


---

[4] Gerra honek, hasiera batean, izaera erlijiosoa izan zuen, Erreformaren (katolikoak) eta Kontraerreformaren (protestanteak) aldekoen arteko gatazka izan baitzen, baina handik gutxira Europako potentzia nagusiek gatazka bere egin zuten, kontinentearen hegemonia eskuratu nahirik. Bandoetako batean Sakro Inperio Erromatar Germanikoa, Liga Katoliko Alemaniarra, Austria, Espainia eta Bavaria batu ziren; bestean, berriz, Suedia, Holanda, Frantzia, Ingalaterra, Bohemia, Danimarka, Eskozia, Saxonia, Palatinatua eta Transilvania.

[5] 1642an eginiko txosten batean hauxe azaltzen da: *"la fortificacion que oy tiene esta villa esta del todo ynutil por haverse caydo la mayor parte, y la que ha quedado se ha convertido en guertas, y aun que se hallara en la mesma forma y comodidad que quando al principio se hizo no es suficiente para detener el enemigo pues su poca altura, cortedad de defensas no puede servir de plaza fuerte ni de quartel por su apretado recinto"*.

[6] Gerónimo Rinaldi ingeniariak 1673an egindako proiektuan, elkarren osagarri izango ziren bi gotorleku exekutatzea proposatzen zen. Bata herri-gunea inguratuz, eta beste bat aurrekoaren osagarri, *"en un monte asperisimo y de peñas"*, Santa Barbaran alegia (urik ez zegoen eta nekez mantendu zitekeen alderdi batean).

Hernaniko zitadela gotortzeko proiektua 1642an; 1639koa baino nabarmen anbiziotsuagoa.



Konbentzio Gerra (1793-1795)

XVII-XVIII. mendeetan zehar egindako proiektu handiak bertan behera utzita, gerra-gatazka berri batek Probintziaren defentsan beti izan duen protagonismoa itzuliko dio Hernaniri. Zientzia militarrak ordura arte izandako bilakaeraren ondorioz, herri-gune zaharra gotortzeko aukera erabat baztertu zuten, eta oraingoan ahalegin guztiak bideratu zituzten Santa Barbara inguruak gotortzera.

Luis XVI. erregea hiltzera zigortzearen ondorioz, Konbentzio Gerra sortu zen, eta Espainiak eta Ingalaterrak Frantziaren aurka egingo dute. Gerra hasieran frantziar lurraldea inbaditu zuten, baina gerra-frontea berehala bueltatuko da mugara, eta hori dela-eta gotorleku handiak eraikitzen hasiko dira. Lanik gehienak Bidasoa inguruan egin baziren ere, Hernaniren kokapen estrategikoa dela-eta hiri garrantzitsu bilakatuko da[7] babes-sistema horretan. Inbasio bat gertatzekotan, hain zuzen, etsaien osteei aurre egin eta atzealdea defendatzeko puntu garrantzitsuenetako bat dela idatziz jasota dago. Helburu horrekin, 1793. urte bukaeran, Juan Poulet eta Juan Ximenez Donoso ingeniariak bertara bidali zituzten, Santa Barbara mendiko gotortze-lanak egin zitzaten. Lan horien ezaugarriei buruzko datu zehatzik ez daukagu, baina lan nahiko garrantzitsuak izango zirela pentsatzekoa da, garesti atera baitziren (20.000 peso), haien gaineko deskribapen bat edo beste izateaz gain (*"si el enemigo retarda en eio unos seis meses, tenemos aqui un Castillo como el de Jaca en Aragon"*). Dena den, frantziar osteek 1794ko abuztuaren 1ean Bidasoako su-lerroa hautsi eta Gipuzkoa inbaditzen dutenean, lanak artean amaitu gabe zeuden, eta ondorioz, aurrera egin ez zezaten inongo oztoporik ez zuten kausitu. Hernanik hil horretxen 3an eman zuen amore. Gotorleku haiek, handik urte gutxira, 1796an, *"estaban arruinadas todas estas obras por el exercito frances"*, eta ondorioz, gugana ia-ia ez da lekukotasunik bat ere heldu.

Napoleonen garaiko guduak (1808-1813)

Hernanik bere historian zehar izan dituen gotorlekuei buruzko gure deskribapenaren azken fasea Napoleonen garaiko guduetan jasotakoei dagokie. Gatazkarekin zerikusia duten zehaztasunak eta Hernaniri ekarri zizkioten zamak albo batera utzita –lehenago aurkeztu genuen beste lan batean modu zabalago batez jorratu baikenituen[8]–, gerra-garai honen alderdi fisikoan jarriko dugu arreta.

Frantziar okupazioaren garaian, frantziarren soldadu-oste bat Hernaniko hiribilduan iraunkorki kokatuta egon zen, biltegiak eta kuartelak zeuzkatelarik eta biztanleen hainbat etxe okupatzen zituztelarik. Bien bitartean, gotortze-lan garrantzitsuak egin zituzten, batez ere herri-gunean, herria beharrezko babes-bitartekoz hornitzeko, baina aurreko hamarkadetako proiektu handien mailara iritsi gabe.

Lan hauek 1809. urteko azken bi hilabeteetan gauzatu ziren gehien bat, Probintziako Gobernari Thouvenot jeneralaren aginduz. Horren kostua udal diruekin oso-osorik ordaindu zen, ia-ia 4.000 erreal guztira. Ez dakigu zer-nolako lanak izan ziren (harrizko paramentu berriak, portale-itxierak, e.a.). Gatazka amaiturik, haiek guztiak lurrera bota ziren berriro, ostera ere ahanzturan eroriz.

Horrenbestez, amaitutzat jotzen dugu, oraingoz, Hernanik bere defentsarako denboran zehar izan zituen gotorleku ezberdinei buruzko kontakizun laburra. XIX. mendeko kontakizun asalduzko eta trinkoa uzten dugu hurrengo edizioetarako.

---

[7] Gerra hasi baino lehen idatzitako txostenetan, 1791. urte alderantz, zertzelada horiek ordurako nabarmenak ziren, zera aditzera ematen zelarik: *"es mui conveniente fortificar tambien el monte de Santa Barbara, situado encima del Pueblo de Ernani, de donde descubren los caminos de San Sebastian, Yrun y Navarra"*.

[8] Jesus Mari Gómez (Hernaniko Udal Artxiboa): *Guerra de la Independencia (1808-1814), Hernani ante la invasión francesa (1807-1813)* GARAn, 2008ko ekainak 23 (*HERNANI Sanjoanak* publizitate gehigarria).

Algunas historias de peleas, juergas y dinamita

• *Iñaki García de Vicuña*

Desde hace años, al llegar la temporada del txotx a nuestras sidrerías, vemos a los vecinos del casco protestar por los perjuicios que sufren en esos meses. Ruidos, peleas, suciedad o vandalismo, son algunos de los problemas que padecen. Por ello reclaman medidas al Ayuntamiento para paliar estos inconvenientes. A su vez, los hosteleros, que tienen en esta temporada gran parte de sus beneficios anuales, presionan a la Corporación municipal para defender sus intereses, especialmente la ampliación de horarios. Por su parte, los Gobiernos locales intentan armonizar ambas legítimas posturas, no logrando en muchas ocasiones soluciones definitivas.

Sin embargo, en honor a la verdad y a la luz de algunos documentos conservados en el Archivo Municipal de Hernani, podemos decir con rotundidad que estos problemas no son nuevos y que desde siglos atrás, nuestro pueblo ha vivido situaciones de un paralelismo asombroso.

Una de las fuentes de las quejas vecinales son los **alborotos callejeros** y las **peleas**.

Estas las tenemos documentadas de antiguo como podemos comprobar en un escrito fechado el 18 de diciembre de 1899. Hacia la una de la madrugada de la fecha antes mencionada, en la entonces llamada Plaza del Mercado, hoy Plaza Berria, los serenos Valentín Garin y Teodoro Santacruz *"hallaron un grupo de jóvenes que estaba en acalorada discusión; siendo el que* más sobresalía *Agustín Sarasola y Oyarzabal"*.

Entonces, el sereno Garin les ordenó que se retirasen, a lo que Sarasola se negó diciendo *"que ni por el sereno ni por nadie se retiraría hasta que él quisiera"*, dando comienzo una pelea que acabó con el joven detenido por los serenos[1].

En otras ocasiones, era el propio Alcalde quien sufría las iras de quienes se sentían agraviados por sus decisiones. Dos siglos antes de los hechos contados arriba, concretamente en la noche del 17 de agosto de 1687, Domingo de Aristizabal junto a otros, organiza un alboroto y escándalo en la vía

[1] Archivo Municipal de Hernani, en adelante HUA/AMH. HUA/AMH//A-8-I-1/1. Policía urbana. Partes de la Guardia Municipal sobre infracciones de las ordenanzas municipales, expedición de pasaportes, licencias de uso de armas, orden público, vigilancia y seguridad. Policía de ferrocarriles y carreteras, etc. (1850-1919).



Fot.: Archivo Municipal de Hernani

pública *"llegando a apedrear la residencia del Alcalde, a quien dedicaron coplas injuriosas so pretexto de que ponía estorbo en el juego de pelota"*[2].

En 1685, el Alcalde de Astigarraga practica diligencias en relación a un pleito que litiga don Miguel Carlos de Oquendo contra Francisco de Herauso, Felipe de Gorbireta, Felipe de Recarte, Sebastián de Iturbide y Pedro de Zuaznabar y consortes. El asunto hace referencia a que el Alcalde de Hernani se dirigió a Lasarte para prender a Oquendo llevando consigo 70 hombres armados y grilletes según la versión del querellante, que en la versión del querellado se quedaban en 25 hombres sin grilletes. El motivo para tomar preso a Oquendo no era otro que la pretensión que tuvo éste de organizar fiestas sin licencia del Alcalde de Hernani[3].

De vuelta al s. XIX, el 21 de abril de 1833, en la sidrería Mandazubi Berri de Hernani está a punto de estallar una particular batalla. Grupos de vecinos de Hernani y de Urnieta comen, charlan y degustan la sidra que les sirve María Felipa de Echeverría, tabernera de Mandazubi, que junto a su marido Antonio de Múgica, atiende a los parroquianos que acuden a su caserío para disfrutar de una agradable tarde de domingo primaveral. A eso de las cinco, el vecino de Urnieta José de Gorriti, naipero de profesión, de 44 años, *"con motivo de ser feira fue a beber un cuartillo de sidra en compañía de Antonio Echenique, su amo, de esta vecindad a la Casa Mandazubi berria en Hernani, donde hay de venta sidra, y habiendo sacado medio azumbre y estando así bebiendo y conversando sanamente el que declara, Echenique y otro hombre llamado Antonio cuyo ape-*

[2] AROCENA, Fausto. *Índice de documentos del Archivo Municipal de la villa de Hernani*. San Sebastián, 1976.

[3] Id.

llido ignora, que vive antes de entrar en el portal de hacia el humilladero de Hernani, le llamó al declarante José de Loinaz, maestro zapatero de 44 años, de Urnieta, que estaba con sus dos hijos en dicha sidrería y le dijo a Gorriti que le quería mucho y este le respondió que estaba muy bien y aquel le dijo que le quería decir una cosa"... Con este inicio de conversación, uno no piensa que la cosa acabara como acabó. Sin embargo, al haber tenido anteriormente los hijos de ambos una pelea en la iglesia, la reyerta la continuaron los padres en la sidrería. Como consecuencia de los golpes, José de Gorriti sale peor parado que su tocayo Loinaz y es ayudado a salir fuera de la taberna por Manuel Antonio de Múgica, de 60 años, colono del caserío de *Aguerre* de Hernani. Allí se encuentran con Francisco de Astarbe, vecino de Hernani, de 34 años, que estaba con Domingo Yrigoyen, Bernardo Miner, Miguel José de Olaondo y otros de Hernani "*juntos o haciendo un solo rancho, bebiendo sidra en el campo o fuera de la taberna del caserio de Mandazubi berri, muy próximos al arroyo que divide las jurisdicciones de Urnieta y Hernani*". Astarbe pide un trapo en Mandazubi y con el agua de la erreka lava y ata las heridas de Gorriti, posteriormente le convence, dada la gravedad de las heridas, para acompañarle a su casa Leonorenea o Dendarinea, que por los dos nombres se le debía conocer, pegante al Camino Real de coches y postas de Urnieta[4].

Actualmente, además de las riñas y pendencias, también generan quejas **las gamberradas** y **los actos vandálicos** que dañan bienes públicos y de particulares. Como no podía ser de otra forma, encontramos también ejemplos de estas cuestiones entre los viejos papeles. En este punto, voy a reproducir íntegramente una denuncia del año 1871 realizada por el empresario Bonifacio Guibert propietario de la fábrica de papel continuo "Urumea" en el barrio de Fagollaga[5].

"Sr. Alcalde.

Anoche la gente en la taberna Suvi-mutur a estado toda la noche, parece que algunos han salido esta mañana al amanecer.

deseo que llame y tome nota de las personas q. han estado pues la puerta del almacen donde tengo el trapo y cuvas de Sidra me han havierto.

Castigue al amo de la taberna, (Juan María) sin consideración.

Esperando de V. queda
Bonifacio Guibert

Noviembre 27 de 1871 "[6].



Hernani. Año de 1833

Autos que de oficio se han formado sobre una camorra ocurrida la tarde del domingo 21 de Abril de 1833 en la taberna de sidra del caserío de Mandazubi berri de esta villa entre José de Loinaz zapatero, y José de Gorriti naipero, vecinos de Urnieta, de que resultaron heridos, con más gravedad el último.

[4] HUA/AMH//E-7-III-26/12. Autos instruidos a consecuencia de una reyerta habida en el despacho de sidra del caserío Mandazubi berri. Escribano Berasategui (1833).

[5] LERCHUNDI VICENTE, Luis: "Las Mercedes": fábrica de cemento en Fagollaga (1903-1909). Boletín LXV-1-2009 Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.

[6] HUA/AMH//A-8-I-1/1.



Dibujo de Josemari Alemán Amundarain.

A lo que sigue, llamarlo gamberrada es quedarse muy corto. El 19 de abril de 1892, el primer teniente de Alcalde de Astigarraga, José Antonio Otaño, le escribía la siguiente carta a su homólogo de Hernani:

"Ruego a V. se sirva averiguar que gente había a última hora de anoche en las tabernas de su jurisdicción, Lizarchueta, Venta berri y sidrería Chandrenea donde acude mucha gente de esta y cuando o a qué hora se retiraron y a poder ser sus nombres, con el objeto de averiguar, si se puede, quien ha sido el que ha volado la fuente de Ergobia con cartucho de dinamita"[7].

Sin comentarios.

Para acabar con este apartado de gamberradas, y para que no creamos que los bareros se iban de rositas, referiré a continuación lo que le sucedió a Rafael Martínez, dueño de un café en Hernani que el 30 de noviembre de 1875, en plena última Guerra Carlista, solo dos meses después de la voladura de la Casa Consistorial, da parte al Alcalde en los siguientes términos:

"Tengo el honor de participarle que acostumbrando varias noches jugar a la 31 en mi café hasta las 10 de la noche hayer continuaron hasta las 11 obligando a esta hora que parasen de jugar para lo cual se apagó el quinqué de la mesa de villar retirandome al mostrador; quedando 5 de los que jugaban y 2 mirones en el lugar del juego sin luz y aprovechando de la oscuridad han cortado con cuchillo el paño de modo que no tiene compostura y por lo tanto doy a V. parte para que por sus medios se haga justicia y se haga abonar el daño ocasionado para lo cual pueden llamar al musico del Batallon de las Navas Enrique Aranda y el Practicante Juan Manuel Barragán dos de los individuos que jugaban y deben de saber el causante de las cuchilladas"[8].


Como acabamos de ver, algunos taberneros intentaban cumplir los horarios, pero al parecer, no todos ponían el mismo celo. Por ese motivo, en ocasiones, el Gobierno de Gipuzkoa conminaba al Alcalde de Hernani para que tomase medidas, como en esta carta del 12 de mayo de 1892.

"Teniendo noticia de que en las tabernas llamadas 'Ollaluma', de Ignacio Arrieta é 'Yrichulueta' de Manuel Artola, sitas en ese término Municipal se reúnen jentes de antecedentes no muy satisfactorios, y que por los dueños de las mismas no se cumplen las ordenanzas municipales en lo referente á (l)ahora en que han de cerrarse los establecimientos de ésta especie, he acordado prevenir a V. que exija de los Señores citados con el mayor rigor el cumplimiento de aquellas bajo la multa correspondiente, así como que por los dependientes de ese Municipio se vigile en las referidas tabernas y los concurrentes á las mismas que puedan ofrecer sospecha"[9].

[7] Id.

[8] Id.

[9] Id.



Fot.: Archivo Municipal de Hernani

Todavía 17 años más tarde, seguían complicándole el negocio a Oialume. El 15 de marzo de 1909, Joaquín Carrión, presidente de la Diputación, firmaba junto a los Diputados-Secretarios José Joaquín Castañeda y Jaime de Egaña un escrito dirigido al Alcalde de Hernani con la siguiente decisión:

"La taberna llamada de 'Ollalume' del término municipal de Hernani se halla en abierta oposición á las prescripciones del artículo 37 del Reglamento de Arbitrios por encontrarse á menor distancia de los ochocientos metros del límite de Astigarraga, por cuya razón procede su cierre retirándole la licencia"[10].

No puedo dejar de señalar aquí que pese a todos estos problemas y trabas administrativas, Oialume sigue siendo hoy, un siglo después, uno de los establecimientos más conocidos de Hernani.

No obstante, los hosteleros también daban pasos para defender sus intereses, y no dudaban en señalar **las ventajas económicas** que suponía, ya entonces, su negocio **para las arcas del municipio**. El 16 de noviembre de 1909, un grupo de hosteleros de Hernani: Bernardino Elizaran, Ignacio Aristeguieta, Antonia Beloqui, Juan Mª Usateguieta, Julian Zubiria, Benigno Blanco, Juana Zubieta y M. Fernández, dirigen el siguiente escrito al Alcalde:

"Los que suscriben, dueños de cafés, tabernas y Restaurans de la misma a V. respetuosamente exponen:

Que con el cierre a las diez de la noche se lesionan los intereses de los solicitantes y del erario municipal toda vez por ser la hora que más venta tienen los establecimientos; y siendo de su incumbencia se prolongue una hora más para el cierre ó sea las once de la noche.

Es por lo que á V.

Suplican: Se digne concederles una hora más para la venta y así quedarán complacidos los solicitantes y hará un gran beneficio á las arcas municipales"[11].

[10] Id.

[11] Id.

Estos escritos eran respuesta a las medidas que tomaban en ocasiones los alcaldes en relación a los horarios de cierre y que estos, a su vez, se veían obligados a tomar debido a otras presiones. Como esta disposición que dicta el Alcalde Felipe Miner el 15 de enero de 1906:

> *"Siendo repetidas las quejas presentadas a esta Alcaldía por los escándalos que se cometen en los establecimientos de bebidas a las noches, con perjuicio de la tranquilidad y sosiego del vecindario, he acordado disponer: que dichos establecimientos se cierren a las diez de la noche, durante los meses de Enero, Febrero, Marzo, Octubre, Noviembre y Diciembre; y a las once de la noche durante los meses de Abril, Mayo, Junio, Julio, Agosto y Septiembre"*[12].

No eran nuevas este tipo de medidas, ya el 31 de enero de 1887, Don Ruperto Erice y Murua, *"Alcalde Constitucional de la Villa de Hernani"* dispuso el siguiente horario:

> *"En el casco de la Población y en el Barrio de Liceaga a las once de la noche, y en el Barrio del Puerto y en despoblado a las diez"*[13].

Para finalizar veremos que no todo eran medidas contrarias a la hostelería por parte de los alcaldes. Estos conocían bien los beneficios que reportaba el negocio y no dudaban defenderlo cuando era necesario. El Alcalde de Astigarraga, Marqués de Valdespina, remite una carta al de Hernani con fecha 6 de octubre de 1904 en los siguientes términos:

> *"En sesión celebrada el día 3 del actual por la Junta local de Reformas Sociales de esta Villa, se acordó sería conveniente elevar una Instancia á la de Madrid, haciéndole ver los perjuicios que origina el cierre de las sidrerías los domingos, pero antes de proceder á ello y teniendo presente que otros Ayunt°. se hallan perjudicados de igual manera, creemos convendría efectuar una reunión de los Señores Alcaldes de Oyarzun, Rentería, Alza, Orio, Hernani y Urnieta, con objeto de tratar sobre el particular, y ver la forma en que podríamos elevar una Instancia cada uno de los reunidos, en representación de sus respectivos pueblos, para que tuviera mayor eficacia esta gestión.*
>
> *Caso de conformidad por parte de V. se le ruega tenga a bien asistir el día 13 del actual y sus 11 horas de la mañana al establecimiento 'La Urbana' en San Sebastián "*[14].

A lo largo de estas líneas hemos visto cantarle bertsos a un alcalde, una gaupasa en Fagollaga, peleas en Mandazubi, jugadores rajando mesas, la voladura de la fuente de Ergobia, alcaldes intentando regular los horarios o serenos batallando con jóvenes. Y aunque mañana mismo un alcalde salga con 70 hombres armados a detener a quien intente organizar una fiesta sin su permiso, siempre habrá, al día siguiente, alguien dispuesto a montar otra juerga a pesar de que el propio Ayuntamiento acabe de saltar por los aires.

[12] Id.

[13] Id.

[14] Id.

Eskulapioren sugea, farmazietatik Epeleko basoetara

• *Iñaki Sanz-Azkue*

Txorien kantuek eta erreka soinuak puskatzen dute Epele bailarako isiltasuna. Hemen natura da erritmoa eta melodia markatzen dituena. Basopean, zelaietan, errekan, bizia da nagusi. Bien bitartean, Eskulapioren sugea bere eginkizunetan dabil. Gaur ere ehizatu egin beharko du jateko, eta jan, bizirik jarraitu nahi badu. Joan ziren ospetsuak izan ziren garaiak. Gizakiak errespetua eta miresmena zizkion garaiak. Orain farmazietan baino ez dute errespetatzen. Orain suge bat gehiago da gainontzeko sugeen artean.



Eskulapioren sugea basopean. Arg.: Ander Izagirre.

"Sugea", botere handiko hitza.

"Sugea" hitza entzutea nahikoa izan ohi da gorputza erreakzionatzen hasteko. *"Sugea!"* bezalako oihu motz eta sinple batek gure muskulu guztiak mugitu arazi ditzake, edo kontrakoa, mugimendu gabe utz gaitzake. *"Sugea"* hitzak botere handia du. Hitza entzutetik beldurra sortzera segundo gutxiko denbora dago: belarrietatik sartu eta burmuinera doa. Hemen irudikatu egiten dugu eta azkar batean burmuinak agindua ematen die muskuluei. Pertsona bakoitzak erreakzio ezberdina izango du: geldi geratu, korrika hasi, sugeari aurre egin...

"Sugea" hitzak, izan ere, oso zentzu negatiboa du Europa mendebaldeko kulturan, eta zehatzago, Euskal Herrikoan heziak izan diren burmuinentzat. Belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho, gure aitona-amona, gurasoek, sugea izaki arriskutsu eta gaizto moduan deskribatu izan digute txikitatik. Eta halaxe irudikatzen dugu guk. Baina hala al da?

Sugeak. Biologia eta mitologia nahasten direnean...

Ahoz ahokoak garrantzi handia izan du Euskal Herria bezalako herri txiki batean. Ahoz aho transmititu dira kantuak eta bertsoak, ahoz aho, mitoak eta kondairak. Kontakizun hauek, ordea, gure ondareak eta kulturak mendez mende aurrera jarraitzea lagundu duten arren, ez dute beti errealitatearekin bat egiten. Horregatik dira mitoak, horregatik kondairak.

Sugeek, mundu mailako eta Europako kulturen sustraietan dauden mito eta ipuinetan gaiztoaren papera hartu izan dute askotan. Hebrearrek, animalia ezpuru bezala zituzten narrastiak, eta honen ondorioz hauek Jainkoari eskaintzea edo ukitu edo jatea debekatua zuten. Koranean ere, esaterako, izaki gaiztotzat hartzen da sugea eta kultura ezberdinetako kondairen artean, badago sugeak hildako gizaki zitalenen bizkarrezurretik sortuak direla edo eta deabruak ernaldutako oilarren arrautzetatik jaiotzen direla esaten duenik



Honen aurrean, zuk nola erreakzionatuko zenuke? Arg.: Ander Izagirre.

ere. Zer esanik ez, Biblian, Adan eta Ebaren bekatuaren eragile nagusitzat ere sugea jotzen dute. Bertan, "sugea zen Jainko Jaunak egindako piztiarik maltzurrena" bezalako esaldiak irakur daitezke. Eta ez dugu ahaztu behar Bibliak indar handia izan duela eta duela oraindik ere gure gizartean.

Baina bada, aurrekoez gain, gizakia sugeak akabatzera bultzatzen duen beste arrazoirik ere. Esaterako, pozoia duten espezieek (suge gorriak kasu) gizakiarengan beldurra sortzen dute, arriskutsuak izan daitezkeelako. Hau dela eta, kalkula ezina da urtean zehar, gehienetan suge gorriekin nahastuta, akabatzen den suge kopurua. Kontuan eduki behar da, ordea, Gipuzkoan esaterako, dauden 7 suge espezieetatik, suge gorria (*Vipera seoanei*) dela pozoia duen bakarra eta beraz, gizakiarentzat arriskutsua suerta daitekeen bakarra. Zer esanik ez, suge gorriarentzako ere gizakia arriskutsua da. Zergatik uste duzue bada gizakia ikusi bezain laster alde egiten duela? Suge gorriak bere burua ihes egiteko aukerarik gabe ikusten duen kasuan bakarrik egiten du horzka. Zure burua arriskuan ikusiz gero, zuk zer egingo zenuke?

Sugeak, ordea, mito eta kondairek esandakoez gain, gure ekosistemak osatzen dituzten sare konplexu horren parte dira eta zergatik ez, gizakiarentzako ere onurak ekarri ditzakete.

Onura hauek, itxuraz, aspaldian antzeman zituzten Grezia eta Erromako zibilizazio zaharrek. Hau dela eta, sugea, maitatua eta gurtua ere izan da kultura haietan.

Eskulapioren sugea, Greziako tenpluetatik farmazietara.

Batzuentzat onerako, besteentzat txarrerako, baina sugea historiaurretik izan da naturaz gaindiko ikur unibertsala. Aurretik aipatu bezala, herri ezberdinetako erlijioek sugeak heriotzaren eramaile moduan deskribatu izan dituzten arren, Ekialde urruneko kultura batzuetan, kultura txinatarrean edo inka edo aymara bezalako kulturetan gurtuak izan dira eta dira oraindik ere sugeak. Greziarren zibilizazioa baino 2000 urte lehenago, egiptoarrek ere sugeak gurtzen zituzten eta autore batzuen arabera, hauek, egiptoarrak, izan ziren sugeak gurtzeko usadioa greziarrei esportatu zietenak. Greziarrek sugeak igarpenaren, zuhurtziaren, birsorkuntzaren eta sendakuntzaren adierazletzat jo izan dituzte. Hau izan daiteke beraz, heleniarrek sugea gurtzearen arrazoia.

Baina greziarrek sugeren batekin harreman berezia izan badute, hori Eskulapioren sugearekin (izen zientifikoa: *Zamenis longissimus*) izan da. Izan ere, Eskulapioren sugea osasunaren zaindaritzat eta sinbolotzat hartua izan da greziarren zibilizazioan eta beranduago gurtze hori erromatarren zibilizazio indartsu eta ezagunera zabaldua izan zen.

Eskulapioren sugeak bere izena Asclepio izeneko mediku greziar ospetsuari (erromatarrek "Esculapio" deitzen ziotenari) zor dio. Asclepio medikua bere heriotzaren ondoren jainkotua izan zen eta hor hasi zen beraganako miresmena. Geroztik, kultura greko-erromatarreko hainbat literatura lanetan izan zen aipatua mediku ezaguna eta bere omenezko 300 tenplu eraiki ziren (asklepioak deituak), asko gaixorik zegoen jendea zaintzeko eraikiak, ospitale moduan.



Izan ere, Asclepio (edo Esculapio) medikuaren izena beti egon da sugeekin oso erlazionaturik. Legenda batek dioenaren arabera, Asclepio medikua Glauco, bere pazientea sendatzen ari zen batean, suge bat agertu zen euren aldamenean eta Asclepiok bastoiarekin akabatu zuen. Segituan, beste suge bat azaldu zen ahoan belar batzuk zituelarik eta belar hauekin medikuak hildako sugea berpiztu zuen. Hau ikusirik, Asclepiok belar horiek erabili zituen Glauco sendatzeko. Ordutik, Asclepio, makila eta sugea oso loturik izan dira osasunaren sinbologiarekin.

Eskulapioren sugea gaur egun ere osasunarekin lotzen da. Horrenbeste legenda eta mitoen protagonista den suge hau, medikuen eta botikarien sinboloa da egun. Urrutirago joan gabe, Hernaniko farmazietan ere ikus daiteke oraindik bere irudia edalontzi baten inguruan kiribildurik.

Eskulapioren sugea Hernaniko farmazietan.

Garai batean bai, orduan farmazia-denda askotan ikusten zen farmazialarien sinboloa: Eskulapioren sugea eta katilua. Izan ere, kultura farmazeutikoa etxetik jaso dutenek, botikarekiko lotura belaunaldiz belaunaldi jaso dutenek, oso maitatua dute ikur hau. Hernaniko Chucla Cuevas farmaziaren erakusleiho paretik pasatzea baino ez dago ezaugarri hauek betetzen dituen farmazia baten aurrean gaudela konturatzeko. Mikroskopio zaharrak, alanbikeak, urteek zartaturiko botikak gordetzeko ontziak...107 urte dituen botika hau historia farmazeutikoari loturiko tresna eta ikurrez betea dago.

Horien artean, farmazialarien ikurra dago. Dendara sartzen den bezeroari harrera eginez, zutabe baten erdi erdian, metalez eginiko bi suge eta bi katilu daude, maitasun handiz jarriak, maitasun handiz zainduak. Izan ere, orain farmazia zaintzen duten bi irudiak, egungo jabearen, Maria Jose Chuclaren aitonarenak ziren. Bere aitona zenak, botikaren aurreko jabeak, ateetan helduleku moduan erabili zituen eta Maria Josek esandakoaren arabera, ateak aldatzean, bota partez, farmaziako gunerik pribilegiatuenean jartzea erabaki zuen. Izan ere, ikur horren atzean, oroitzapen eta sentimendu asko dago.

Farmazia barruan ere, gauzak ez dira asko aldatzen. Ontzi txiki eta handiak, guztiak zaharrak eta mimo handiz zainduak, botika eta ukenduak gordetzeko apal eta armairu modernoekin nahasten dira. Bertan, nola ez, Eskulapioren sugeak ere txoko berezia du. Kasu honetan, ordea, farmaziara sartzen den jendearen mugimendutik kanpo, lasaitasunean urteak daramatza bertako langileen sartu irtenak kontrolatzen, kasu batean koadro batean margoturik eta bestean txarro bat apaintzen. Garbi dago beraz, greziarren eta erromatarren artean ez ezik, hernaniar batzuen artean ere Eskulapioren sugeak izan duela lekua, ikur moduan bada ere.





Chucla Cuevas farmazian
Eskulapioren sugeak bere lekua aurkitu du.
Arg: I. Sanz-Azkue.

Erroman eta Grezian gurtua, gurean egurtua.

Herritik kanpo, ordea, Epeleko basoetan baditugu hezur eta haragizko Eskulapioren sugeak. Armarrietatik kanpo, mito, legenda, erromatar edo greziar zibilizazioei buruz sekula entzun ez dutenak. Hernaniko farmazietan euren irudiak daudela jakin gabe. Hauek, ordea, gizakiak gurtua izatetik oso urrun daude.

2008, 2009 eta 2010eko udaberrietan, maiatzetik ekainerako egunetan, hiru urteetan jarraian agertu ziren Eskulapioren sugeak akabatuta Epeleko bailaran. Data hauek oso garrantzitsuak izan ohi dira suge hauen bizi-zikloan, izan ere, udaberriaren amaieran hasten da batez ere eurentzako kumaldi garaia. Aktibitate handiko egunak izanik, hau da garai onena espezie isil eta askotan ikusteko zaila den honekin topo egiteko.

Berarekin topo egin zutenek ordea ez zuten berdin pentsatu. 2008an ar bat eta sabelean arrautzak zituen eme bat buruan bi zulo zituztela agertu ziren hilik. Ziurrenik, bikote hau baso arteko pistara eguzkia hartzea ateratzea ez zitzaion gustatu han topatu zituen pertsonari. 2010ean ere kolpe batez akabatuta agertu zen ar bat. 2009an, ordea, Epeleko Etxeberri parean, kotxe batek zanpatuta agertu zen dagoen azkeneko aipua.

Espezie iheskorra izanik, ez da ikerketa askorik egin animalia honen inguruan, baina gauza bat jakina da: espezie honentzako mehatxu nagusienetako bat gizakia da. Izan ere, suge mota honetan, arrek, 1,55 m-ko luzera har dezakete eta espezie pozoitsua ez den arren, tamaina handia edukitzea arrazoi nahikoa izan ohi da edozeinek bidean topatuz gero dudatu gabe akabatzeko.

2009an Epelen azalduriko aleetako bat. Arg.: I. Sanz-Azkue.



Eskulapioren sugea: pozoirik gabeko suge handia.

Baina nola ezberdindu dezakegu suge hau gainontzekoengandik? Ezagutu dezagun pixka bat. Zein itxura du? Nolakoa da?

Aipatu bezala, artikulu honetako protagonista, Eskulapioren sugea, tamaina handiko narrastia da. Arrek metro eta erdi pasatxoko luzera har dezakete eta emeak tamaina txikixeagokoak izan ohi dira: 1,2 m ingurukoak. Koloreari dagokiolarik, gorputzaren goialdea marroi kolorekoa izan ohi da gehienetan (oliba eta gris kolorekoa ere izan daiteke) ezkata txuri-horixkak tartekatzen direlarik. Gorputzaren behealdea, aldiz, argi kolorekoa izan ohi du, kolore berde edo horixkarekin.

Buruari dagokiolarik, nahiko berezia izan ohi du, fina eta luzea. Gorputzarekin alderatuz kolore argixeagokoa izan ohi da eta lepoaren bi aldeetara, kolore argiko bi orban izan ohi ditu.

Eskulapioren sugeak, suge guztiek bezala, mingaina behin eta berriz ateratzen du ahotik usaimen-partikulak jasotzeko. Ekintza honek eta bere tamaina handiak krudel itxura ematen dioten arren, Eskulapioren sugea ez da pozoitsua eta beraz, ez dio inori kalterik egiten. Are gehiago, arestian aipatu dugun moduan, bere presentzia onuragarria izan daiteke gizakiarentzako!

Ezin dugu ahaztu, gainera, Eskulapioren sugea Euskal Autonomi Erkidegoko espezie mehatxatuen katalogoan "interes bereziko" espezie moduan izendatua dagoela eta Europa mailan Habitat Arteztaraueko IV eranskinak babesten duela.

Gorputzaren goialdean ezkata zurixkak izan ohi ditu.
Arg.: Ander Izagirre.



Eskulapioren sugea Epeleko bailaran.

Egundaino, Hernanin, Eskulapioren sugea Epeleko bailaran izan da aurkitua soilik. Honek, ordea, ez du esan nahi bailara honetan bakarrik dagoenik. Ziurrenik espezie hau Hernaniko udalerri osoan egongo da zabaldurik. Hau dela eta, ez litzateke harritzekoa izango etorkizunean Epeletik kanpo, berarentzako baldintza egokiak betetzen dituzten Hernaniko gune ezberdinetan ere sugea aurkitzea.

Eskulapioren sugeak eguzki izpiak eta itzala nahasten diren basopeak ditu gustuko. Zirrikituz beteriko harkaitzen loraketak, zuhaitzen eta zuhaixken sustraien arteko guneak ere bere habitataren parte dira, eta zergatik ez, gizakia bizi den guneetatik gertu ere aurki daiteke Eskulapioren sugea. Hau dela eta ez da harritzekoa, Epeleko bailaran suge honen populazio bat egotea, izan ere, bailarak baldintza guzti hauek betetzen ditu.

Hau pentsatzea bakarrik, pertsona askorentzat beldurgarria den arren, Eskulapioren sugea gure baserri inguruetako belardietan edo basoetan egotea pozik egoteko seinalea baino ez litzateke izan behar. Izan ere, suge handi eta pozoirik gabeko hau, gizakiarentzat ez da arriskutsua eta bere dietan ugaztun txikiak sartzen direnez, uzta asko suntsitzen dituzten sagu eta arratoien izurriteen aurrean kontrolatzaile naturala izan daiteke, hauek jaten baititu.

Gizakia bizi den guneetan sugearen presentzia ez da zergatik arriskutsua izan behar, kontrakoa, onuragarria ere suerta daiteke beraz! Hau dela eta, dagoeneko sugeak gune urbanizatuen bioaniztasuna eta kalitatea neurtzeko erabili izan dira aurretik Europa mailan egin diren lan ezberdinetan. Herritarrei ezaugarri hauetaz ohartarazteko, ordea, sentsibilizazio eta heziketa kanpainak ezinbestekoak dira.

Epeleko bailaran hilda aurkituriko sugeak, Aranzadiko Herpetologia Sailaren bilduman daude gordeak kurtso eta dibulgazio ekintzetan erabili ahal izateko. Arg.: Aranzadi Zientzia Elkartea.





Aranzadik burutzen dituen narrastien identifikaziorako kurtso bateko irudia. Arg.: I. Sanz-Azkue

Dibulgazioa eta ingurugiro-heziketa baserri guneen bioaniztasuna babesteko.

Naturarekin erlazionaturiko beste hainbat gaiekin bezala, sugeen munduari beldurra kentzeko eta landa gunearentzako eta baserri guneentzako ekar ditzaketen onurez jendeari ohartarazteko, dibulgazio egoki baten eta ingurugiro-heziketa landu eta erakargarri baten beharra oso handia da.

Naturarekin kontaktua gero eta urriagoa den gizarte honetan, kontaktu falta horrek ez ezagutza sortzen du eta ez ezagutzak, ezezagunarekiko konfiantza eza eta ondorioz, beldurra. Eta hori da batez ere Eskulapioren sugeak gure inguruan duen arriskurik handiena: gizakiak beldurra diola. Historia, mito, legenda eta sinbolismoz beteriko espezie mehatxatu baten presentzia ezezaguna izan da egun arte Hernanin. Europa mailan mehatxatua dagoen espezie hau gure artean egotea aberatsa dela sentitzea da ingurugiro-heziketa egoki baten zeregina. Herritarrek sentimendu hori duten momentuan, espezie honen kontserbazioaren aldeko pausuak ematea errazagoa izango da.

Natura eta gazte jendea lotzen dituen katea gero eta ahulagoa den garaian, ingurugiro-heziketa da egungo gazteek, etorkizuneko hernaniarrek, Hernaniko natura ondarea babesteko pausuak emango dituztela ziurtatzeko modu bakarra. Duela urte gutxi Europa mailan eta gurean suge bat babestea ezinezkoa zela zirudien arren, egun gauzak aldatzen doazela adierazten duen adibidea da Eskulapioren sugea. Bitartean, helduei dagokie gazteak heztea eta gure fauna mehatxatua babestea, sugea izan edo ez izan, gure ondarea babesteko aurrerapen handi bat dela transmititzea.

Esker onak

Roxario Pikabeari, Epelen aurkituriko Eskulapioren sugeei buruzko aipuen berri emateagatik. Irune Arrietari munduko erlijio ezberdinen eta sugeen arteko erlazioari buruzko informazioa emateagatik eta Chucla Cuevas Farmaziako jabe eta langileei, euren "etxean" sartzen uzteagatik eta harrera onagatik.

Santa Eskea (1962-2012) ohituraren hatsa makil hotsez

Urteurreneko logoa Luis Telleriak egin du.

• *Jon Odriozola*

Hiru lagun. Bilgunea. Proposamena. Akordioa: *"Ados irtengo gara"*. Hau izan daiteke Tiburtzio *Patxi* Odriozolak, Inazio Mari Zubeldiak eta Koldo Goiak adostu zutenaren laburpena. Noiz? 1962 urte inguruan. Orduko Hernanik ez zuen egungoarekin zerikusirik. Duela mende erdi 12.000 bizilagun pasatxo zituen herriak.



Tiburtzio *Patxi* Odriozola.

Egin dezagun urteetan atzera. Herriko taberna batean hitzordua jarri ondoren, Odriozolak bi lagunei Santa Eskean irteteko talde bat osatzeko proposamena egin zien. Zubeldiak eta Goiak *"Bai"* erantzun zuten. Gerra Zibilaren (1936-1939) aurretik EGIk (Euzko Gaztedia) ateratzen zuen Santa Eskeko taldearen pausoei jarraituz, kantuan irteteko koadrila bat sortzeari ekin zioten.

Taldea osatzeko lana nola egin zen ondo gogoratzen ez badu ere, *"Patxik proposatu eta lasterrera irten ginen lehen aldiz Santa Ageda bezperan"*, esan du Zubeldiak. *"Bertsolariak aritzen diren bezala, bat-batean ekin genion"*.



1960ko hamarkadan Santa Agedako partaideak elizaren aurrean.

1962an, Joxe Mari Tomasena eta Joxe Ramon Beroitz taldeko gazteenetarikoak ziren. "*Duela 50 urte parte-hartzaileen artean adin tartea handia zen arren, koadrila polita elkartu ginen bateginik*", adierazi du Tomasenak. Beroitzek *Patxi* Odriozolaren bidez jakin zuen talde bat Santa Ageda bezperan kantuan irtengo zela. "*Biok elizako abesbatzako partaide ginenez, Patxik, Santa Agedako entseguetan parte hartzeko gonbita luzatu zidan*".

Santa Eskean, lehen urtean, Joxe Agirre *Oranda* (Azpeitia, 1929) aritu zen bertsotan. Inazio Mari Zubeldia eta Angel Osa elkarrekin joan ziren motoan Azpeitira bertsolariarekin hitz egitera. "*Uste dut Imanol Lazkanoren bitartez jarri ginela harremanetan Agirrerekin*", esan du pentsakor Zubeldiak. 1962an, Agirre, katarroaren ondorioz edo, eztarri urratuarekin etorri zen Hernanira. Beraz, bertsotan hasten zen bakoitzean, ezti koilarakada bat ematen aritu zitzaion azpeitiarrari Zubeldia botika modura. Agirrez gain, giro ederra sortzen ei zuen Andres Narbarte *Xalto* (Goizueta, 1927-1971) bertsolari ere ibili zen koadrilarekin ondorengo urteetan bertsotan. Baita Joxe Mari Ormazabal *Tturko* hernaniarra ere behin edo behin.

"Ba al gea? "

Mende erdian zehar, taldeak leku ezberdinetan egin izan ditu entseguak. Musika eskolako sotoan, kultur etxean... Baita 'Ate txikietan' ere. Hau da, San Joan Bataiatzailearen elizak Ezkiaga pasealekura ematen duen eliza-sarreran zein lehen solairuan. "*San Sebastian egunean hasten genituen, eta otsailaren 4a bitartean egunero-egunero jende dezente biltzen ginen*", gogoratzen du Joxe Ramon Beroitzek.

Lehen urteetan, arratsaldeko seiak aldera abiatu orduko, *Kaleras* auzora joan zen taldea. Alkatearen etxea aurrean –Tiburtzio Agirre– kantuan egin ondoren, Izpizua kaleko apaizetxe atarian bikarioari kantatu zioten. Ondoren kaxkora. "*Oraingoaren aldean, oso arin ematen genuen kale-buelta*", erantsi du Tomasenak. Geldialdi bakoitzean kanta pare bat kantatu, eta bertsolariak beste hainbeste bertso botatzen zituen. Eztarria bustitzeko, tabernek ardo porroiak eskaintzen zizkieten.

Eguraldi txarra ohiko bidaia-laguna da Santa Ageda bezperan. Tomasenak egun bat bereziki

du gogoan. *"Behin, denetarik egin zigun; euria, kazkabarra, elurra... Hainbeste bota zuen, aterkiak, elurraren pisuaren ondorioz tarteka arindu egin behar izaten genituela"*.

Beroitz, hasierako urtetik izan da solista. Berarekin batera Iñaki Ugalde, Julian Montero, Pako Tejedor, Joxan Esnal, Iñaxio eta Esteban Iriarte... ere aritu izan dira. Behin, bakarlari gisa ari zela, hanka sartu zuen Beroitzek. *"Ohartu orduko Inazio Mari Zubeldiak zera esan zidan: 'Konturatu al haiz bi bertsotako letrak nahastu dituala?' 'Inor konturatu al duk?' galdetu nion. Eta berak, 'Ez'. 'Ba segi dezagun aurrera!' erantsi nuen nik"*, aipatu du irribarretsu.

Bederatziak laurden gutxi alderako amaitzen zen kale-buelta, eta makilak bildu ondoren, denok batera Joxe Mari tabernara joaten ziren afaltzera. Tabernak, egungo Telemar dendan zuen jantokia. Bapo afaltzen zuten. Soldaduskara joan behar zutenei, gainontzeko guztiek ordaintzen zieten afaria. Santa Eskean biltzen ziren *xoxak*, berriz, premia zuen herriko sendiren bati ematen zizkioten. Afalostean etxera, eta biharamunean, lanera.



Jose Ramon Beroitz beste bi partaidekin 1960-1970eko hamarkadan.

Umorea, kantuak, bertsoak... Santa Eskeko ohiko osagaiak izan arren, hirurogeita hamarreko hamarkada, politikoki (salbuespen egoera) eta sozialki, ez zen batere samurra izan. Taldeak ere une ezatseginak bizi izan zituen. Beroitz pasarte batez primeran akordatzen da: *"Behin, Goiz Eguzki inguruan kantatzen ari ginela Guardia Zibila azaldu, eta Land Roverd-etatik metrailetak eskuan zituztela atera ziren. Kantatzen ari ginela ikusi, buelta eman eta ospa egin zuten"*. Koadrilak ederki hartu zuen arnas.

Kantu kontari.

Santa Eskean ateratzeak asko pozten du Beroitz. Ez dio batere lanik eman 50 urtetan zehar. Ezta Tomasenari ere. Biek bat datoz: lana gogoz egiten bada ez da lana. Kale-buelta egiten hasi orduko, lehen kantan, beti urduri aritzen omen da Beroitz. Handik aurrera, gozamena. *"Satisfazio handia da taldeak mende erdi betetzea. Usadio oso gurea da eta ez dugu galtzen utzi behar. Oraindik ere, aurrera jarraitzeko gogoa dugu"*, gaineratu du Tomasenak.



Aurtengo edizioan, Plaza Berrian, taldearen omenaldia jaso zuten Beroitzek eta Tomasenak. Hitzik gabe geratu zirela aitortzen dute: ez omen zuten inondik inora espero. Erabat hunkitu ziren. Santa Eskeko taldea anitza denez, koadrila, lagun eta herritar ezberdinen lotura hori hernaniarrontzat aberastasun handia dela azpimarratzen du Tomasenak. *"Ohituraren etorkizuna belaunaldi berrien esku dago; gu, hemendik aurrera nahi dutenerako laguntzeko prest gaude"*.

Inazio Mari Zubeldia duela 50 urte Hernaniko kaxkoko kaletatik barrena irten zen lehen koadrilako partaide izen zen. Aurten, mende erdi ondoren, berriz atera da. *"Niretzat pozgarria izan zen parte hartzea. Baita gogoangarria ere. Garai bateko kontuak etorri zitzaizkidan burura. Giro apartean, umore onean, biltzen ginen garai batean, eta aurten ere beste hainbeste izan da"*.

Urte hauetan guztietan taldean aldaketa batzuk antzeman ditu. *"Hasieran bertsolari bakar bat izaten zen. Orain, berriz, hiruzpalau. Eta hernaniarrak guztiak. Horrek asko poztu nau"*, esan du Zubeldiak. *"Garai batean euskara gutxi egiten zen herrian; orain gauzak aldatu dira. Santa Ageda bezperako taldeak ere bere ekarpena egin du bai euskara bultzatzen, eta baita usadio zahar honek zutik iraun dezan ere. Urte askoan holaxe segi dezala opa diot"*. Zubeldiak brusa eta lepoko zapi zuria prest ditu datorren urteko otsaileko Santa Ageda bezperan irteteko. Beste hainbestek bezala ez du hutsik egingo. Izan ere,

...ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz,
baina eztarriz sano gabiltza
ta kanta nahi dugu gogoz.

Kantu zaletasuna, doinua, bertsoak...

Andoni Lizeaga, Santa Agedako koadrilan 18 urterekin hasi zen (1980an). *"Beti gustatu izan zait kantuan egitea, bai Gabonetan eta bai Santa Eskean"*. Hernaniko Ohitura Zaharrak Abesbatzara hurbiltzea, ekimenez baino gehiago *Patxi*ren gonbit batengatik izan zen. *"Behin kalean topo egin, eta gonbidatu ninduen Urte Zaharreko errondarako entsegura agertzera. Pozez hartu nuen bere deia. Ikastolatik ezagutzen nuen. Egun haren amaieran lagun bati eta bioi hurrengo ekitaldia, Santa Eskea izango zela esan zigun. Horrela hasi nintzen"*.

Santa Ageda bezperako eguna gogoko du Lizeagak. Urte askotan ez da Hernanin atera izan. *"Irakasle izanik, ikastolarekin, Donostiako Ibaeta auzoan oso pozik irten arren, beti sumatzen nuen Hernanikoan sortzen den giroaren falta. Ez dakit zergatik. Bertsolariek beste 'txispa' bat ekartzen dutelako, txistularien laguntza izaten delako, elkarte gastronomiko batzuetara joaten garelako... Denak egiten du"*.

Jon Eizmendiri, bestalde, polita egiten zaio Santa Eskeko ohiturak naturarekin duen lotura: udaberriaren lehen zantzuak, belar-punttaren lehen agerpena, neguko loaldik lurra makilaz esnatzea...

Bertsolariak zenbait gauza azpimarratzen ditu Santa Ageda bezperan denen artean kantatzen diren bertsoen doinuaz eta letraz. *"Bolada luze batean Euskal Herrian santu askoren bizitzetako bertsoak idatzi izan ziren; bai puntako bertsolariek –Xenpelar...– bai beste egile anonimo askok. Izugarrizko estimazioa izaten zuten paperetan saltzen zirenean. Nork eginak ote dira Santa Ageda bezperan kantatzen ditugun bertsoak? Apaizen batek? Zergatik ez, izan daiteke. Edota apaizen batek argibideak emandako herritarren batek? Baliteke"*.

Eizmendik Santa Ageda bezperako ohitura, adibidez, bertsolari gazteentzat, herriko kaleetan barrena, bertsotan aritzeko aterabide bat bezala ikusten du. Jendaurrera jauzia egiteko modu bat. *"Gu hasi ginenean, taldean ongi hartuak izan ginen, eta guretzat pozgarria izan zen"*.

Urteak dira Iñaki Zelaia eta Joxe Luis Urdangarin bertsotan aritzen direla Santa Ageda bezperan. Beraien kalkuluen arabera 1987-88tik irteten dira Hernaniko

Ohitura Zaharrak Abesbatzak antolatzen duen Santa Eskean. *"Ikastola garaian Patxi Odriozola etortzen zen kantuak irakastera. Berak zaletasuna piztu ondoren jarraipen bat izan zen helduen taldera pasatzea. Ikastolatik irten eta 15 bat urterekin hasi ginen taldean bertsotan"*, esan du Zelaiak.

"Hasi berriak ginenez, guretzako plaza egokia zen jende aurrean trebatzen hasteko", gaineratu du Urdangarinek. Zelaiaren iritziz, bertsotan aritzeko aukera polita da Santa Eskea, eta taldean giro ona dagoenez ahal duten neurrian jarraituko dute irteten. Jon Iraolak ere antzeko ibilbidea egin du. *"14 urterekin hasi nintzen bertso eskolako kideek animatuta; orduz geroztik ia urtero irten naiz"*. Ohiturei eutsi eta ondo pasatzeko intentzioarekin irteten da Iraola.

Urdangarinentzat, Santa Ageda bezperako ekitaldia *"ohitura kuttun"* bihurtu da: *"Euskal kulturan sustraitutako usadioak mantentzeko apustuan sinesten dugu"*. Eta sortzen den giroak animatzen du parte hartzera: *"Herrian egiten diren lau errondetatik, Santa Ageda, bezperakoa, San Joanekoa, Gabonetakoa eta Urte Zaharretakoa, seguruenik, Santa Eskea, errondazaleentzat atseginena da"*. Hamaika arrazoirengatik. *"Elkarteen inplikazioagatik, ordutegiagatik, kalea gureganatzeko aukeragatik..."*.

Santa Eskean bezperan kantari irtetea ongi pasatzeko bidea da, eta horrek asko balio duela dio Jon Eizmendik. Portu auzokoak, desio bat du. *"Ea gazteak zaletzen diren, eta Hernani aldeko beste bertsolari belaunaldiek gustu bera hartzen dioten Santa Ageda bezperan kantari irteteari"*.

Eskatzea libre da...

Diktadura garaian (1939-1975), nahitaez, edozein ekitaldi aldez aurretik antolatzeko baimena eskatu behar izaten zen. Eta noski, eskariak gaztelaniaz egitea derrigorrezkoa zen. Hernaniko Ohitura Zaharrak Abesbatzak bere eskuetan duen idatzi zaharrena, 1963koa da. Hala dio urte hartako urtarrilaren 17an Tiburtzio *Patxi* Odriozolak eginiko eskariak:

"...que haciéndose eco de los deseos de un grupo de jóvenes amantes de las tradiciones del país que tratan de reavivar las sanas costumbres de nuestros mayores, proyecta honrar la festividad de Santa Agueda con la organización de un grupo de cantores que desfilarían por las calles de la localidad entonando las canciones tradicionales de tal día con fines benéficos, cuya actuación tendría lugar al anochecer del día cuatro de febrero próximo y que precisando la autorización de V.I., solicita de su autoridad la concesión del permiso correspondiente".

Alkateak, Tiburtzio Agirrek, lau egunen buruan baimena eman zion taldeari herriko kaleetan barrena kantari irteteko:

"...vistas las facultades que me concede el Excmo. Sr. Gobernador civil de la Provincia con fecha de 2 de Enero de 1957; He decidido concedérselo".

Baimena ez zen aitaren batean lortzen, izan ere, ondorengo zenbait urtetan erantzunaren orrian, tokian tokiko alkateak, zera gogorarazi zuen:

"...He decidido concederla, debiendo responder el suscribiente de la petición de que no se producirá alteración de orden público". Edo *"...haciéndole a V. responsable de cualquier alteración / incidente de orden público que se produzca"*. Taldeak baimena jasotzen zuen, baina baita erne ibiltzeko oharra ere.



Ate txikietan, 1970eko hamarkadan.



Txistulariak (Patxi Apezetxea, *Txobito*, Garbiñe Tijero eta Joseba San Sebastian) eta bertsolariak Santa Eskean atera ziren partaideekin (1980ko hamarkadan).

Eskusoinua eta txistua

Santa Eskeko koadrilak lehen urteetan, Arantzako (Nafarroa) soinujole baten doinupean egin zituen kale-bueltak. Oso iaioa zela gogoratzen du Joxe Mari Tomasenak. Ondoren, gaurdaino, txistuak hartu dio akordeoiari lekukoa. Antonio Intxausti *Txobitok* gidatzen zituen gazteekin hasieran, eta herriko txistulari bandako partaideekin ondoren.


Elkarte eta kaleetan zehar, ez da txistu hotsik falta izaten otsailaren 4an. Patxi Apezetxea txistularia ez da berria Santa Eskean. Euria, hotza eta noiz edo noiz hego haizea egin arren, ez du hutsik egiten. Erdi gaixorik, burutik beherakoarekin ere irten izan da. "*Eguraldi hezeetan, mendiko botak eta brusa beltzaren azpian beroki lodia jantzi, eta txistua jotzera!*" esan du Apezetxeak. Txistulari koadrila Garbiñe Tijero, Jesus Mari Gutierrez, Ramon Iriarte eta Joseba San Sebastianek osatzen dute. "*Santa Ageda bezperako ekitaldia, nire agendan ekitaldi finkoa da; txistulariok gustura irteten gara Santa Eskean, ohiturei eustea gustatzen baitzaigu. Hasieran, guztiok, serio samar hasten garen arren, amaitzea kosta egiten da; taldekideen artean giro ona izaten den seinale*".

Kale bueltaren une esanguratsu bat, taldeak Txantxangorri elkartean egiten duen merienda izaten da. Otordu txiki bat egin ondoren, bertsolari eta txistulariek saio berezia egiten dute. Txistulariek, adibidez, bizpahiru pieza jotzen dituzte. Bat, *Nafarroako Gorteetako martxa*, ohikoa azken urteetan. Amaitu ondoren, elkarte batetik bestera joaten dira; Txantxangorritik, Santa Barbarara.

Ibilbidean zehar Txalaparta eta Santa Barbara elkarteetan jo eta kantatzen diren bertako ereserkien berreskuratzeaz, Apezetxeak izan du zeresanik. "*Txalapartakoa nik moldatu nuen txistuarekin jotzeko, eta erdi desagertua zegoen Isidro Ansorenak idatziriko Santa Barbara elkartekoa, udal artxibategitik lortu nuen. Bazkide askok ereserkirik bazenik ere ez dakitenez Santa Eskeko taldearen laguntzaz ari gara pixkanaka biak ezagutarazten*".

Euxebio Igartzabal:

"Hernaniko Santa Agedak jende jator mordoa ezagutzeko aukera eman dit".



Herriko kaleak ez ditu batere arrotzak Euxebio Igartzabalek (Gabiria, 1944). Hernaniko tabernak zein elkarteak ondo ezagutzen ditu Santa Ageda bezperako koadrilari esker. Batean baino gehiagotan egin izan zuen bertsotan Santa Eskean. Urte haiek ez zaizkio ahaztu. Ondo gogoan ditu.

Nola izan zen zure bertsolari-lurreratzea Hernanin?

Herriko festetan egiten den errondaren eskutik hurbildu nintzen estreinakoz, Migel Arozamena bertsolaria ordezkatuz. Lesakan jaiotako bertsolariak ezin zuenez, Angel Osa, Antton Garin eta beste pertsona bat etorri ziren niregana ea Hernanin bertsotan egin nahi ote nuen galdezka. "*Bai*", erantzun nien. Lehen aldiz, San Joan bezperako errondan aritu nintzen. Gogoan dut; igandea zen. Nafarroa aldetik, Goizuetatik barrena iritsi nintzen Hernanira.

Eta ondoren Santa Ageda bezperan ere aritu zinen.

Bai. Errondan *Patxi* Odriozola ezagutu ondoren, harrez gero, otsailean ere aritu nintzen bertsotan.

Bertsoak botaz herria ezagutzeko aukera izan zenuen.
Bai. Hernani eta hernaniarrak. Adibidez, bazen Pepe Perez, *Pepe Galletera* ezizeneko pertsona bat. Jatorriz andaluziarra izan arren, euskaraz gaztelaniaz baino hobeto egiten zuen. Santa Ageda bezperan eta San Joan errondan, taldearen zain egoten zen Zinkoeneako tabernan. Beti marka oneko botila bat ardo ateratzen zigun. Eta bertsoren batean aipamenen bat eginez gero, izugarrizko malkoak ateratzen zituen. Asko hunkitzen zen. Gogoratzen dut Lizeaga auzora kantuan egitera joaten ginenean kintoa nuen lagun batekin ere topo egiten nuela.

Urteetan bakar-bakarrik aritu zinen bi ekitaldietan bertsotan.
Hala da. Gero pixkanaka Antton Garin eta Julian Ezeiza *Aterpe* bertso eta koplak kantatzera animatu zirenean, bertso-lagun izan nituen. Halako batean, zera esan nien: '*Zuek bertsotan dakizuenez zergatik ez zarete zuek aritzen?*'. Hura izan zen nire azken ekitaldia. Joxe Fermin Argiñarena ere taldean izaten zenez, bera ere bertsotan aritzen zen. Zazpi bat urte eman nituen jarraian Hernanin bertsotan.

Bertso mordoxka kantatzen zenituen. Nekatuta amaitzen al zenuen?
Bertso asko botatzen nituen baina leku jakinetan aritzen nintzen; jende kopuruaren eta taldearen inguruan sortzen zen giroaren arabera. Batzuetan indarra egin behar da bertsoa ateratzeko eta besteetan sortzen den giroak lagunduta irteten dira.

Bertsotan hasi aurretik, inguruan, izango zenuen laguntzailerik, ezta?
Bai. Herriko nondik norakoak kontatzen zizkidatenak: *Patxi* Odriozola, Antton Garin... Halere urteen poderioz, elkarte edota taberna batean egon ohi ziren pertsonak erdi ezagutzera ere iritsi nintzenez, bertsoak taldeari edo pertsonei botatzen nizkien. Eta topatzen ez nituenean ere, non ote zebiltzan galdezka aritzen nintzen bertsoak botatzeko.

Otsaila hilabete hotz eta hezea da. Euripean behin baino gehiagotan kantatua izango zara?
Bai. Guardasola ia beti lagun izaten genuen. Han aritzen ginen elkar tapatzen.

Gabiriatik Hernanira etortzeko ez da denbora askorik behar izaten. Duela 30 bat urte, dezente gehiago.
Bai. Garai hartan Tolosa eta Andoain, adibidez, herriak gurutzatuz igarotzen nituen nire Citroen Dian kotxean. Ordubeteko ibilbidea. Eta itzultzeko, gau ilunduan, beste hainbeste.

Santa Eskeko saioa amaitu ondoren, berandu samar, *Patxik* bere etxera eramaten zintuen afaltzera.
Bai. Bertso saio bat egin ondoren, etxera joan eta oheratzea bezain garrantzitsua da lagunekin batera une lasai bat igarotzea. Lehen San Joan errondan izan ezik, ondoren, beti, *Patxi*n etxean amaitzen nuen Santa Agedan kantari irtendako beste bizpahiru kiderekin batera afaltzen. Maritxu, etxekoandrea, zain izaten genuen. Afari haietako batean jakin nuen, *Patxi* Odriozolak, Tiburtzio izena zuela. Mahai inguruan, emazteak bere izenez deitu zionean, orduan izan nuen bere benetako izenaren berri, Tiburtzio. Afari ederrak egin nituen etxe hartan.

Otordua egin ondoren, habiara; lo pixka bat egin, eta lanera!
Bai. Afaldu, tertulia egin eta etxera. Eta lo apur bat egin ondoren Gabiriatik Ormaiztegira lanera.

Zer eman diozu Hernaniko Santa Ageda bezperari, eta zer eman dizu zuri?
Niri eman? Jende jator mordoa ezagutzeko aukera. Ez dakit nik zerbait eman diodan. Agian bertso giro bat sortzeko koadrila bat bultzatzea; *Aterpe*, Garin, Argiñarena... orduan hasi baitziren bertsotan.

Ur-Mia Solas Elkarteak, 50. urteurrena (1962-2012)

• *Ur-Mia Solas Elkartea*

2012ko urtarrilaren 12an Ur-Mia Solas Elkarteak 50 urte bete ditu. 50. urteurrenaren ospakizun ekintzak maiatzaren lehenengo asteburuan izan ziren, maiatzaren 5etik 7ra. Asteburu hura aprobetxatu zuen elkarteak Elkartearen historia eta gorabeherak biltzen dituen liburuxka bazkideen artean eta auzoan banatzeko. Liburuxka horren laburpena da ondorengo artikulua.

Elkartearen historia laburra

Sorrera. 1960 urte inguruan, auzoan bazen mugimendua eta elkar biltzeko gogoa. Gehienetan tabernan biltzen zen gazte eta zahar jendea, musean aritzeko, festa egiteko eta abar. Inguruko herrietan, berriz, soziedadeak sortzen ari ziren, eta bailarakoek ere bertan sortzeko aukera ikusi zuten.

Hiru lagun hasi ziren sortu nahian, eta bi saiakera behar izan omen zituzten nahiko jende biltzeko. Erdi desafio, erdi zirikatze, Luis Gorrotxategi izan zen jendea biltzen ahalegindu zena eta azkenean lortu zuen 30eko lagunen zerrenda osatzea.

Horrela kontatu digu Luis Gorrotxategik: *"Garai hartan musean aritzen ginen laxkanotarren tabernan, ta Urdanpilletari eta Urbizuri esaten nien ea zergatik ez genuen sortzen sozidade bat hemen. Haiek esan zidaten: 'Hik bilatzak jendia ta guk eingo diagu gainontzeko guztiya'. Aurreneko saiakeran ez nittun nahikuak bildu. Ordun asuntua pixka bat hoztu zitzaidan, baina handik gutxira berriz ere beroaldiya izan nun eta hasi nintzan zirikatzen. Berdin erantzun zidaten eta bigarrengo saiakeran lortu nuen behar zian 30 lagunak biltzea".*

Egoitza bazkideek *ahaldian* (auzo lanean) egin zuten. Eta 1962ko urtarrilaren 12an inauguratu zen Ur-Mia Elkartea.

Urte horretako lehenengo batzarra otsailaren 11an izan zen eta horrela azaltzen da bertan:

> *"En Ereñozu a 11 de febrero de 1962 con previa autorización del Exm. Sr. Gobernador Civil de la Provincia de Guipuzcoa, se reúne la Comisión Organizadora que ha actuado hasta la fecha, compuesta por*
>
> *D. Jose Mª Urdampilleta*
> *D. Francisco Urbizu*
> *D. Jose Luis Gorrochategui*
> *D. Basilio Biurrarena*
> *D. José Legarreta*
> *y los futuros Socios de la Sociedad Ur-Mia".*

Hasieran boskote hau izan zen gestio guztiak egin zituena, eta lehenengo batzar honetatik atera zen honako lehenengo zuzendaritza: Lehendakaria, Jose Mª Urdanpilleta Otegi; idazkaria, Jose Legarreta Domingo; diruzaina, Jose Etxeberria Huizi; eta bokalak, Santiago Gorrotxategi Artola eta Esteban Izagirre Oiarbide. Urtarrilaren 12rako elkarte bezala hasia zen funtzionamenduan, baina ez zegoen dena egina. Oraindik lanak bazeuden egiteko eta horretarako dirua ere behar zen. Lehenengo bazkide izandakoak kontatu digutenez bakoitzak 30 duro (150 pzta) jarri zituzten, baina lehenengo aktan esaten denaren arabera, diru gehiago behar zen maiatzaren 6an egin behar zen festarako. Maiatzaren 6a hartu zen irekierako festa eguna bezala.

> *"El nuevo Presidente habla a los reunidos sobre el particular, manifestándoles que se necesitan 75.000 pesetas, y la forma para el logro de las mismas, si hubiera algunos Socios que quisieran adelantar dicho dinero, o por el contrario hacer gestiones acerca de alguna Entidad bancaria para obtener dicho Préstamo. Los socios D. Miguel Urdampilleta Otegui, D. Santiago Gorrochategui Artola y D. Vicente Oyarbide Beldarrain se prestan para adelantar dicho Capital a razón de 25.000 pesetas cada uno, condicionando la devolución de dicho capital en cinco años, teniendo en cuenta las posibilidades que puede tener la Sociedad y que les abone los intereses que la Junta crea convenientes. Se acepta lo propuesto de pleno y los citados Sres. hacen entrega de las referidas pesetas".*

Bazkide kopurua ere erabaki zen batzar honetan, eta 35 laguneko maximoa erabaki zen. 1962ko maiatzaren 6an egin zen irekiera festa, meza ondoren bazkaria eginez. Maiatzeko lehenengo asteburua hartu zen hemendik aurrera elkartearen egun bezala. Hasieran bazkaria igandez egiten zen, baina gero larunbat gauera pasatu zen.

1962ko maiatzaren 6ko irekiera festa ospatu zen.



Elkartearen izena. Bailara Urumea izenarekin ezagutzen zen orduan eta errekaren ingurua izan da auzoaren bizitza historian zehar. Bere inguruan sortutako auzoa da; burdinolen garaitik gure baserriak eta gaur eguneko fabrikak ere bere erriberetan edo bazterretan kokatu dira. Horregatik dugu bertako jendeak hainbesteko lotura errekarekin. Inguruko herrietan errekakoak bezala ezagutzen gaituzte.

Urumea izenak *ur mehea* esan nahi omen du, hala esan digute bertako bazkide zaharrenek. Luis Gorrotxategi, Juanito Sarobe, Jose Luis Beasain (*barberua*) eta Florian Oiarbiderekin izandako elkarrizketan honela adierazi zuten: *"Guk mehea 'mia' esaten deu, horregatik jarri geniyon Ur-Mia izena. Joxe Legarretak (Pepitok) egin zun izenaren proposamena, ta bestioi ondo iruditu zitzaigun"*.

Egoitza. Sortu zenetik, elkarteko egoitza nagusia Ereñotzu, 17 etxeko behea da. Etxea eraiki zenean, behean lau lokal zeuden. Elkartea sortzerako garaian, zeuden hiru lokal libreak erosi ziren. Bazkideek lurrak atera, egokitze eta gainerako lanak egin zituzten. Geroago, atzeko lurra erosi zen, eta bertan terraza modukoa jartzeaz gain, erretegia ere egin zen. Lur hori Juana Otegiri erosi zitzaion eta 10.200 pzta ordaindu ziren. 1972an, berriz, Ereñotzu, 18 etxeko lokala erosi zen: elkartean almazen moduan erabiltzeko lekua falta zen eta baita kirol materiala gordetzeko ere. Hala erabaki zen 1973ko apirilaren 9an egin zen Batzorde Orokorrean, Jose Oiarbide Beldarrain Lehendakaria zela. Azkeneko erosketa, Ereñotzu, 17 eta Ereñotzu, 18 etxeen artean zegoen lur zatikoa izan zen. Gaur egun aparkaleku moduan erabiltzen dena.



Ur-Mia Solas Elkarteko sarrera gaur.


Egoitzako atzeko terraza eta jangela.



Egoitza nagusian hainbat moldaketa egin dira. Hasiera batean egoitza era desberdinean zegoen antolatua. Hasteko, sarrera Ereñotzu, 17ko portaletik zuen, eta eskailera batzuk jaitsi behar ziren. Sukaldea, berriz, orain aldean, txikiagoa zen eta barraren eskuinean zegoen. Gaur egun sukaldea den horren azpian zulo bat zegoen biltegi bezala erabiltzen zena. Denbora pasa ahala, elkartea egokituz joan da, gaur egun erakusten duen antolaketa 80ko hamarkadan egin zen. 1984an sarrera berria jarri zen, portaletik beharrean lehen bolatokia zenetik egin zen. Sukaldea ere handitu egin zen eta barraren atzean jarri. Handik aurrera egin diren moldaketak txikiak izan dira: kanpoko terraza txukundu, parrilla tokia egin, komuna konpondu eta egokitu, kalefakzioa jarri,... Zuzendaritza guztiak elkartea eguneratzen saiatu dira beti.

Bazkideak. 1962ko urtarrilean Ur-Mia Elkartea 31 bazkiderekin eta ohorezko bazkide batekin osatu zen. Urte hartako batzarrean ere bazkide kopurua 35ean jarri zen. Hona hemen garai hartako bazkide guztiak:



Elkarteko bazkideak (2012. urteko argazkia).

BAZKIDE SORTZAILEAK 1962

Andres Aranburu Perurena
Juan Beasain Lekuona
Basilio Biurrarena Otxotorena
Inaxio Biurrarena Otxotorena
Esteban Elorza Aranburu
Joxe Etxeberria Huizi
Blas Etxeberria Santa Kruz
Patxi Goikoetxea Elizalde
Jose Mª Goñi Pagola
Xanti Gorrotxategi Artola
Luis Gorrotxategi Artola
Bixente Gorrotxategi Lizeaga
Joxe Legarreta Domingo
Luis Legarreta Domingo
Joxe Mª Miner Oiarzabal
Joakin Prieto Sampeiro
Bixente Oiarbide Beldarrain
Joxe Oiarbide Beldarrain
Manuel Oiarbide Elorza
Antonio Oiarbide Elorza
Bittoriano Oskoz Iturria
Rosario Salaberria Zubiri
Esteban Izagirre Oiarbide
Batista Santa Kruz Otxotorena
Juanito Sarobe Aranburu
Martin Telletxea Etxeberria
Angel Ugalde Altuna
Patxi Urbizu Bereau
Jose Mª Urdanpilleta Otegi
Miguel Urdanpilleta Otegi
Anastasio Zabala Juanikorena

OHOREZKO BAZIDEA

Juan San Idelfonso Apalategi

Bazkideen kopurua 1979an aldatu zen. Urte hartako apirilaren 1ean egin zen Batzar Orokorrean kopurua 40raino igotzea onartu zen. Bazkide kopurua beharren arabera aldatuz joan da: 80ko hamarkadan kopurua 50era pasa zen, eta gaur egun ez dago kopurua ezarria.

Aurretik azaldu den bezala, gaur egun, bazkideen kopurua ez dago ezarria, baina bazkide izateko ezaugarri batzuk badira. Alde batetik, adin nagusikoak behar dute izan, eta gainera beti izaten da kontuan auzoarekin duen lotura: auzoan bertan jaioa edo bizi dena izatea komenigarria jotzen du gure elkarteak, auzoaren egunerokotasunean eragina izatea baita helburuetako bat. Bestalde, eskubide osoa duten bazkidez gain, beti izan dira ohorezko bazkideak. Gaur egun 65 urte betetzen dituen bazkidea ohorezkoa izatera pasatzen da, hau da, elkartearen egoitza erabili dezake eta bertako giltza mantendu, eskubide batzuk galtzen baditu ere, adibidez batzarretan bozkatzeko eskubidea. Ohorezko bazkide egiten denak bere ordez beste norbait sartu dezake bazkide moduan. Hasieran familiakoa izan behar zuen, baina gaur egun ez da hori derrigorrezkoa, gehienetan horrela izaten den arren. 2012ko apirilean Ur-Mia Elkarteak 55 bazkide ditu eta ohorezkoak berriz 14 dira.

Elkartea eta emakumeak. Ur-Mia sortu zen egun beretik emakumeek bertara sartu ahal izan dute. Hasiera batean sortzaileen artean hitz egindako gaia izan zen hau. Bazkide moduan ezin zuten elkarteko kide izan hasieran, baina gonbidatu moduan sarrera inoiz ez zitzaien ukatu. Eztabaida horren inguruan, Juan Sarobek kontatu digunez, kontuan izan behar da auzoa zer zen garai hartan. Ereñotzuko emakumeek ez zituzten aukera asko beren denbora librea betetzeko. Aukera bakarrenetako bat mendira irteeratxoren bat egitea zen. Horregatik erabaki zen emakumeei ez galaraztea sarrera. Gainera, sortzaile gehienak ezkonduak ziren, eta zergatik ez ziren ba beren emaztearekin elkartera joango otorduak egitera eta abarrak? Inauguratu zen egunean bertan sartu ziren emakumeak elkartera, eta proba moduan orduko argazki ofizialak ditugu. Egun horretatik aurrera, emakumeek beren presentzia izan dute gure elkartean. Batetik beharrezkoak izan dira antolatu diren herri bazkari, afari eta abarrekotan antolatzeko garaian, beti hor izan dira sukaldari lanetan. Garbitzaileak ere izan ditu elkarteak eta hauek ere emakumeak izan dira.

Urte zaharretako jaiak eta gainerakoak, familia artekoak izaten ziren, eta familia osoa hurbiltzen zen elkartera, gurasoak, seme-alabak,... Eta baita beste ekintzetan ere, Santa Ageda bezperako Santa Eskean esate batera. Emakumeei bazkide izateko aukera 2000. urtean iritsi zitzaien. Aurretik egia esanda, ez zen inongo eskaririk izan. Garai aldaketa kontuan izanda, eta bertako estatutuak inongo desberdintasunik ez zutela azaltzen ikusirik, 2000ko apirilaren 2an ospatu zen batzarrean, lehenengo aldiz proposatu eta aho batez onartu ziren emakumeak bazkide moduan. Lehenengo bi emakume bazkideak Ixiar Miner eta Igotz Zerain izan ziren. Ordutik aurrera emakume gehiago bazkide egin dira, eta gaur egun bost dira emakumezkoak gure bazkide zerrendan.



Hiru emakume elkarteko sukaldean.

Zuzendaritzak eta Lehendakariak. Ur-Mia Solas Elkarteko estatutuek sortu zenez geroztik azaltzen duten bezala, Elkarteko organo gorena Batzar Orokorra da. Bera da jarduera-plan orokorrak onartzen dituena, eta apirilean egin ohi du bere bilkura. Beregain daude baita ere urteko diru kontuak onartzea, estatutuak aldatzea eta baita ere kudeaketa organoa duen Zuzendaritza Batzordea onartzea ere, aginte-aldiko Lehendakaria eta gainontzeko karguak erabaki eta izendatuz. Hasieran aldaketa hauek urtero proposatzen ziren, baina gerora bi urtetako aginte-aldiak onartu ziren. Aukeraketa aurkezten ziren hautagaien artean egiten zen eta askotan gertatu da Zuzendaritza Batzordea bi urtez baino gehiagotan luzatzea inongo aldaketarik gabe. Denboraren poderioz, gero eta hautagai gutxiago azaltzen zirenez, bazkidetza lau taldetan banatu zen eta 1998ko apirilaren 5eko Batzar Orokorrean taldeak eratu ziren. Orduz geroztik, talde bakoitzak osatzen du kudeaketarako Zuzendaritza Batzordea, eta beraien artean izendatzen dira karguak. Zuzendaritza bakoitzak bi urtez egiten du lan, eta txandaka-txandaka talde guztiak hartzen dute parte kudeaketa lanetan.

UR-MIA SOLAS ELKARTEKO LEHENDAKARIAK

Joxe Mª Urdanpilleta Otegi (1962 / 1969)

Joxe Legarreta Domingo (1963-1964 / 1975-1978 / 1983-1985)

Joxe Mª Miner Oiartzabal (1965)

Joxe Oiarbide Beldarrain (1966 / 1970-1974)

Rosario Salaberria Zubiri (1967-1968)

Daniel Zerain Miner (1979-1980)

Antonio Miner Oiarzabal (1981-1982)

Joxe Zerain Miner (1986-1988)

Juan Sarobe Aranburu (1989-1994 / 1998-1999)

Tomas Solano Aranburu (1995-1997 / 2000-2001)

Joxe Manuel Huizi Larrea (2002-2003)

Inaxio Estarloa Irazusta (2004-2005)

Leandro Miner Oiarzabal (2006-2007)

Ibon Miner Santa Kruz (2008-2009)

Julian Urkiola Borda (2010-2011)

Inaxio Ansa Huizi (2012)

Elkartea eta auzoa.

Sortu zenez geroztik, beti izan du Elkarteak helburu nagusi bezala, auzoko bilgune izatea eta bailaran egiten diren ekitaldi kultural eta herrikoietan parte zuzena hartzea. Beti ere gure herriko ohiturei lotua izan da eta hori aprobetxatuz auzoa bizirik mantentzeko helburua ere izan du. Horren adibidea da 1965ean sortu eta gaur arte jarraitu duen Santa Ageda bezperako taldeak. Auzoko jaiak ere beti izan ditu kontuan Elkarteak. Auzoko jai nagusiak diren San Antoniotan beti hartu du parte, bai antolatu diren ekitaldietarako bere egoitza utziaz eta baita ekitaldiak antolatzen ere, sagardo probaketa eta bola eta toka txapelketak esaterako. Luixtarretan ere antolatu ohi zituen ekintza desberdinak ere eta gaur egungo Udazken Kulturalean ere bertso afaria prestatzen ere egiten du lana.

Santa Ageda – Santa Eskea. Santa Eskerako taldea 1965ean atera zen lehenengo aldiz bailira guztitik barrena. Santa Agedako ohitura ekarri behar zela auzora eta, horretan hasi ziren lanean Elkarteko kide batzuk. Ur-Mia zen garai hartan auzoko bilgune nagusia eta euskal kultura zabaltzeko gunea ere bai. Taldea osatzeko Hernanitik Tiburtzio Odriozola *Patxi* etorri zen eta berak erakutsi zituen Santa Agedako koplak eta abesteko modua ere. Makilak nola kolpatu, erritmoa, bakarlariak eta abarren azalpenak berak eman zituen.



Santa Eskerako taldea 1965ean atera zen lehenengo aldiz.

Ordutik aurrera, urtero-urtero atera ohi da taldea bailara guztian barrena. Aipatu daiteken aldaketa bakarra emakumeena da. Hasieran, garaiak horrela eskatzen zuelako, gizonezkoak bakarrik ateratzen ziren, baina gerora emakumeak ere hasi ziren ateratzen. Beti ere garaien aldaketek ekartzen duten normaltasunean. Ibilbideari buruz berriz, beti mantendu da bailara guztian barrena kantatzeko ohitura. Lehenengo urteetan *Askatsun* hasi eta Latxetik Lastaolara joaten zen, eta handik Epele eta Fagollagatik pasa ondoren Ereñotzura bueltatzen zen eta Ur-Mian egiten zen afaria. Gaur egun, Pagoagan hasten da eta sailean pasatzen dira Fagollagaraino, eta handik joaten da Lastaolara eta Epele guztia pasa ondoren, Larre-gainera igotzen da taldea, bertan azken saioa egin eta sagardotegian afaltzera. Taldean behar beharrezkoak izan dira beti koplariak, trikitilari eta soinujoleak, eta bakarlaria. Hainbat izan dira kopla kantatzen eta beti saiatu izan da Elkartekoak edo auzokoak izatea: esaterako Ramon Huizi Enazti, Florian Oiarbide, Aritz Zerain besteak beste. Kanpotik etorritako koplariak dira baita ere: Argiñarena, Anatx edo Unai Agirre esaterako. Taldea zuzentzen duen bakarlari lanetan aipatu behar dira *Patxi* Odriozola, Florian Oiarbide, Joxe Legarreta eta Iñaki Santa Kruz.

Taldean elkartekideak bakarrik ez dira ateratzen direnak. Beti izan da parte hartze irekia eta horri esker mantendu da ohitura hau auzoan, eta auzotar guztiak izaten dira egun horretan taldearen *bixita*ren zain.

Santa Ageda, 2012. urtean: elurretan.



Auzoko jaiak, *San Antonioak*. San Antonio jaiak dira auzoko jai nagusiak eta beti izan dira auzotarrak biltzeko aukera aparta.

Horrelako egun bereziak izanik auzoarentzat, Ur-Miak ere behar-beharrezkoa ikusi du beti hauetan parte-hartzea. Parte hartze zuzena izan ohi du ekitaldi batzuetan, gaur egun ohikoak bihurtu direnak antolatuz. Bi ekitaldi dira urtero-urtero Elkarteak antolatzen dituenak eta jaietako egitarauan azaltzen direnak: sagardo probaketa igandez eta egun berean Bola eta Toka tiraldiak.

Halere, gure adinekoek oroitzen duten bezala, auzoarekin batera karroza bat egin zen 1965ean, eta bertako jaietan eta San Joanetan atera zen. Auzotar askok hartu zuen parte eta bertsoak ere idatzi ziren kantuz ateratzeko. Bertso horietan baserritarren bizimodua azaltzen zen eta auzotarrak harro sentitzen ziren baserritar bizimoduarekin, gogorra izan arren haien bizitza. Hemen hiru bertso:

1965. urtean Ur-Mia Elkarteak ateratako karroza.



(1) *Baserrian jaio eta*
bertan gara bizi.
Errira etorri gera
menditik igesi.
Ereñozuar guztiyoi
agur lendabizi.
Gure oitura onak
beñere ez utzi.

(2) *Jaiak igarotzeko*
gera etorriyak.
Zueri erakutziya
mendiko berriyak.
Goyen utzi ditugu
bior eta ardiyak.
Zaintzen lanik ez degu
zekor eta txerriyak

(3) *Gure bizi modun*
da arrigarriya.
Goizetik arratsera
lan izugarriya.
Oso asko eginda
bestentzat erdiya.
Orra nola joatendan
gure izerdiya.

San Antoniotan ohikoa zen herri bazkaria egitea; eta urte haietan Ur-Mia izan zen auzotarren bilgunea, bertan egiten zen bazkaria.

Jaien egitaraua aldatzen joan da, eta ekitaldiak ere aldatzen joan dira. Gaur egun, aurretik esan den bezala, bi dira antolatzen dituen ekitaldiak. Biak jaietako igandean izaten dira.

Sagardo probaketa. Hasieran, Ur-Mia Elkarteak atzean duen terrazan egiten zen, baina badira urte batzuk auzoko plazan egiten dela. Bertan Elkarteak inguruko 7 sagardotegien sagardoak jartzen ditu dastatzeko, eta laguntzeko txorizo pintxoak.

Bola eta Toka tiraldiak. Jaietan San Antonio Txapelketako tiraldia egiten da. Lehen, elkarteko atarian zegoen bola-tokian egiten zen goiz eta arratsaldez. Gaur egun, auzoko bola-toki berrian botatzen da goizez. Bolarekin batera Toka Txapelketa ere jokatzen da.



San Antoniotako sagardo probaketa.

Aipagarria da, auzoko tabernak itxiz joan diren heinean, San Antonio egunean eta jaietako igandean hamaiketakoa egiten dela elkartean. Auzora jaiak ospatu nahian datozen guztiak tripa goxatu dezaten.

Luixtarrak - **Udazken Kulturala.** Auzoa txikia izan arren, bertakoek izan dute urtean zehar ekitaldiak antolatzeko gogoa. Garai batean *Luixtarretan* biltzen ziren bailarako gazteak eta festa ugari antolatzen ziren. Meza, bazkaria eta herri kirolak izaten ziren ekitaldi nagusienak. Jai haietan ere beti izaten ziren bertsolariak eta soinujoleak.



1960ko hamarkadan Luixtarren Festak ospatzen ziren; orduan herri kirolak izaten ziren ekitaldi nagusietako bat.

Ur-Mia sortu eta gero, bilgune ederra topatu zuen auzoak eta bere inguruan antolatzen ziren jaiak. Luixtarrek etenaldi bat izan zuten eta 80ko hamarkadan hasi ziren berriro ere *Gazteriaren Festak* antolatzen. Orduan ere Ur-Mia izaten zen herri afarien tokia. Jai hauek Aste Kultural bilakatuz joan ziren, eta gaur egun *Udazken Kulturala* gisa antolatzen dira auzoan.

Udazken Kulturalean urtero bertso afaria antolatzen dute Ur-Miak eta auzoko kultur taldeak elkarlanean. Afari hauetan izen handiko eta gaurkotasun handiko bertsolariak izaten ditugu. Esan daiteke inguruko bertsolariez gain txapeldun guztiak etortzen direla.



Udazken Kulturaleko bertso afaria.

Bertsolariak.

Urumea bailaran betidanik izan da bertso zaletasuna. Bertako bertsolari batzuk, ingurutik kanpora ere izan dute sona. Izen hauek beti azaltzen dira bertsolaritzari buruz hitz egiten denean, adibidez *Txabolategi*, *Txirrita* eta *Hernani Txiki*. Bertakoak bakarrik ez dira hemen arititakoak, bertso plaza handitzat hartu daiteke Ereñotzu eta bertsolari handienak beti nahi izan dute bertan kantatu. San Antonio jaietako igandean beti izan ohi dute protagonismoa bertsolariek.

Hori horrela, Ur-Mia Elkarteak ere beti mantendu du bertso zaletasun hori, eta bere jai nagusietan ez dira inoiz falta izan. Hasieratik erakutsi du Elkarteak euskal kulturarekin lotura eta maitasuna.

1963ko urriaren 10ean Joxe Manuel Lujanbio *Txirrita* bertsolariari omenaldia egin zitzaion eta bere jaiolekuan monumentu oroigarri bat jarri zen. Bertan irakurri daiteke nork egina den: *UR-MIAKUAK*.

Elkartean bertan egun hura gogoratzen duen argazkiak horrela dio:

"Dagonila'ren 14'an 1860 garen urtean, jaio zan gure "TXIŔITA" bersolari trebea eta ospatsua izan zana, gure Euskaleŕi agurgaŕi onetan. Jaunak beregana tu zun garagaŕila'ren 3'an 1936 gaŕen urtean.

Gaurko egunez beregan oroiturik, uŕila'ren 20'an 1963 gaŕen urtean, egin diogu omen aldia. Bera jaio zan toki onetan, oraindik ikusten dan bezela oŕma puska bat zutikan beraren onduan."



1963ko urriaren 10ean Joxe Manuel Lujanbio Txirrita bertsolariari omenez bere jaiolekuan monumentu oroigarri bat jarri zen.

Monumentuaren harriak Urumea aldeko Ugaldetxo-Pikoagan atera ziren eta Anastasio Zabala harginak eraiki zuen denen laguntzaz. Bedeinkapena Juan San Ildefonsok, bertako apaizak eman zuen eta bertan izan ziren *Uztapide, Basarri, Lazkao Txiki, Arozamena* eta *Hernani Txiki*. Hitzaldia berriz Juan Mª Lekuonak eman zuen. Egun hartan bazkidea zen Bautista Santa Kruzek honako bertsoa bota zion Txirritari:

Gure Txirrita Lujanbio zan Joxe Manuel izena,
jeniyoz oso noblia eta bertsolariya zuzena.
Noiz eta segi egun guztiyan beñere aspertzen etzana,
sekulan etzan aitu izandu onek zuen almazena,
Jaun zerukoak ez luke il biar sekula olako gizona.

1975eko maiatzaren 4an Elkarteak *Uztapide*ri omenaldia egin zion. Egun aparta eta berebizikoa izan zen Elkartearentzat zein auzoarentzat. Garai hartan goi mailan aritzen ziren bertsolariak gerturatu zitzaizkigun: Xalbador, Mattin, Koxme Lizaso, Mitxelena, Azpillaga, Lopategi, Joxe Lizaso eta Lasarte, denen buru Joxe Mari Aranalde gai jartzaile gisa.

1978ko maiatzaren 7an Pablo Zubiarrain *Hernani Txikia* bertsolariaren txanda izan zen omenaldi kontuetan. Auzoko bertsolari izanik, jaialdi bikaina burutu zen bere omenez.

Pablo Zubiarraini eginiko omenaldiaren irudia.



1975eko maiatzaren 4an Ur-Mia Elkarteak Uztapideri omenaldia egin zion.
Arg.: J.M. Gómez (Hernaniko Udal Artxiboa)



Bestelako omenduak.

Bertsolariak bakarrik ez dira izan omendutakoak. Gure bailaran garrantzia izan duten lagun eta adiskideei ere egin izan zaizkie omenaldiak. Badira zenbait.

Hasteko, Tarragona soinujole maitatu eta nekaezinari egin zitzaion omenaldia 1973ko San Antoniotan, bera izan baitzen hogeita hamabi urtetan bertako jai eta ospakizunetan aritua, festa jarriz. Elkartearen ereserkia berak konposatu zuen.

1978an, Txabolako Patxi Oiartzabal artzainaren txanda izan zen. Oñatin ospatzen den Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa irabazi zuelako *"Nabarro"* txakurra lagun zuela.

1987an 25. urteurrenean Joxe Legarreta izan zen omendua, sortzaile izan eta hogeita bat urtez zuzendaritzan jarduteagatik, berari esker ona agertzeko Elkartean barruan Euskal Herriko maparen irudia duen oroigarria ipini zen. Horretaz gain, Agiña mendian zuhaitz baten irudikapena duen buzoia ere bere omenetan jarri zen.

1990eko maiatzaren 6an ere bazkide izandako Joanito Txilibita izan zen gogoan. Aurreko urtean Irunen eraila. Ihes egin aurretik bertako Toka eta Bola Taldeko kide nabarmena izan zen. Omenaldi egunean antolatu ziren ekintza desberdinen artean marmolezko plaka bat jarri zen Elkartean.

Ur-Mia Elkarteak zuzenean antolatutakoak dira lehen aipatu ditugunak, baina auzoan antolatutako hainbat omenalditan ere parte hartze nabarmena izan du.



Tarragona



Joanito Txilibitari omenaldiaren irudia.



Patxi Oiartzabal

Bola eta Toka.

Ur-Miako bolari eta tokalari Taldea. Ur-Miako bolari eta tokalari Taldearen ibilbidea 1971ean abiatu zen, ibilbide oparo eta bikaina eskaini duelarik eta gaur egun ere hala segitzen du. Badira aparteko merezimenduen zenbait aipamen egin beharra.

Gipuzkoa mailako Bola eta Toka Eguna dugu horietako bat, 1978ko abenduaren 8an ospatutakoa, oihartzun handia izan zuena. Egun berezi hau, Herrialdeko Bola eta Toka Federakuntzarekin batera Ur-Mia Elkarteak antolatu zuen eta horrek Ur-Miari ospe handia ekarri zion, izan ere, Federazioko Sari Handia jaso zuen, Elkarteak arlo honetan burututako itzelezko lanagatik, zuen zalegoagatik, eta seriotasunagatik. Tiraldietan, 88 lagunek hartu zuten parte Bolan eta 41 lagunek Tokan. Bazkaltzera inguratu zirenak ere ez ziren gutxi izan, 150 bazkaltiar elkartu baitziren.

2005eko ekainaren 4an, Euskadiko Bola eta Toka Txapelketa antolatu zuen Ur-Miak. Bertara Euskal Herriko txoko askotatik etorritako bolari eta tokalari mordoxka bildu zen. Txapelak kanpora joan ziren, bolan Xeferino Agirrek jantzi zuen eta tokan berriz Amondarainek. Etxeko bolari eta tokalariek ere postu txukunak egin zituzten. Bazkarira, jende andana inguratu zen ehun bat lagun bilduz.

2009ko abenduaren 8an Ur-Mia Elkarteko Bola eta Toka Taldeak Gipuzkoako Bola Eguna antolatu zuen Ereñotzun. Egun horretan Ibon Miner gure bazkideak Gipuzkoako Kopa eta Erregularitate Txapelketa eta Bolari Onenaren Saria jaso zituen.

Aldi berean, bazkide franko izan dira omenduak bolari izateagatik, hala nola, Joxe Oiarbide eta Agustin Oiartzabal (1972), Patxi Peruarena (1973), Fermin Marko eta Esteban Izagirre (1978), Joxe Luis Miner, Blas Etxeberria eta Xanti Gorrotxategi (1984), Joxe Mari Miner (2005) eta Antonio Miner (2009).

Gaur egun Ur-Mia Elkarteak ofizialki Bola eta Toka Kirol Elkartea sortua du, legeria berriak konpetizioetan parte hartu ahal izateko hala eskatzen duelako.

Gure bolari eta tokalariek Elkartearen izena oso goian ipini dute. Hona hemen horren seinale:



1960ko hamarkadako bolari eta tokalariak.

Urtea	Txapelketa	Taldekidea	Postua
1972	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Joanito Oiarbide	1
1973	Erregularitate Txapelketa	Antonio Miner	1
1974	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Pello Santa Kruz	1
1975	III. Nazioarteko Toka Txapelketa Taldeka	Joanito Marko, Pedro Oiarbide, Leandro Miner	1
1976	Gipuzkoako Txapelketa	Antonio Miner	1
1980	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1983	Lehendakari Txapelketa	Antonio Miner	1
1986	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Joseba Gorrotxategi	1
1987	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Xabier Huizi	1
1989	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Ibon Miner	2
1991	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Ibon Miner	2
1992	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1992	Gipuzkoako Jubenil Txapelketa	Ibon Miner	2
1992	Gipuzkoako Beterano Txapelketa	Xanti Gorrotxategi	2
1993	Gipuzkoako Bikoteka Txapelketa	A. Miner eta I. Miner	1
1993	Gipuzkoako Txapelketa	Antonio Miner	1
1993	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1994	Lehendakari Txapelketa	Antonio Miner	1
1994	Goierriko Txapelketa	Antonio Miner	1
1994	Irungo Txapelketa	Antonio Miner	1
1994	Gipuzkoako Infantil Txapelketa	Iñaki Miner	3
1994	Errekorra 6 boletan 40 brila	Ibon Miner	
1995	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1996	Erregularitate Txapelketa	Antonio Miner	1
1996	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1998	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1998	VI Memorial Juan Joxe Ugarteburu	Ibon Miner	1
1999	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
1999	Memorial Endika Alustiza	Ibon Miner	1
1999	Gipuzkoako Gazte Txapelketa	Mikel Otegi	2
1999	Gipuzkoako Gazte Txapelketa	Arnaitz Lasarte	3
1999	Gipuzkoako Gazte Txapelketa	Josu Artola	4
2000	Jose Antonio Iturbe Memoriala	Antonio Miner	1
2002	Hernaniko Txapelketa	Ibon Miner	1
2003	Lehendakari Txapelketa	Antonio Miner	1
2003	Bolari Onena	Antonio Miner	
2004	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2005	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2005	Beterano Txapelketa	Antonio Miner	2
2006	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2006	III Memorial Egaña Garcia	Antonio Miner	1
2006	Bikotekako Txapelketa	A. Miner eta I. Miner	2
2008	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2009	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2009	Gipuzkoako Kopa	Ibon Miner	1
2009	Erregularitate Txapelketa	Ibon Miner	1
2009	Bolari Onena	Ibon Miner	
2010	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1
2011	Hernaniko Txapelketa	Antonio Miner	1

UR-MIA SOLAS ELKARTEKO EFEMERIDEAK

- **1962ko maiatzaren 6**a. Lehenengo elkartearen eguna. Bazkaria
- **1965**ean Santa Ageda bezperan eskean atera zen.
- 1967an telefonoa jarri zen elkartean. Aurretik auzoan bi bakarrik zeuden.
- **1968**an atzeko terrenoa erosi zen, Juana Otegiri 10.200 pzta ordaindu zitzaizkion.
- **1971eko apirilaren 4**ko Batzar Orokorrean, Kiroletako arduraduna eta botileroaren figurak sortu ziren.
- **1972**an Kabi-Txiki (Ereñotzu, 18) etxeko lokala erosi zen.
- 1974an lehenengo aldiz sortzaileen artean, jubilatu zirelako, Ohorezko Bazkideak izendatu ziren: Vicente Oiarbide, Juan Beasain eta Anastasio Zabala.
- 1975ean Uztapide bertsolaria omendu zen maiatzaren 4an.
- 1977an Ikurrina egiteko Dolox Minerri enkargatu zitzaion eta urte hartatik aurrera auzoko festa eta Elkarteko jaietan erabiliko zela erabaki zen.
- 1978an Hernani Txikia bertsolaria omendu zen maiatzeko Elkarteko bazkarian.
- **1979**an bazkide kopurua 40ra igo zen.
- 1980an 60 urtekoak ere Ohorezko Bazkide izendatzea erabaki zen.
- **1985**ean sukalde berria eta sarrera berria egin ziren.
- **1987**an Ur-Mia elkartearen **25. urteurrena** ospatu zen. Elkartearen bandera egin zen eta ordutik aurrera festa eta jai guztietan ikurrinarekin batera jartzen da zintzilik.
- 1991an lehenengo aldiz akta euskaraz idatzi zen.
- 1998an Zuzendaritza aukeratzeko era aldatu egiten da. Hemendik aurrera bazkideak zerrendaren arabera lau taldetan banatzen dira, eta talde bakoitzak bi urtetako agintaldia beteko du.
- 2006an Euskadiko Bola eta Toka Txapelketa antolatu zuen Elkarteak.
- 2011an Bola eta Toka Kirol Elkartea erregistratu zen Ur-Mia Solas Elkartearen barruan.
- **2012**ko urtarrilaren 15ean 50. urteurreneko lehenengo ekintzak izan ziren. Meza eta herri hamaiketakoa. Luis Gorrotxategiri eta Juan Saroberi oroigarri bat eman zitzaien, sortzaile eta bazkide direlako.

25. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK (1987-05-03)

Ur-Mia Solas Elkarteak 1987ko maiatzaren 3an, igandez, 25. urteurrena ospatu zuen. Egun handi hura ospatzeko hainbat ekintza antolatu ziren, haien artean aipagarrienak hauek izan ziren:

- Elkarteko **armarri** berria egin zen. Ur-Miako armarrian azaltzen diren irudiak, elkarteko ezaugarri bezala errioa, erramua eta brilak eta bola dira.
- **Joxe Legarretaren** omenez harrizko plaka bat jarri zen, hainbat urteetan egindako lana eskertzeko. Harriak Euskal Herriko maparen irudia du.
- **Bazkari** ederra ere egin zen, eta bazkaria alaitzen Satur Agirre aritu zen bere eskusoinuarekin, eta Jon Sarasua eta Imanol Murua izan ziren bertsolariak. Bigarren saioan *Lexo*, Garin eta *Aterpe* ere aritu ziren bertsotan.



Armarri berriaren bedeinkapena.

UR-MIA SOLAS ELKARTEAren 50. URTEURRENA, EGITARAUA

Urtarrilak 15. 1962ko urtarrilaren 12an sortu zen Ur-Mia Solas Elkartea. Hori ospatzeko egun honetarako honakoak antolatu ziren:

- 10:00etan Elkarteko hildako kideen aldeko Meza.
- 11:00etan Herri Hamaiketakoa Elkartean.

Martxoan hasita: Ur-Mia Elkarteko Mus Txapelketa.

Maiatzak 4. Ur-Mia Solas Elkarteko Mus Txapelketaren finala eta azken partidak.

Maiatzak 5. Ur-Mia Solas Elkartearen Haur, Gazte eta Helduen Bola eta Toka Txapelketa. Goizean 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 15:00etatik 17:00etara. Ondoren txokolate jatea. Ilunabarreko 19:30etan auzoko musikari eta abeslarien ekitaldia, 50. urteurrenaren argazkiak eta pasadizoak bertan azaltzen dira. San Antonio Parroki Elizan.

Maiatzak 6. 50. urteurrenaren jai nagusia. Goizean mendi irteera Agiña mendira. Eguerdian urteurreneko bazkaria. Bertan, bazkal ostean bertsolariak eta Imanol Kamiok eta Eñaut Agirrek bertso musikatuak kantatzen dituzte, Ereñotzuko bertsolarien bertsoekin prestatutako emanaldia da.

ESKERTZAK

Gure Elkarteak aurten 50. urteurrena ospatzen zuela eta, aukera paregabea iruditu zitzaigun urte guzti horietako gorabeherak liburuxka batean biltzea. Jakin badakigu gertaera guztiak xehetasunez jasotzea ezinezkoa dela, baina garrantzitsuenak biltzen saiatu gara.

Horretarako hainbat lagunengana jo dugu eta harrera ezin hobea eskaini digute.

Urtarrilaren 12an betetzen zituen egun berean bildu ginen elkarteko lau bazkiderekin: fundatzaileak diren Luix Gorrotxategi eta Juanito Sarobe, Joxe Luis Beasain eta Florian Oiarbide.

Argazkiak eta dokumentu asko ekarri dizkigute bai bazkide eta auzotarrek, guztiek gogo onez hartu dute elkartearen historia liburuxka batean biltzea, eta horiei esker ugaria izan da jaso dugun informazioa eta materiala.

Hori dela eta, lerro hauen bidez era batera edo bestera laguntza helarazi digun oro eskertu nahi dugu. Guztioi esker maiatzean argitaratu ahal izan zen 50 urteko historia biltzen duen liburuxka.



Luix Gorrotxategi, Juanito Sarobe, Jose Luis Beasain eta Florian Oiarbide.

Hernani C.R. Elkartea historiala eta garaipenak

• *Hernani C.R. Elkartea*

Hernani C.R. Elkartearen ibilbidea 1965ean hasi zen, infantil mailako ekipo batekin, zelaia Hernaniko futbol taldearekin konpartitzen zuela eta bi entrenatzaile animosoren ardurapean.

Zaharrenek ondo gogoan dituzte oraindik ere Landare Tokiko guardaren etxeko aldagelak, bigarren zelaia egokitzeko obrak, Urumea ibaia bideratzeko lanak eta Landareko instalazioen berregokitzapena.

Gaur egun, Foru Aldundiren eta Hernaniko Udalaren lankidetzari esker, Hernani C.R. Elkarteak belar naturaleko bi zelai ditu eta, zelai ondoko eraikin batean, aldagelak, gimnasioa eta egoitza soziala.

Hernaniko C.R. Elkartea 1966an hasi zen parte hartzen txapelketa erregionaletan, *Grupo Norte* zelakoan. Geroago bigarren mailako txapelketan jokatu zuen, gaur egungo Ohorezko B mailaren parekoa, eta zenbait gorabehera pasa ondoren 1977/78 denboraldian Ohorezko mailara igo zen.

1978 - 1987 hamarkada urrezkoa izan zen klubaren historian. Estatu mailako goreneko mailan lau aldiz izan zen txapeldunorde; C.A.U. Madrid, Arquitectura (bi aldiz) eta U.E. Santboiana taldeak izan ziren irabazle. Txapelketa honetan, 83/84 denboraldian, honako ekipo hauek hartu zuten parte: U.E. Santboiana, Hernani C.R. Elkartea, C.A.U., Atletico San Sebastián, F.C. Barcelona, Valencia, Arquitectura, Cornella, Getxo eta Tatami (Valentzia). Denboraldi horretan bertan senior mailako bigarren taldeak, *Satorrak*, oso maila onean hartu zuen parte Estatuko 2. mailan eta txapelketa erregionalean.

1987an Ohorezko mailatik jaitsi zen taldea eta Estatuko 1. mailan hartu zuen parte; *Grupo Norte-Levante* hartan ezagun zaharrak genituen eta gaur egun ere lehiakide ditugun hainbat talderekin aritu zen: Cornella, Montjuic, Hospitalet, B.U.C., Les Abelles, Ordizia, Atletico San Sebastián, Gernika,... Lau urte onen ondoren, 1991n, zoritxarreko berregituraketa bitarteko, Estatu mailako kategoria galdu egin zuen taldeak eta Euskal Ligara jaitsi behar izan zuen, Irunek irabazi baitzuen promozio-partida.



Hernani C.R. Elkarteko senior ekipoa, 91/92 denboraldian.
Arg.: Hernaniko Udal Artxiboa.

Estatu mailan egin ziren hainbat berregituraketa zirela medio, eta taldearen kaltetan Federazioak hartu zituen hainbat erabaki zirela eta, Hernaniko C.R. Elkarteak 13 denboraldi egin behar izan zituen Euskal Ligan eta 1. Mailan (Zaragozako Fénix taldeari irabazita igo zen 1999an), Estatu mailako taldeekin lehiatu gabe.

Azkenik, 2003/04 denboraldian Ohorezko B mailara igotzea lortu zuen A Coruñako C.R.A.T.en aurka play offa irabazita.

2006/07an lehen aldiz sailkatu ziren Ohorezko mailara igotzeko play offetara. Ligan bigarren gelditu ziren, Alcobendas indartsuaren atzetik.

Joaneko partiduan Hernani C.R. Elkarteak galdu zuen Sevillako Monte Cienciasen aurka (23–25). Sevilla aldera emaitza oso txarra eraman zuten eta han sevillarrak nagusi izan ziren (Monte Ciencias 48-11 Hernani C.R. Elkartea). Jubenilek Euskadiko Txapelketa irabazi zuten.

2008/09an bigarren play offa jokatu zuten. Ligan bigarren postuan bukatu zuten, Gernikaren atzetik. Play offean Atletico Portuense taldea egokitu zitzaion. Landaren 17-14 irabazi zuen joanekoan eta itzulerakoan 32-22 galdu zuten.

2009/10 urtean aldaketa nabarmenak egon ziren. Patrick Polidori eta Oier Agirrezabala klubera ailegatu ziren. Joxe Elosegi, zuzendari tekniko lanetara pasa zen eta Andoni Urkiolak taldea utzi zuen.

Ligan aurrena bukatu eta gero C.A.U. Valenciaren aurka jokatu zuen play offa. Valentzian 18-13 galdu zuen, eta Landaren play offa hernaniarren alde zegoenean, azken jokaldian Edu Sorribesek sartutako zigor golpe batengatik Ohorezko mailara igotzeko ametsa zapuztu egin zen; azken emaitza Hernani 12 - 9 C.A.U. Valencia izan zen.

Urte oparoa izan zen hau, jubenilak eta kadeteak txapeldun gelditu baitziren Euskadiko Txapelketan.

2011/12ko denboraldia: Ohorezko mailara igoera.

Historikoa denboraldi honek eman diguna.

Ohorezko B mailan entrenatzaile aldaketa egon zen, Gurutz San Miguelek taldea utzi zuen kadetetara pasatzeko eta Javier Seco *Boli* sartu zen aurrelarien entrenamenduak indartzeko. Iker Fernandez prestatzaile fisikoa ere hasi zen lanean, Oier Agirrezabalak taldea utzi baitzuen.

Ligan ez zuten areriorik izan. Hamalau partiduak irabazi zituzten, hamahirutan *bonus*a lortuaz. Bi partidu faltan aurreneko postua ziurtatua zuten.

Play offetan Cisneros talde Madrildarra egokitu zitzaion, Ohorezko B mailako 2. taldean, bigarren gelditu baitzen C.R.C.-ren atzetik.

Joanekoan 23-16 galdu zuen Hernani C.R. Elkarteak eta itzulerakoan, Landaren, nahiz eta 13-7 irabazi, ezin izan zuen kanporaketa pasa.

Oraindik beste aukera bat bazegoen igotzeko, baina beste lau partida jokatu behar izan zuen ekipoak. BERA BERAk ere C.R.C.-ren aurka galdu zuen, Hernani C.R. Elkarteak bezala, igotzeko lehenengo aukera. Oraingoan bietako batek aukera izango zuen Ohorezko mailako azkenaren aurka jokatzeko eta igoera lortzeko.

Joanekoa Landaren jokatu zuten eta 35-20 irabazi zuen Hernani C.R. Elkarteak BERA BERAri, kanporaketa oso bideratuta utzita. Itzulerakoan 18na berdindu zuten eta Hernani pasa zen azken fasera, promozio fasera. Ohorezko mailako azken sailkatua Alcobendas izan zen eta joanetorriko kanporaketa batean igoera edo maila mantentzea jokatuko zuten bi ekipoek.

2012ko apirilaren 21ean jokatu zen Landaren joanekoa: Hernaniren alde 19-18 izan zen emaitza.

Puntu bakar batekin joan ziren hernaniarrak Madrilera eta han 6-8 irabazi zuten: 25 urte eta gero Ohorezko mailan jokatzeko aukera irabazi zuten.

Jubenilak Euskadiko txapeldun gelditu ziren.

Aipatzekoa, Hernanik aurreneko neska taldea atera zuela denboraldi honetan.




Arg.: Hernaniko KRONIKA.
UVI AMBULANCIA
EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA
Hernani C.R. Elkartea HISTORIA ETA ERAIKUNTZA

